

Goienkaria

2007ko martxoaren 2a > Egubakoitza > VII. urtea > 278. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Elkarbizitzako arauen garrantziaz jabetu behar dute umeek, txikitatik"

Elena Leal

Familia
bitartekaria > 09



G2a

Antonia San Juan
aktorea bihar
Oñatin > 43

DEBAGOIENA
Atzegi elkarteko sentsibilizazio
kanpaina jarri du abian > 04

MARTXOAK 8
Arrasaten elkarretaratzea egingo
dute, 19:00etan, Seber Altuben > 18

LAN SEGURTASUNA ETA OSASUNA
Arcelorrek gai horien gaineko
jardunaldia egingo du asteon > 07

AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA

Gurean 36 kilometroan zehar igaroko da AHT

ZAZPI HERRI Oñati eta Elgetatik izan ezik, Debagoieneko gainerako zazpi herrietan barrena ibiliko da

LANAK Legutiano eta Eskoriatza lotuko dituzten tarte bi eta Arrasate eta Elorrio lotuko dituena esleituta daude > 02-03

KORRIKA > EKITALDIAK

'Kulturbira' Arrasatera iritsiko da domekan

Korrika kulturalaren barruko *Kulturbira* jai erraldoia Arrasatera iritsiko da domekan. Seber Altube plazan agertoki handia jarriko dute eta askotariko ekitaldiak egongo dira. Besteak beste, ikus-entzu-nezkoak emango dituzte agertokian egokituko duten pantaila erraldoian. Horrekin batera, Txatxilipurdik gazte zein nagusiendako hainbat tailer jarriko ditu. 12:30ean hasiko da jaia, eta arratsaldez ere izango da. > 20

AURKIBIDEA

Debagoiena > 02-07
Elkarritzeta > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-42
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Telebista-Irratia > 51
Komunikazioa > 52
Non-zer > 54-55

ELKARTASUNA > SAHARA

Saharako umeak etxearen hartzeko kanpaina

Asteon abiaraziko dute ume sahararrak udan etxearen hartzeko kanpaina gureko elkarteeek. Dagoeneko jarri dira udalekin harremanetan dirulaguntzak lortze aldera, eta dagoeneko baiezkoa jaso dute hainbat udaletatik. Iaz 27 ume etorri ziren hona uda igarotzea eta aurten ere beste horrenbeste ekarri nahiko lituzkete sahararren alde diharduten gureko elkarteeek. Hala, elkartasunerako dei egiten diete debagoiendarrei. > 15



LANAK Domingo Irala kalea berritzeko proiektuaren lehenengo fasean gelditu dituzte lanak.

XABIER URTZELAI

Bergarako Domingo Irala kaleko lanak geldi daude

Bergarako erdiguneko Domingo Irala kaleko lanak geldi daude azken egunetan. Arrazoia argitzeke dago oraindik, baina badirudi obrak egiten ari den enpresaren gorabeherengatik daudela geldi. Hori da, behintzat, obrako langileek zein Uda-

leko iturriek duten susmoa. Enpresak berak ez du azalpenik eman gura izan. Egoeraren arrazoia jakiteko, batzarra egingo dute Udaleko Hirigintzako arduradunek eta enpresako ordezkariek martizenean Bergarako udaletxeen. > 24

S-MAX your life.



Ford S-MAX berria. Urteko Autoa 2007an European
24.000 € -tik aurrera

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE



Kalitatearekin bizi nahi duzu etorkizuna?
Har ezazu gosari.
Ez du preziorik.
Arkauz etxearen zure beharrak ase egingo ditugu.

Arkauz zure etxea da.

AZPIEGITURAK > ABIADURA HENDIKO TRENAK

Ibarra zeharkatuko du Abiadura Handiko Trenak

XABIER URTZELAI > DEBAGOIENA

175 kilometroko trazatuau, Abiadura Handiko Trenak 250 kilometro ordura zeharkatu ahal izango du Euskal Autonomi Erkidegoa. 38 minututan lotuko ditu Bilbo eta Donostia, 28 minututan Bilbo eta Gasteiz, eta 34 minututan Gasteiz eta Donostia. Debagoienari dagokionez, ibarrak AHTeko bidegurutze lana egingo du, gurean elkartuko dira-eta hiru norabideak.

PROIEKTUA AZKEN FASEAN

Abiadura Handiko Trenaren gaineran berba egiteko 20 urte egin behar ditugu atzera. Trenbideak garraiobide sare moduan daukan balioa ikusita, Espainiako gobernuak 80ko hamarkadaren amaieran hasi zen trenaren erabilera bultzatzeko planak sustatzen. Orduan egindako komunikazio sistemei buruzko ikerketen esanetan, EAEn hiriarteko distantzia ertainetan komunikazio gabezia handia zegoen, eta treina oso gutxi erabiltzen zen. Egoera horrek bultzatuta sortu zuten Tren Arloko Euskadiko Plana (1989); orduan hasi zen gauzatzen egungo proiektua.

Hori izan zen proiektuaren lehenengo urratza, definizioa, alegia. Eta jarraian etorri ziren beste hiru fazeak: eztabaidea, finantzazioa eta proiektua gauzatzea. Hori da, hain zuzen, AHT egitasmoaren kontra daudenek salatzen dutena, lehenengo fasetik hirugarrenera egin dutela jauzi; hau da, ez dela proiektu horren gaineko eztabaidearik egon. Kontuak kontu, egitasmoa dagoeneko laugarren fasean dago, hasi dituzte lanak.

TRENA IBARREAN

Euskal Y-arena eraikitzeko lanak joan den urteko urrian hasi zituzten, Araban. Debagoienari dagokionez trenak Leintz Gatzagako, Eskoriatzako, Arrasateko, Bergarako eta Antzuolako lurak zeharkatuko ditu; hala, dagoeneko esleitu dituzte Legutio-Eskoriatza, Eskoriatza-Aramaio, Aramaio-Arrasate eta Arrasate-Elorrio tramuak (ikus 3. orriko taula), eta eginda dute beste bi tramuren gaineko eskaintza ere.

Abiadura Handiko Trena Leintz Gatzagako lurretan sartuko da ibarrera. Trenak 600 metro egingo ditu Gatzagako lurretan, tunel barruan. Eskoriatzako trama, berriz, 4,5 kilometrokoa da: 2,6 kilometro tunel barruan, kilometro erdi zubi gaineran -bi zubi egingo dituzte, 200 eta 300 metrotakoak-, eta 1,4 kilometro lur gaineran. Proiektuak dio Eskoriatza eta Aramaio lotzenko hainbat tunel eta biaduktu

BIDEGURUTZA


Debagoieneko lurretan egongo da hiru hiriburuak batuko dituen bidegurutza, Arrasaten eta Bergaran. Elorriok osatuko du 'Y'-aren triangelua

HIRU TRAMU ESLEITUTA

Guztira bost tramu esleitu dituzte, eta horietako hiru ibarrekoak dira. Beste bi tramutan dagoeneko eginda dute eskaintza

PROIEKTUAREN KONTRA

Abiadura Handiko Trenaren egitasmoak haserrea piztu du gizarteko hainbat sektoretan, proiektu hori ez dutelako begi onez ikusten



'EUSKAL Y'-AREN TRAZATUA' Debagoieneko lurretan Abiadura Handiko Trenak egingo duen ibilbidearen mapa.

GOIENKARIA

egin beharko dituztela; hori horrela, lan azpimarragarri-nak izango dira, batetik, GI-3343 erreidea zeharkatuko duen Zubia (471 metro), eta bestetik, Induspen egingo duten tunela (2.224 metro). Aramaion, berriz, trenak 5,1 kilómetro egingo ditu;

tarte horretan, 3,6 kilómetro tunel barruan egingo ditu, kilómetro erdi biaduktu gaineran, eta kilómetro bat gainazalean.

BIDEGURUTZE LANA

Trenbidea egiteko Arrasateko lurretan lan dezente egingo dute,

Gasteiztik etorriko den trena bi norabidean banatuko da-eta: batek Bilborako bidea hartuko du eta besteak Donostiarako eta Irunerako. Beraz, Euskal Y-aren ibilbide osoak erdigunean duen triangeluaren puntetako bat Arrasaten egingo da -beste-

ak Bergaran eta Elorrión egingo dira (ikus goiko irudia). Arrasate eta Elorrio lotuko dituen zatian egin beharreko lan garantzisuenak izango dira, batetik, Gabaundiko (223 metro) eta Kobateko (94 metro) zubiak, eta bestetik, Karraskaingo (410

metro) eta Udalatxeko (3.160 metro) bide bikoitzeko tunelak.

Arrasaten moduan, Bergaran ere bi norabidetan banatuko da trenbidea: hala, Donostiatik datorren norabide batek Bilborako bidea hartuko du –Elorriotik–, eta besteak Gasteizera egingo du –Arrasatetik–. Bilbora egingo duen zatia 3,8 kilometrokoa izango da, tunel barruan, eta Gasteiz aldera egin- go duen tramuak 8,1 kilometro luze izango du: 6,4 kilometro tunel barruan, kilometro bat gainazalean, eta 400 metro zubi gainean.

TRENAREN GAINEA

Herritarrei proiektuaren berri eman asmoz, Eusko Jaurlaritzak joan den urteko abenduan aurkeztu zuen *EuskalYvasca.com* webgunea. Bertan proiektuaren gaineko hainbat argibide ematen dituzte, baina AHTren kontrako taldeek salatu dute webgunean azaltzen diren azalpenak azalekoak direla, eta ez dagoela argi datuak nondik atera dituzten: "Informatzeko baino desinformatzeko tresna da".

Webgunean dator AHTk hiru arlotan eragingo duela onera: arlo sozialean, arlo ekonomikoan eta baita ingurumenean ere. Jaurlaritzaren datuek diotenez, egunero ia 25.000 lagun joaten dira hiriburu batetik bestera, eta %49ak auto partikularra era-biltzen du. Hori horrela, "trenak errepideak hustu egingo ditu, istripu kopurua txikiutu egingo da eta lurraldleen arteko loturak hobetu egingo ditu".

Horrekin batera, tren sozialaren alde egingo dute, "Trenbide sare berrian ibiliko diren trenak eskuragarriak izango dira pertsona guztiendako. Inguruko herrialdeetan ikusi dugun bezala, abiadura handiko garraioa arrakastaz kudeatu dai-teke salneurrien politikan kon-pentzia bultzatzan bada".

ONURA EKONOMIKOAK

Proiektua gauzatzeko EAEn inoizko inbertsiorik handiena egin behar da. Eta horrek, ekonomian ezinbestean izango du eragina. Hori horrela, Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera trenak 6.100 lanpostu zuzen sortuko ditu, eta zeharkako 2.900 lanpostu. Hala, Barne Produktu Gordina urtero %1,30 igoko dela aurreikusi dute. Gainera, "Europako merkatuetara iristeko den-bora gutxiago beharko denez, garraioak eragiten dituen kostuak asko gutxituko dira. Horren eraginez, esportazioak igo egingo dira, enpresen produktibitateak gora eginez". Eusko Jaurlaritzak esku artean dituen datuen arabera, 2010etik aurrera urtean 420 milioi euro aurreztuko dira erregaien kontsumoan.

ingurumenari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak lau puntu azpimarratzen ditu webgunean: energia aurreztea, lurrauen era-bilera txikitza, ingurumena errespetatza eta paisaian integratza: "Sare berriari esker posible izango da bidaiaiak eta merkantziak errepideetik atera eta trenbidera eramatea, horrela, energia aurreratuko da". Lurra-

Abiadura Handiko Trenaren proiektua zenbakitan, gurean

ESKAINTZA EGIN DEN TRAMUA	LUZERA	NORK EGINGO DUEÑA	ADJUDIKATUTAKO DATA	ADJ. AURREKONTUA	EPEA
Legutio-Eskoriatza (1. tramua)	5 km	UTE Comsa-Cycasa C.	06/12/26	65,03 milioi euro	45 hilabete
Legutio-Eskoriatza (2. tramua)	2,4 km	UTE Fer. Agroman-Fon.	06/12/26	65,68 milioi euro	45 hilabete
Arrasate-Elorrio	4,4 km	Obras Subterrane. S.A	07/01/26	69,70 milioi euro	33,5 hilabete
Eskoriatza-Aramaio*	5,5 km	-----	-----	113,09 milioi euro*	30 hilabete
Aramaio-Arrasate*	3,9 km	-----	-----	78,34 milioi euro*	30 hilabete

*Tramu horietako lanak adjudikatu barik daude, baina eginda dago eskaintza-aurrekontua. Hala, aurreko hiru tramuetan, eskaintza-aurrekontuk onartu den azken aurrekontura beherapen nabarmenak egon dira.



PROTESTAK Irudian, Aramaion egindako agerraldia.

GOIENKARIA

EMANDAKO DATUAK, EZBAIAN


Asko dira Eusko Jaurlaritzak ematen dituen datuak ezbaian jartzen dituztenak. Roberto Bermejo EHUKO irakasleak 2004an egin zuen Y proiektuaren erren>tagarritasun gaineko azterketa. Hauak dira analisi horretako hainbat ondorio: "Abiadura Handiko Trena orain arte garraiobideetan egin diren oreka gabeko inbertsioekin amaitzeko tresna moduan aurkeztu dute. Horren atzean, baina, orain arte egin den garapen politika gorde gura da. Hala, epe motzean hainbat sektorek erdietsiko dituzten irabaziak proiektuaren jasangarritasuna edo justizia soziala moduko irizpideetatik gailentzen dira".

Bermejoren azterketako emaitzek ezbaian jartzen dute proiektu horren gaineko errentagarritasuna. Gainera, lurralde polarizatuaren ereduaren areagotuko du, hiriburuak batu baina herriean garraiobide horrek ez duelako inongo ekarpenik egingo.

"Proiektuak izan ditzakeen onurak sortuko dituen kaltekin alderatu behar dira"

Euskal Y-aren egitasmoak geroago eta kontrario gehiago ditu, eta ELA sindikatuaren adierazpenak izan dira azken adibidea. Ibarreko herri gehienetan sortu dira AHTren kontrako taldeak, egitasmo horrek eragingo duen "txikizoa" salatzeko.

Eusko Jaurlaritzako ordezkariak orain dela bi aste egon ziren Aramaion, proiektuaren gainean berba egiten. Arantxa Tapiak esan zuen, besteak beste, instituzioek atera behar dutela aurrera AHT, eta horretako eztabaidea luzea izan dutela. Horrekin batera, proiektuak ingurumenean sortuko dituen kalteak errekuveragarriak izango direla gaineratu zuen. Joan den astean, berriz, proiektu horren gainean beste ikuspuntu bat ematen EHUKO irakasle Iñaki Antiguedad eta EHNE sindikatuko Eneko Karrera izan ziren Aramaion. Karrerak azpimarratu zuen Debagoienean trenak ez duela batere ekarpenik egingo, ez duelako barruko zirkulazioa hobetuko: "Horrekin batera, trenak hemengo lur sail txikiak banatuta utziko ditu, nekazariei kalte nabarmena eginez". Proiektuak izan ditzakeen onurak sortuko dituen kaltekin alderatu behar direla gaineratu zuen Karrerak, "neurri handian errekuveratu ezin daitezkeen kalteak".



Udalatx barrena 3.160 metroko tunela egingo dute.

GOIENKARIA

San Miguel
DEKORAZIOA ETA ISOLAMENDUA

Norberaren babeserako ekipamenduak
eta lanerako arropak
Zeramika erakusketa eta salmenta

Zapatu goizetan irekita

Distribuidor Oficial: **ISOFER**, **Styrodur**, **USG**, **MAPEI**, **blanke**, **HANDYHEAT**, **eurocoustic OWA-SONEBEL**, **arena**, **ROCLINE**

Amillaga 5-6 pabilioilla - BERGARA Tel.: 943 76 47 90 - faxa: 943 76 01 15 Zentralita: 649 98 16 70

SENTSIBILIZAZIOA > AURTENGU LELOA DA: 'ASKO BEGIRATU ARREN, EZ NAUZU IKUSTEN'

Atzegik sensibilizazio kanpaina abian jarri du eta Atzegizaleak egin nahi ditu

Debagoineneko Atzegiko kideek ere Atzegizale egiteko aukera eskainiko diete herritarrei eta kanpainako kartelak jarriko dituzte

AINTZANE IRIZAR > BERGARA
Gipuzkoako adimen urritasuna duten pertsonen aldeko erakundea da Atzegi. Urtero egiten dute sentsibilizazio kanpaina herrialde osoan. *'Asko begiratu arren, ez nauzu ikusten' leloarekin abiariazi dute aurtengoan. Euren helburu nagusia da gizartea sentsibilizatzea. Horrez gain, bazkide, boluntario, lagunzaile eta Atzegizaleak lortu nahi dituzte.*

Debagoienean ere egongo da horretarako aukera. Izan ere, herri bakotzeko Atzegiko kideek horretarako aukera eskainiko dute, herriz herri antolatuko dituzten ekimenetan, martxoaren 10ean eta 11n.



ATZEGI Ekitaldi ugari antolatzen du Atzegik; argazkian, Debagoineneko Atzegikoek iaz egindako bazkaria.

GOIENKARIA

MARTXOAREN SETIK AURRERA

Astelehenean, martxoak 5, ekingo diote kanpainari. Hilaren 8an, Atzegik eta Zine eta Giza Eskubideen Jaialdiak antolatuta, Atze-

giren Film Laburren lehenengo sariketako filmak ikusteko aukera izango da Victoria Eugenia antzokian, Donostian, 20:00etan. Kanpainako ekitaldi nagusia

martxoaren 9an, egubakoitza, izango da Kutxa aretoan (Andia kalean), 18:30ean. Zapataua, azkenik, estresaren gainekeko talierra izango dute Atzegikoek.

EZ DITUGU IKUSTEN

Horixe diote Atzegiko kideek euren kanpainen aurkezpenean: "Jendeak, orokorrean, adimen urritasuna duten pertsonei asko begiratzen die. Bain, benetan ikusten ditu? Begiratu eta euren urritasuna ikusten du jendeak, baina, zelakoa den, gustuko dituen gauzak, desioak... Hori guztia kostata ikusten dugu". Horregatik, aurtengo kanpaina-reñ leloa da: *'Asko begiratu arren, ez ditugu ikusten'*.

GUREAN, 450 ATZEGIZALE

Esan bezala, kanpainen helburuetako bat da Atzegizaleak lortzea. Atzegizaleak dira adimen urritasuna duten herritarrei laguntzeko, entzuteko, eurekin berba egiteko edo arazoren baten aurrean daudenean laguntasuna eskaintzeko konpromisoa hartzen duten pertsonak. Debagoienean 450 Atzegizale daude, eta Gipuzkoan, guztira, 5.800. Bazkideak (adimen urritasuna dutenen senitartekoak), 140 lagun dira Debagoienean eta diruz laguntzen duten bazkide lagunzaileak, berriz, 320.

Hitz egin eta nabigatu 1€*-ren truke

Proba ezazu 3 hilabetan,
hilean bakarrik ordainduta

Telefoniaren hileko kuota + Finkoetako deiaik 24 orduetan + 3 megako Banda Zabala

...eta, gainera,
proba ezazu
TB Digital Osoa
hilean 10€
gehiagoren truke



 ROUTER
COMUNICACIONES, S.L.

Errebal, 15
Eibar

① 943 700 369

Maalako Errebala, 8
Arrasate
① 943 71 27 81


euskaltel

-en Banatzaile Ofiziala

* Sustapen honek 2007ko martxoaren 31ra arteko kontratazioentzat balio du. Sustapena amaitu ondoren, produktu guziek kontratatuta segituko dute, bezeroak besterik jakinarenatz ez badu. Telefono finkoetara eguneko 24 orduetan egindako deiaik, Ahots Tarifa Finkoa baldintzen arabera. Ez dira sartzen nazioarteko deiaik, tarifa gehigarrikoak, sare adimenduna eta mugikorrak. Gehienez, hilean 5.000 minuto. Epea amaitu ondoren, produktuen prezioak hauek izango dira: kuota 15,5 €, Ahots Tarifa Finkoa 13 € eta 3 megako Banda Zabala 39 € eta TB Osoa 25,90 € (deskodetzalea sartu gabe). Zeharkako zergak ez daude sartuta. Sustapen honek lehen hiru hilabeteetan balio du. Galdu Euskaltelen saltokietaen sustapen honen baldintzel buruz.

JAIALDIA

Mundumira ekaineko lehenengo asteburuan

Aretxabaletan
ospatuko da
munduko kulturen
eta musikaren jaia

O.E. > BERGARA

Ekainaren lehen asteburuan
ospatuko da Mundumira
jaialdia, ekainaren 1ean, 2an
eta 3an, hain zuen ere. Are-
txabaletan izango da aurten
jaia. Hantxe ospatuko dute
munduko kulturen eta musi-
karen III. jaialdia.

Debagoineneko Mankomu-
nitateak antolatu du aurten
ere jaialdi hori *Euskal Herria*
aldizkariarekin batera. Las-
ter aurkeztuko dute ekital-
dien egitaraua, baina aurre-
ratu dute kontzertua, taile-
rrak, azokak eta irteerak
egongo direla.

Aurtengo Mundumira
jaialdira ere munduko lurrade
askotatik etorriko dira.
Nork bere herriko kultura,
musika, artisautza eta ohi-
trarak ekarriko ditu, eta Aretxa-
baleta izango da hori guztia-
ren topalekua. Eta kultura
ezberdinaren arteko elkartru-
keaz gain, beste hainbat eki-
taldi ere egongo dira. Horie-
tako batzuk dira, besteak bes-
te: Euskal Herriko boulder
txapelketa, haurrendako jola-
sak, erakusketak eta Euskal
Herriko Gobernuz Kanpoko
Erakundeen topaketa.

GRAFITI LEHIAKETA

Grafiti lehiaketa ere egingo
dute egun horietan Aretxaba-
letan. Ekainaren lehen astebu-
ruan izango da hori, Mundu-
mira barruan. Hala ere, lehe-
nago zabalduko dute epea
lehiaketan parte hartzeko. Ap-
rilaren 12a baino lehen eman
behar dute izena interesatuek
Aretxabaletako kultura etxe-
an. Baldintza batzuk dira:
hamar lagun baino gutxiago-
ko taldeek hartuko dutela par-
te eta kideak 15 urtetik gor-
akoak izatea.

RENOVE PLANA > ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Renove planak herritarren kontzientziaoa bultzatu du

2006ko ekainaren 15ean jarri zuten martxan
etxetresna elektrikoen Renove plana

Martxoaren azkeneko egunean bukatuko
da Eusko Jaurlaritzaren ekimena

AMAIA ZALDUA > DEBAGOIENA

Jaurlaritzak iaz abiarazi zuen
Renove planaren helburua ener-
gia gutxiago kontsumitzen duten
etxetresna elektrikoak erostea
bulzatzea da. Tresna elektriko
berri bat zaharragatik aldatzean,
A efikaziako tresna erosten bada,
75 euroko dirulaguntza jasoko da.

Adituen esanetan, A efikaziako
den arropa garbigailu
batek orain artekoek kontsumi-
tzen zuten energia baino %30
gutxiago kontsumitzen du.

RENOVE PLANAREN BALORAZIOA

Renove planean parte hartu duten
Milar Elkoroko, Herran etxetres-
na elektrikoetako eta Almacenes
Arrasateko arduradunen arabera,
salmenta kopuruan ez da aldake-
ta handirik izan, baina nabari da

jendea A efikaziako etxetresna
elektrikoak erosten hasi dela.

Hiru saltzaileek bat egiten
dute gehien saldu den tresna
arropa garbigailua izan dela esa-
tean, gehien erabiltzen dena da-
eta. Ondoren, hozkailua, izozkai-
lua eta plater garbigailua saldu
dira gehien, hurrenez hurren.

"Ez dugu gehiago saldu, baina
jendeak A efikaziaren garrantzia
ezagutu du", dio Igor Loitik, Alma-
cenes Arrasatekoak. Lehen etxe-
tresna elektrikoak konponduko
lukeenak edo gehiago kontsumi-
tzen duen tresna bat erosiko luke-
enak A efikaziako aukeratu du.

RENOVE PLANAREN BUKAERA

Martxoaren 31 da etxeko tresna
elektriko zaharra A efikazia due-
nagatik aldatu eta dirulaguntza



ALMACENES ARRASATE Argazkian, Igor Loiti saltokian.

U.M.

eskuratzeko azkeneko eguna.
Hala ere, saltzaileek adierazi
dutenez, gaur egungo merkatuan
produzitzen diren etxetresna

elektriko gehienak A efikaziako-
ak dira eta hemendik gutxira ez
da beste mota batzuetako eskain-
tarik izango saltokietan.

LAPURRETAK > AHALEGIN GEHIAGO

Lapurrik sartu dira ibarreko hainbat denda eta enpresatan egun gutxian

Astelehen gaeuan Antzuolako Elay enpresan
sartu ziren lapurrik, teilitutik; ez zuten ezer
ostu, baina bazekiten zertan eta non ziharduten

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Astelehen gaeuan, Antzuolako
Elay enpresara sartu ziren lapu-
rrik. Teilitutik sartu ziren eta goi-
ko kristal bat apurtuta sartu ziren
enpresako bulegoetara. Bulegoak
endredatu arren, ez zuten ezer era-
man. Hala ere, enpresako ordez-
kariek esan bezala, lapurrek ba-

ei zekiten zertan eta non zihar-
dut, "lapurrek alarma batzuk
ondo zituztelako".

LARRUZKO EHUN BEROKI

Antzuolako lapurreta hori gerta-
tu baino egun batzuk lehenago,
baina, Debagoineneko beste den-
da, komertzio eta enpresa batzue-

tan ere sainatu ziren osten. Elge-
tan, adibidez, larruzko ehun bat
beroki lapurtu zituzten joan den
astean Elgeta Piel dendant. Gauez
ostu zituzten. Alarma itzali eta
sarrerako atea bortxatu zuten
barrura sartzeko. Palanka bate-
kin atea bortxatzen sainatu ziren,
baina atearen alum iniozko
estrukturak eman egin zuen eta
kristala oso-osorik jausi zen
lurrera. Aurretik, alarma, tele-
fonoa eta argindarra moztu zituz-
ten. Ertzaintzaren arabera, pro-
fesionalen lana izan zen.

Antzuolan ere, bi lapurreta
ahalegin izan ziren duela egun
batzuk. Oerlikon Balzers Elay
enpresara terrazatik sartu ziren
lapurrik; leihoko burdin hesia
erabat kendu eta komunera sar-
tu ziren. Handik, alarmaren sis-
tema duen armairura iritsi eta
gutziz apurtu zuten. Eroski City
dendant ere osten ahaleginu
ziren hurrengo egunean. Bestal-
de, Arrasaten ere osten sainatu
dira Maala, Seber Altube eta Olar-
teko denda batzuetan eta Berga-
ran lau enpresatan sartu dira.



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzzu.eus

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51



EKLIPSEA Ilargi ekipsearen fenomenoa nola gertatzen den, pausoaz pauso.

ILARGI ASTRONOMIA TALDEA

ASTRONOMIA > ILARGI EKLIPSEA

Ilargi eklipsea gertatuko da zapatutik domekara bitartean

Zapatuan 22:30ean hasiko da ilargi eklipsea eta 23:45ean lerrokatuko dira eguzkia, lurra eta ilargia

Ilatargi astronomia elkartek teleskopioak jarriko ditu Bergarako seminarioan eklipsea ikusteko

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Ilargi eklipsea gertatuko da biharka, zapatua, gauean. 22:30ean hasiko da eklipsea. Ordu horretan ilargia lurraren itzalean sartzen hasiko da eta 23:45ean, erabat

itzaliko du. Momentu horretan ilargiak kolore laranja hartuko du eta horrela egongo da 01:00ak arte, eklipse totala amaitu arte. Ilargi eklipsea bera 02:10ean bukatuko da.

TELESKOPIOTIK BEGIRA

Ilatargi astronomia taldeak, Bergarako Aranzadi ikastolarekin batera, hitzordua egin du eklipsea teleskopiotik ikusteko. Bergarako seminarioko patioan egongo dira, 22:30ean. Taldeak hiru teleskopio eramango ditu baina jendeak etxeko teleskopioa ere hara eramateko deia egin du Manu Arregi Ilatargi astronomia taldeko kideak. "Herritar askok dute teleskopio bat etxean, Gabonetan oparitu diotetako, adibidez. Gura duenak seminariora

eraman dezake bere aparailua. Eklipsea ikusiz gain, erabiltzen ere erakutsiko diogu, gura badu", esan du Manu Arregi oñatiarrak.

SEI HILEAN BEHIN

Ilargi eklipsea sei hilabetean behin gertatzen den fenomenoa dela azaldu du Manu Arregik, "batzutan, ordea, hemen eguna denean gertatzen da eta munduko beste puntatik ikusten dute". Eguraldi ona eta argia egitea falta da orain eklipsea behar bezala ikusteko.

MANIFESTAZIOA > ARRASATEKO AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUA PRENTSAURREKO EGUN DU

Zapatuan Bilbon gertatutakoa salatu dute asteon Arrasaten

Arrasateko 81 urteko emakumezkoa zauritu zen Bilboko manifestazioan; prentsurrekoan, Ertzaintzaren jarrera salatu zuen Amnistiaren Aldeko Mugimendua



SALAKETA Murgoitio eta beste zauritu batzuen argazkiak erakutsi zituzten.

Arrasateko Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek salatu zuten autodeterminazioaren eta amnistiaren aldeko manifestazioa bortizki desegin zuela Ertzaintzak. Nabarmendu zuten, gainera, Maria Murgoitiok 22 urtez duela semea kartzelan eta haren eskubideak bermatzeko eskatzen joan zela Bilbora.

JAURLARITZAREN AZALPENA

Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzaren bozeramaileak martitzean berba egin zuen Bilboko gerrikarien gainean; honakoa esan zuen: "Gure galdera da zergatik zeukan erabakita Olanoren Batsunak probokatu zutena probokatza". Zera gaineratu zuen: "Konfrontazioa bilatzen zuten eta ez ziren gelditu lortu zuten arte". Gainera, galdetu zuen zergatik izan zen Askatasuna eta ez Etxerat manifestazioaren deitzailea.

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE
Zapatuan Bilbon Euskal Preso Politikoaren Kolektiboak deitutako manifestazioan Arrasateko 81 urteko emakumezkoa zauritu zela eta, prentsurrekoan egin zuen Arrasateko Amnistiaren Aldeko Mugimendua, eta gerta-kari haitan Ertzaintzaren jarre-salatu zuen.

Ertzaintzak manifestazioa desegin zuenean, Maria Murgoitio arrasatearra lurrera erori eta pelbisa apurtu zuen. Buruan ere kolpea hartu zuen eta ospitalean

dago oraindik, buruan eskanerra egin behar diote eta. Murgoitio-ren egoera ez da larria, baina medikuek esan diote atseden luzea beharko duela.

> EUSKARA
Oñatiko zinema aretoa aztertu du Kontseiluak

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak zinema aretoetako euskararen erabilera-ren gaineko azterketa egin du Euskal Herriko 29 arretan, tartean, Oñatikoan. Oro har, egoera kaxkarra dela erakutsi du azterketk, baina Oñatikoak nahikoa nota ona lortu du: 10etik 5,7, hain zuzen ere. Orokorean, batez besteko nota izan da 3 puntuoa.

Bi alderdi aztertu ditu Kontseiluak: batetik, filmen eskaintza eta bestetik, aretoetan euskarari egiten zaion lekua.

Oñatiko zinemako ardua duen Ansoalde enpresakoek azaldu digutenez, iaz, 12 bat euskarazko film eskaini zituzten.

> ARALAR-EZKER BATUA
Ezker Batuko Karmelo Perez izango da zerrendaburu Oñatin

Aralar eta Ezker Batua alderdiek koalizioa osatuko dute eta elkarrekin aurkeztuko dira Oñatin, maiatzeko hau-testudeetan.

Karmelo Perez Ezker Batuko izango da zerrendaburua. Perez Ezker Batuko zinegotzia da gaur egun. Zerrendako bigarrena izango da Miren Arregi Aralarreko kidea. 27 urte dauzka Arregik eta Humanitate-Enpresa ikasketak egin ditu Mondragon Unibertsitateko Eskoriatzako fakultatean.

Zerrenda guztiz zehaztu gabe dute oraindik, Miren Arregik azaldu digunez. Dena dela, jakinarazi digu datozen asteotan zerrenda osoaren jendaurreko aurkezpena egi-teko asmoa dutela.

> LAB SINDIKATUA
INEM aurrean kale agerraldia egin du LAB sindikatuak

Langileok autodeterminazioa kanpainaren barruan, kale agerraldia egin zuten atzo, eguna, LAB sindikatuko Debagoieneko kideek Arrasateko INEMen egoitzaren aurrean. Sindikatuko 25 bat ordezkari elkartu ziren age-rraldi horretan.

Aurreko astean egin zuen Debagoieneko LABek kan-painaren aurkezpena Arrasaten. Hantxe azaldu zutenez, kanpainaren helburua da euskal langileen eskubideak Euskal Herrian kudeatu eta negoziaztea eskatzea. Martxoaren 3ra arte, langile-mugimenduaren egunera arte, iraungo du kanpaina horrek. Debagoienean ez dute beste mobiliatziorki deitu.

Ainhoa Esteban > Arcelorreko Osasun eta Lan Segurtasunaren arduraduna

"Ez badaukagu segurtasun sentsibilitaterik, ez du balio instalazio ezin hobeak izateak"



Ainhoa Esteban lanpetuta dabil egunotan jardunaldiak antolatzen.

MIRIAN BITERI

MIRIAN BITERI > BERGARA
Martxoaren 6an, Osasunaren eta Lan Segurtasunaren Eguna da. Bergarako Arcelorrek jardunaldi batzuk prestatu ditu, "segurtasun sentsibilitatea" eta "prebentzia" bultzatzeko asmoz. Enpresako Ainhoa Estebanekin egon gara hizketan.

Zertan datza zehazki jardunaldia?

Helburua osasunak eta lan segurtasunak duten garrantziaz hausnartzea da, ez lanean bakarrak, baita bizitzako beste alorrean ere. Horrekin nahi duguna da guztiei jakinaraztea denok garela protagonista horretaz hitz egitean eta denok izan behar dugula zaintzaile eta aurreikusle segurtasuna gure bizitzan txertatzeko, hau da, ohitura bihurtzeko.

Zer dela-eta horiek antolatzea?

Taldearentzat lehen premisa eta garrantzitsuena zero istripu, zero gertaera izatea delako. Eta, ildor horretan, egunero egiten dugun lanaz gain, aitzakia ona iruditzen zaigu horrelako ekitaldiak antolatzea, momenturo osasun eta lan segurtasunaz hitz egiteko eta partaide guztiok ikuspegi ezberdinak gogoan hartzeko.

"Denok izan behar dugu zaintzaile eta aurreikusle segurtasuna gure bizitzan txertatzeko"

"Makinen erorketak eta altueretako harrapatzeak dira gure taldeak eduki dituen istripu larrienak"

"%95 gutxituko lirateke istripuak aurreko irizpideak jarraituko bagenitu guztiok"

Zer-nolako ekimenak prestatu dituzue martxoaren 6rako?

08:30ean zuzendari nagusiak irekiera emango dio egunari jantoki aurrean jarriko dugun karpian. Ondoren, enpresa batzordeko presidenteak, hainbat gondidatuk eta nik neuk hitzaldiak egingo ditugu. Egun bat gehiago luzatuko ditugu ekimenak. Bi egun hauetan zehar, lau stand ezberdin edukiko ditugu enpresan zehar banatuak.

Zer aurkituko dute han langileek?

Formazio gai hauek landuko dira: kableak aztertu eta aldatzeako irizpideak; altuerako lanak; prebentzia eta lan arriskuei buruzko oinarrizko kurtsoa eta lehen sorospeneko kurtsoa. Martxoaren 12ko astean istripu-simulazio bat egingo dugu.

Horiek dira Arcelor enpresak aurre egin behar dien arriskuak?

Bai, batik bat altueretako erorketak eta makinen harrapatzeak dira gure taldeak eduki dituen istripu larrienak eta kopuru handien izan dutenak. Horregatik, horiei ematen diegu ekitaldi horretan lehentasuna.

Zeintzuk dira istripuak gertaizko faktore nagusiak?

Konfiantza gehiegikeria. Portzentaje handi batean, pertsonak ditugun ohitura txarrak. Instalazioetan segurtasun neurri guztialik izatea ezinbestekoa da eta lan handia egiten dugu. Baino egia da oraindik badugula zereginera erabat egokituak izan daitezzen. Hala ere, instalazioak egoera ezin hobean egon arren, ez badaukagu segurtasun sentsibilitaterik, ez du ezertarako balio. Horregatik, ahaleginik garrantzitsuena eta zailena ere, guztion integrazioa eta konpromisoa lortzea da, enpresako maila guztietan. Jarraia eta prebentzia da gure ideia, eta bizitzaren beste alorretara hedatzea. Izan ere, nor bere bizitzaren arduradun eta bizitza pri-batuaren aseguru ez bada, lanean ere ez du jarrera aurreikuslea hartuko.

Jardunaldi hauetako segurtasun irizpideak kontuan hartu eta aurrera eramanez gero, lan istripuak zenbat gutxituko lirateke?

Gurea bezalako sektorean arrisku larriak ditugula badakigu; hala eta guztiz ere, gure egin-beharra da arrisku horiek kontrolpean izatea. Horrela, esan dezakegu %95 gutxitu ahal izango liratekeela, aurreko irizpideak jarraituko bagenitu guztiok.

Langileak animatzen al dira parte hartzera?

Bai. Iaz langileen %90ek parte hartzutela baiezta dezakegu, nolabaiteko aktibitate batean edo beste: kurtsoren batean, prestatutako stand edo aktibitateetan, egin genuen lehiaketan...

Aurtengo, beraz, ez da lehen aldia mota horretako jardunaldiak antolatzen dituzuena...

Hala da. Aurtengoa bigarren aldia da. 2006. urtean egin zen lehen aldi zuria era horretako beste ekitaldi bat.

euskara plazara

DEBAGUNE-REN BULETINA



Jon Plazaola aktoreak bakarriketak egingo ditu.

GOIENKARIA

'Umore gaua' egingo dute martxoaren 16an Bergarako Pol-Pol tabernan

DEBAGUNE > BERGARA

Debagunek, Debagoieneko euskara elkarteen topaguneak, martxoaren 16rako 'Umore gaua' antolatu du. Bergarako Pol-Pol tabernan izango da, eta emanaldia 22:30ean hasiko da. Hain zuzen ere, mota askotako ekimenez gozatu ahal izango dute zaleek, hala nola bakarriketak, lehiaketa, txiste kontalariak eta baita sorpresaren bat edo beste ere.

Egitasmo horren helburua "umorea bultzatzea" dela esan dute antolatzaileek. Izan ere, euskaldunek ere umorea badutela berretsiko dute hantxe: "Denok barruan gordetzen dugun umore puntua ateratzea da gure helburua, beldurrik gabe, eta ondo pasatzeko aukera bikaina izango da", jakinarazi dute Debaguneko ordezkariek.

Jon Plazaolak, aktore eta umorista ezagunak, bakarriketak barregarriak egingo ditu Pol-Pol tabernan. Eta, horrez gainera, txiste kontalaria ere han izango da.

UMORE LEHIAKETA

Azkenik, lehiaketa informala eta lagun artekoarena egingo dute. Antolatzailak eskatu dute jendea parte hartzen anima dadila, besteak beste txisteak kontatzera, anekdota barregarriren bat plazaratzen, bakarriketaren bat egitera, eta abar.

Barkaka, binaka zein taldeka parte hartu ahal izango da lehiaketa horretan; izan ere, umore puntua duen edozerik balioko duela azaldu dute. Hain zuzen, helburua "ahalik eta ondoen pasatzea" dela gogorarazi dute 'Umore gaua' antolatzen dutenek.

Lehiaketa irabazten duenak 200 euro eta opari bat eramango ditzu etxera. Bada, animatzen denak 943 76 36 61 telefono zenbakira dei dezake izena emateko. Hala ere, egunean bertan, martxoaren 16an, aurkezteko aukera ere badagoela azaldu dute.

Horren harira, parte hartzutela ez dutenentzako ere atea zabal-zabalik izango direla gaineratu du Debagunek. Horrenbestez, lasai asko joan eta 'Umore gaua'-ren nondik norakoez gozatzeko dei egiten dute.

Denetarik egongo da: bakarriketak, txiste kontalariak eta lehiaketa bat

Lehiaketa irabazleak 200 euro eta opari bat eramango ditzu etxera

gure artekoak

CITROËN C4 PICASSO > Arrasateko Chapimeko arduradun Mikel Loitik C4 Picasso autoaren segurtasuna eta espazio handia azpimarratu dizkigu, besteak beste. Laster bost plazako modeloa ere merkaturatuko dute.

Mikel Loiti > Citroën Chapimeko arduraduna

"Eskuzko kutxa pilotatuaren alde apustu egin du Citroënek"

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE

Zazpi plazako C4 Picasso automobilak erakutsi digu oraingo astean Arrasateko Chapime kontzezionarioko Mikel Loitik. Urrian merkaturatu zuten automobil hori, eta martxoan egingo dute bost plazakoaren aurkezpen ofiziala; hala ere, Chapimen badaukate dagoeneko.

Segurtasunari dagozkion ezaugarriak azaldu dizkigu Loitik lehenik eta behin, izan ere, EuroNCaneko bost izarrak dauzka, puntuaziorik altuena: "Zazpi airbag eta abiaduraren mugatzailea eta erregradorearen dauzka". Gainera, ABS balaztak, EPS (oreka eta trakzio kontrola) eta Isofix sistema dauzka, umeen aulkia lotzeko sistema berezia.

Aipatzeko da, bestalde, autoren Visiospace diseinua; horri esker, ikuspen eta argitasun handia eskaintzen du.

ESKUZKO KUTXA PILOTATUA

Loitik zera azaldu digu: "Citroënek eskuzko kutxa pilotatuaren aldeko apustua egin du". Horrek esan nahi du, batetik, automobilak ez duela enbragearen pedaliak ez eta martxa palankarik. Eta, bestetik, gidariak bi aukera dituela: martxak automatikoki aldatzea edo eskuz. Eskuz aldatzekotan, bolantearen ondoan dauzkan



Mikel Loiti Citroën C4 Picassoren zazpi plazako modeloaren ondoan. A.I.

C4 Picasso SX CMP 110 cv 7 plaza

Prezioa 22.685 eurotik hasita

Luzera 4,590 metro

Zabalera 1,830 metro

Maletategia 1.951 litro⁽¹⁾

Kontsumoa 5,7 litro /100 km⁽²⁾

Abiadura 180 km/h⁽³⁾

Otik 100era 13,2 seg.

CO2 isurketa 150 g/km

(1) Gehienezko edukiera

(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barruko eta errepidekoak kontuan hartuta

(3) Gehienezko abiadura

bi espeken bitartez aldatzen dira martxak. Horrela, espazioa ere irabazten da eta martxa-kutxak lagatzen duen tokian hozkailu txiki bat jarri diote.

BOST EDO ZAZPI ESERLEKU

Zazpi eserlekuko automobila den arren, azkeneko ilarako bi eserlekuk ezkutatu egin daitezke. Oso modu errazean, hiru mugimendu errazen bitartez, azpiko alderia ezkutatzen dira eserleku horiek. Bigarren ilarako eserlekuk ezkutatzeko aukera ere badago, maletategi benetan handia lortzeko.

etxeko leihotik



Eneko Azkarate > GOIENKARIAko zuzendaria

Hauteskundeak eta anaien arteko ika-mikak

Hauteskundeak begi-bistan ditugu eta kontuak argitzuz doaz: EAJ eta EA bakoitzak bere aldetik aurkeztuko dira, azken aldiz 1995ean moduan; Aralar eta EB, osteria, elkarrekin hainbat tokitan, Oñatin eta Eskoriatzan esaterako; Alderdi batzuek aurkeztu dituzte zerrendako buruak: German Muruamendiaraz, Pello Urizar, Paco Garcia...; Ezker Abertzaleak esan du hauteskundeetan egongo dela. Ez dakiguna da ze izenekin, eta ezta epaileek balio barik lagako dituzten zerrendok edo ez. Normaltasun politikotik urrun gaude oraindik.

Mankomunitateko euskara batzordeak plan bat abiarazi du Zatoz euskarara izeneko. Helburua da alderdiek euskal hiztunekin osatzea zerrendak. Batzuei asko geratzen zaie oraindik eta honetan ere, tamalez, normaltasunetik urrun gaude; lehen baino hurbilago, halere.

Eta batzar nagusietarako? Gipuzkoako EAJn ez da giro. A ze ikuskizuna!. Anaien artean hala badabiltza... Sozialistekin edo abertzaleekin gobernatu. Sakonean, horixe da eztabaidea EAJn. Buen sozialistak, badezpada, esan du: "Ez dugu akordiorik egingo bere ondarea aitortzen ez dutenekin". Ederra farola!.

"Gipuzkoako EAJn ez da giro. Anaien artean halakoekin badabiltza..."

> **GOITB** moduko telebista aztergai izan ziren atzo Mondragon Unibertsitatean. Goitik behera aldatuko da egoera Tokiko Telebista Digitalen legearekin. Euskarazko eduki gehiago izango dugu. Ona da hori.

> **Bergarako UNED** Arrizuriaga jauregira doa, Ertzaintzaren komisaria egon zen etxe dotorera; Errege Seminarioa konpondu bitartean. Udal liburutegi berria Arrizuriaga jarri nahi dute; noiz? Auskalo!

begi-bistan



Sunchaleskoen bisita (Arrasate) 2007/02/26

Argazkia: Txomin Madina.
Testua: Aintzane Irizar.

Argentinako Sunchales herriarekin senidetu da Arrasate oraingo astean. Lehen aldia da Udalak era horretako ekimena egiten duena. Argazkian, herri bietako ordezkarriak udaletxean.

Har ezazu parte:
Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

izen propioak



Haritz Larrinaga
DISEINATZAILEA



Begoña Uriarte
ESKULTOREA



Esther Uriarte
MENDIZALEA

Arrasateko Emakume Kontseiluak antolatutako Martxoaren 8ko kartel lehiaketa Haritz Larrinaga aretxabaletarra irabazi du. Kartelaren era-kargarritasuna hartu dute kontuan, modu dinamikoan emakumeak parte hartzera animatzen ditu eta. Trilakume taldeak antolatuta, Mont Blancerako egindako espedizioaren gaineko berbaldia egingo du emakume talde batek Aretxabaletako udaletxe zaharrean, martzenean. Besteak beste, Esther Uriarte aramaioarrak eta Gema Zubizarreta aretxabaletarrak parte hartuko dute.

Etxe barruan ezarri beharreko arauen eta seme-alaben diziplinaren gaineko hitzaldia anto-

latu zuen Txantxiku Ikastolak eguztenerako. Arauak eta mugak aztertu zituen Gasteiz-

kolosep Clinic-eko Elena Leal abokatuak. Besteak beste, etxeko kide guztien lankidetza azpima-

rratu zuen Lealek, Oñatin egindako hitzaldian. Bada, hark esandakoak jaso ditugu.

Elena Leal > Familia bitartekaria

"Elkarbizitzarako arauen garrantzia jabetu behar dute umeek, txikitatik"

EDU MENDIBIL > OÑATI

Txantxiku Ikastolak antolatuta, Elena Leal familia bitartekariak *Diziplina familiar: arauak eta mugak* izenburuko hitzaldia egin zuen eguztenean Oñatin. Bereziki 12 urterako ikasleen gurasoei zuzendutako hitzaldia zen, eta etxe barruko portaerazko jarraibideak aztertu zituen Lealek. Era berean, hitzaldira joandakoei etxeen praktikanjartzeko hainbat gomendio ere eman zien.

Diziplinaren garrantzia azpimarratu duzu hitzaldian.

Etxean hainbat arau markatzea ezinbestekoa da. Umeei ibilten, jaten erakusten diegun bezala, bizitzan baliagarriak izango zaizkien jokabideak transmititu behar diegu, aurrerago gizarte-an nola jokatu jakin dezaten. Eta hobea da jokabide horiek etxeen ikasten badituzte, azken baten familiako giroan sentitzen direlako maitatuagoak eta babestua-goak. Heziketa hori txikitatik hasten da, egin behar dutena eta egingo luketena bereizten ikas dezaten. Ahal dela, bereizketa hori egiten maitasunez eta ener-giaz erakutsi behar diegu.

Askotan esaten da gurasoek gero eta gutxiago agintzen dutela etxeen.

Agintzen ez dakitelako. Autoritatea traumatizatutako haurrekin eta autoritarismoarekin lotzen dute batzuek eta ez da horrela. Haurrei zera erakutsi behar diegu: zeintzuk diren auke-rarrik onenak euren adinaren edo egoeraren arabera eta zergatik egiten den aukeraketa hori: zergatik ikasi behar duten ordu jakin batzutan jolasean ibili ordez, zergatik portatu behar duten ondo anai-arrebekin borroketan egon beharrean, eta abar. Elkarbizitzarako arauen garrantzia jabetu behar dute. Eta gurasoek maitasunez exijitzen jakin behar dute. Oihuak ez dira era-gingarriak zenbaitetan. Baina gauzak energiarekin esan behar dira: bai da bai, eta ez da ez. Bestela, umeeik adarra joko digute ahal duten guztietan, berekoiak direlako eta despotak bihurtze-ko arriskua hor dagoelako. Umeeen adinaren arabera, egiten ari direna zergatik dagoen gaizki azaltzen saiatu behar dugu.

Eta muga gainditzekotan zigorra dator, ala?

Umeek egoskor, oihuka eta negarrez oker jokatzen jarrai-



Elena Leal familia bitartekariak hitzaldia egin zuen eguztenean Oñatin.

LEIRE KORTABARRIA

TRANSMISIOA

"Bizitzan baliagarriak izango zaizkien jokabideak transmititu behar diegu umeei"

tzen badute, onena izaten da lasai-tu arte itxaron eta ondoren zigor-ra ezarri. Ondo ezarritako zigorrak eragingarriak izaten dira. Esate baterako, zerbait apurtzen badute ikus dezatela aste-saristik kenduta ordaindu beharko dute-la; edo anai-arrebekin gaizki portatuz gero domekan lagunekin

AUTORITATEA SEME-ALABEKIN

"Autoritatea autoritarismoarekin lotzen dute batzuek, eta ez da horrela"

irten barik geratuko direla... Ez dugu pentsatu behar umeeak zigortzea ezinezkoa denik. Beti ere egindako faltaren araberako zigorra bada, positiboa izan dai-teke. Bidezko zigorrak ezartzen saiatu behar dugu. Eta umeeik konturatu behar dute ez dela gurasoekiko banaketa marka-

ZIGORRAK

"Ondo ezarritako zigorrak eragingarriak izaten dira, beharrezkoak dira"

tzen, baizik eta portaera konkretu baten eta gurasoek transmititu dietenaren arteko banaketa egon dela. Era berean, zenbaitean, errespetu faltak tartean izaten direnean adibidez, belarrondo bat ematea ulergarria da. Anai-arrebekiko jarrera borti-zezin mozteko lagungarria izan

daiteke baita. Umeei mugak zeintzuk diren eta zein portaera izan behar duten erakustean, etorkizunean arduratsuak izaten lagunten diegula ulertu behar dute.

Txikitian, zeintzuk dira transmititu behar dizkiegun balioak?

Zazpi eta hamabi urte artean dituztenean oso adin egokia da obedientzia, ordena, eskuzabal-tasuna edo egiazaletasuna bezalako balioak transmititzeko. Adin tarte hori ez da batere gataztsua. Aldiz, hiru urterekin, umea nia deskubritzen ari denean, gauza askoren aurrean ezezkoa ate-ratzan zaio. Nerabezaroa ere adin zailagoa da.

Etxeko arauak markatzerakoan gurasoek bakarrik dauka-te zeresana?

Ez. Bederatzi urtetik aurre-rako umeek ere parte hartzea ondo etortzen da. Etxeko funtzio-namenduan ere beraiek parte hartza garrantzitsua da. Inizia-tibak izaten badituzte, are eta hobeto. Baina familia bakoitzak ikusi behar du arauak zelan mar-katu. Importantea da gurasoak segurtasunez azaltzea eta biak guztiz ados egotea. Ez du balio esate baterako batek ezarritako zigor-ra besteak baliorik gabe uztea. Horrelako jokabideek ez dute batere laguntzen.

Zeintzuk izaten dira konflikto ohikoenak umetan, etxeen?

Umeeik ikasteko tartea har-tzea zaila izaten da. Etxeko lane-kin seme-alabei laguntza eskaintza, zalantzak argitzea positiboa da beti. Bestalde, anai-arrebekin gaizki portatzen direnak eta jateko orduan arazoak ematen dituztenak asko daude.

Teknologia berrieik ez dute etxe barruko komunikazioa hobetzen lagundi, ala?

Ez. Gauza ederra da afalosteko familia tertulia, non familiako kide guztiek eguneko kontuak konpartitzeko aukera duten. Seme-alabak hobeto eza-gutzeko aukera eskaintzen du horrek, baina bakoitzaz bere logelan sartzen bada, telebista ikustera, edo Interneten ibil-tzera... Jendea bere kabuz funtzionatzera bultzatzen gaitu horrek, isolatuago jokatzen. Internet, play-station eta horrelakoak baino askoz ere joko inter-resgarriagoak dira besteekin harremanan jartzera bultzatzen gaituztenak.



zabalik

Rufina Olasagasti

Arrasate euskalduna

Berri pozgarria da joan den zapatuan Arrasateko 50 lagun inguru bildu izana euskararen erabilera areagotzeko sortutako AED (Arrasate Euskaldun Dezagun) eta Txatxilipurdi Euskara Elkarteen jardueraz gogoeta egiteko. Datorren zapatuan bilduko dira Ekin Emakumeak Elkarteoak euren estrategi planaren ardatzak aztertzeko. Eta Topagunea Euskara Elkarteen Federazioaren laguntzarekin egiten ari dira gogoeta hauek.

Izan ere 1983an AED sortu zenetik pauso handiak eman badira ere, oraindik asko dago egiteko. Euskaraz bizi ahal izateko sortu zen AED elkartea eta Arrasaten zeuden eta dauden hainbat premie erantzuten ari dira bera eta berarengandik sortutako elkarrekin.

Komunikazio arloan, Goiena koop.elkarte da zerbitzuak ematen dituena, AEDtik sortutako ARKO (Arrasateko komunikabideak) elkarteen produktuei jarrai-pena emanez. Haur eta gaztxoen aisiaidiko arloan Txatxilipurdi elkartea ari da. Emakumearen aisiaaldi eta formazio arloan Ekin Emakumeak Elkarte. Lantegietan euskararen erabilera areagotze-ko Euskal elkarte. AED elkartek berak daramatz mintza praktika, literatura eta kultura jarduerak, besteak beste.

AED, Txatxilipurdi eta Ekin elkartetako bazkide diren andre eta gizon, gazte eta zahar, ogibide eta joera politiko askotariko 900 lagun esker eman dira pauso hauek, zuzendaritzako eta lan talde-etakide eta eragle profesionalen lanari esker batez ere.

Denbora honetan lortu denari buruz adibide bat ematearren, %14 zen euskararen erabilera 1988an eta %34 ingurukoa da orain, 4.800 pertsona gehiago. Ez da noski euskara elkarteen lanarekin bakarrik lortutako emaitza, baina begi bistakoa da euren eragina.

Datu hauek ematen digute aurreratu dugunaren erreferentzia, eta baita guztion esku dugun etorkizunerako erronkaren dimentsioa.

"AED sortu zenetik pauso asko eman badira ere, asko dago egiteko"

"%14 zen euskararen erabilera 1988an eta %34 ingurukoa da orain"

ARRASATEKO ERDIGUNEAN
EGIN DUTEN NORABIDE
ALDAKETAREN GAINeko
ZALANTZA

Arrasatear batek honako galdera egin digu herrigunean egin duten norabide aldaketaren harira: Biteri kalearen bi aldeetan dauden aparkalekuetara nondik jo behar da?

Arrasateko irakurle horrek halaxe dio: "Hotel Mondragonek sartzerik ez dago Biteriko aparkalekuetara. Gauza bera gertatzen da Maalatik edo San Andrestik etorritz gero". Hori horrela, nondik jo behar duen jakin nahi du.

Arrasateko udaltzainek azaldu dutenez, Maalako biribilgune-tik ezin da sartu; bai, aldiz, Kon-tzezinoko biribilgune-tik. "Gara-jeak dituzten herritarrak handik sar daitezke; zamalanerako ere handik sartu behar da -09:00-13:00 eta 16:00-19:00, 15 minutuz gehie-nez".

Udaltzain zerbitzutik gehitu dutenez, gauza bera gertatzen da Biteri kaleko aparkalekuetara jotzeko: "Kon-tzezinoko biribil-gunea da bidea".

ERABILITAKO PILEKIN ZER
EGIN BEHAR DA?

Horixe da irakurle batek egindigun galdera. Pila horiek batzeko ardua Debagoieneko Mankomunitatearena da, eta haraxejo dugu erantzun bila:

Erabilitako pilak botatzeko auke-ra gure ibarreko herri guztieta dagoela argitu du Mankomunitateko Ingrumen Zerbitzuko Arduradun Mikel Jaiok. Hain

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu-zu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxe: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

zuzen ere, horretarako hiru bide daudel jakinarazi du.

Batetik, Mankomunitateak erabilitako pilen bilketa egiten du herriko zenbait puntutan ipinitako edukiontzia txiki batzuen bitartez. "Zenbait dendatan, udaletxeetan, supermerkatuetan... daude halako edukiontzia".

Beste aukera bat da garbi-neeetara joatea. Ibarrean halako hiru daude: Arrasaten, Oñatin eta Bergaran. Bada, garbiguneetara jo eta hango zaindariek espli-ktuko dute nora bota pilok.

Eta azkeneko aukera da Puntu Berde Mugikorra erabiltzea. Hamabostean behin iristen da Puntu Berde Mugikor hori gure ibarreko herri guztieta.

Bota ahal diren pilei dagokiez, era guztiakoak batzen ditu Mankomunitateak: alkaloak, botoi pilak, poltsikoko telefoni-en bateriak, eta abar.

Edozelan ere, emandako azal-penen gainean xehetasun gehiago behar izanez gero, Debagoieneko Mankomunitateko teknika-adierazi du datu guztiak batzen dituen webgune bat dute-la helbide honetan, herritarren esku: www.debagoiena.com.

marrakiz

Unai Busturia

Heriotzak banandu arte.



Goienkaria

Argiratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Esteban Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailketak arduradunak** Ubane Madera (Herritik), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirrezailegi **Oinarritzko diseinua** Goi Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundihaino, Zortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Bereziar **Testuen zuzenketa** Sergi Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gainzarain, Ane Bereziar, Iratxe Bengoa

EGOIZTA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93

Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAIKEAK



Eusko
Jaurlaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala




Oñatioko
Udala



Aretxabaleta
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

batazbestean ikus genezake.
Baina zer da hau? Normaltzat
hartzen duzue?

Gaur, ez dut blogean
idazteko gogorik -nahiz eta
artikuluren bat nuen buruan,
egoera hau salatzeko ez bada.
Tamalez, ohituak gaude
langileak lanean hil direla
edota bonba auto batek Bagda-den
50 pertsona hil dituela
entzuten, lasai asko jarraitzen
dugun bitartean. Auzoan
taberna berria zabaldu dutenaren
albisteari garrantzi
handiagoa ematen diogu.
Baina, segi dezagun horrela,
sofatik altxatu gabe horrelako
albisteei muzin eginez.

Ez dakit zuei, baina nire
adinaren inguruko gazte batek
lanean, Bagdadenean edo Darfur-
ren bizitza galdu duela jakite-
ak oilo ipurdia jartzen dit. Eta
beraren ordez, ni izan banintz?

**Ta alderantziz
izan balitz?**

Jatsu Argarate
www.eibar.org

Nola aldatuko ziren
gauzak, larunbateko
manifestazioan, demo-

plazara

Aralarrek eta Ezker Batuak elkarrekin jardutea erabaki dute, "desberdintzen gaituena alde batera laga eta batzen gaituena ardatz

hartuta", Rebeka Ubera Aralarko Gipuzkoako batzarkidearen esanetan. Gehitu duenez, batzen dituen horrek helburu garbia du:

"Gizartean, eguneroko gaietan eragitea ezkerreko posizioetatik, gizarte aurrerakoagoa, soziala-goa lortzeko", hain justu ere.

Rebeka Ubera *

Entzuten dakien ezkerra

Urteak joan eta urteak etorri, euskal gizartea megagaia biratzen ari da, etengabeko zorabioan. Egune-rokotasunean herritar guzion-gan eragin zuzena duten gaiak bigarren planoan geratu dira: fiskalitatea, errepeideak, zerbitzu sozialak, etxebizitzia, inguru-mena... noizbait titularren bat, baina gure komunikabide-etañ megagaia nagusi. Beste gaiak oharkabea, inor kontu-ratu aurretik, eztabaida zabaldu gabe, erakundetan erabaki-tzen dira.

Udal eta foru hauteskunde-en atarian gaude. Erakunde-ton herritarron egunero bizi-tzan eragiten duten gaiez jardu-ten da: garraio publikoa, zahar egoitzak, eguneko egoitzak, zergak... Erakunde horietan ez da independentzia bozkatuko, baina bai gure herriaren gizarte ereduaren etorkizunaz: etorki-zun sozial eta aurrerakoia... edo guztiz bestelako etorkizun atzerakoia.

Herri independentea izate-ak ez dakar berez estatu berriak gizarte aurrerakoia eta soziala izatea. Alderdi batzuk indepen-dentistak gara, baina indepen-dentzia konpartitzeak ez du esan nahi gure herriaren gizarte ere-duan bat egiten dugunik. Inde-pendentzia lortzeak ez du esan nahi gure gizarteko arazo guz-tiak bat-batean konponduko ditugunik. Herri bat egunero, jardun xehe-xehearekin eraiki-tzen da batera edo bestera. Herri baten etorkizun politikoa ere egunero hartzen diren erabakiekin egituratzen, eraikitzen doan bezala. Bide horretan lan han-



MIKEL ARROIABE

dia dago egiteko, gizartea osa-tzen dugun eragile eta agente guztiok, aniztasunetik, erres-petutik. Zerk desberdintzen gai-tuen garbi izanda, baina baita batzen gaituena zer den jakin-da ere.

Bide horretan, gaur, Arala-rek eta Ezker Batuak elkarla-nean jardutea erabaki dugu. Desberdintzen gaituena alde batera utzi eta ardatz harturik batzen gaituena: gizartean, egune-roko gaietan eragitea ezkerreko posizioetatik, gizarte aurrerakoagoa, sozialagoa lortzea helburu. Eta legealdi honetan Gipuzkoako Bazaar Nagusietan hain zuzen horretan aritu gara. Hainbat eta hainbatetan elkar-

"Independentzia konpartitzeak ez du esan nahi gure herriaren gizarte ereduan bat egiten dugunik"

"Erantzukizun politikoak bultzatzen gaitu elkarlanerako ahalegin hau bultzatzera eta burutzera"

lanean eta beste batzutan bakoi-tza bere kontura, baina egune-roko gaietan bozkaterakoan kointzidituz. Beraz, zergatik ez elkarrekin aurkeztu hautesku-nde hauetan?

Bada garaia, gure gizartean desberdintasunak alboratzeko, eta berdintasunetan oinarrizteko. Aniztasunarena da etorkizuna eta aniztasunaren irudirik eta eredurik sakonena zeharka-kotasuna bilatzea da. Erantzukizun politikoak bultzatzen gaitu elkarlanerako ahalegin hau bultzatzera eta burutzera. Ez genuen saio hau inoren aurka hasi eta ez dugu inoren eta eze-ren aurka burutuko.

Herri honek behar duen ezker erabakigarria izan nahi dugu. Egunero bizi moduan eragingo duena; hitzarmenak eta paktuak egiteko gaitasuna duen ezkerra, ingurumena babesteko indarra duen ezkerra, eskola, osasuna eta zerbitzu publikoen duintasuna zaindu-ko duen ezkerra. Entzuten dakiena. Arerioak astintzen bai-no eztabaidan irabazten dakie-na. Ustelkeria ororen aurrean gardentasunean oinarritutako ezkerra.

Elkarlaneko bidea ez da bate-re erraza. Gure artean ere, Ara-larren, baditugu ikuspuntu eta jarrera desberdinak eta denak dira errespetagarriak. Baina desberdintasunak desberdinta-sun gure aberritzat aitortzen dugun Euskal Herriak eskertu-ko du ahalegin hau.

*Rebeka Ubera, Aralarko Gipuzkoako Bazaar Nagusietako bozeramailea

zer deritzozu?

www.goiena.net

Ondo hartzen ditugu gurean etorkinak?

BAI	%33,3
EZ	%66,6

> PREJUIZIOAK

Uste dut prejuicioak ditugula eta kasu larri egiten diegula. Zerbaitegatik utzik zuten maite duten dena eta hona etorri. Dena dela, hemen laguntzea ondo dago baina instituzio-ek zergatik ez dute gehiago egiten euren lurradeak garatzeko eta laguntza han emateko?

Aitor

> EZ DAKIT, BA

Gehienok etorkinak gurean hartzeko arazorik ez dugula diogu, baina gauzak bestela direla esango nuke. Orain-dik ere aurreiritzi asko dugu, bestela zergatik ez dugu nahi gure atarian etorkinik? zergatik nahiago dugu etxeko lanetarako hemengo pertsona bat kontratatzea? zergatik gure seme-alabak hemengo batekin ezkontzea?... Aina

> BAIETZ ESANGO NUKE

Gehienok ondo hartzen ditugula uste dut. Nik, behintzat, bai.

Miren

DATORREN ASTEKOAK: Nahikoa zaintzen dugu seme-alaben elikadura?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzen interesgarrienak.

koplak

Egoitz Aizpuru

Otsailak 24, larunbata, Bilbo

Oñatin, Deban, Durangon, jende mordoa edonon joan gabe ere porrazo on bat jaso genuenak Bilbon.

Militarki, efektibo azkar eta primitibo zuen "beste gu" bere lanean ikusi nuen berriro.

"Ilegal ez!! Alajaina!" Mugitu lasai mingaina, zuen eskuak beste kontu bat adierazi zidan baina.

Nahiz ta batzuen zirriztu ta zuloak argiz piztu. Nik sinistu nahi zaituztet baina ezin zaituztet sinistu.

Gure ilegal kondena, omen zen denon problema. Ta orain egurra ematen duzu gezurra al zen beste dena?

Behin esan zidan amonak, beti aholku sakonak, Jaurlaritza ta duintasuna ez direla lagun onak.

Borra bertsuak

Pello Urzelai

www.berria.info/blogak/pello

Memoria bizirik izatea ezinbestekoa da geroari begiratzeko eta duintasuna zaintzeko. Bizirik gordetzeko orduan, garrantzitsua da irudien laguntha. Denborak memoria ahultzen du, irudiak freskatzen du. Hala, eskertzeko da Lluis Danesen filma Llachen ibilbidea-ri buruz eta martxoaren 3ko gertaerei buruz. 31 urte betetzen dira aurten, Gasteizen langileen kontra Espaniako Poliziak egindako sarraskiaz.

kratak manifestatu izan balira, eta dozena bat enkaputxatuk harriak jaurti izan balie, eta modu baketsuan zeuden 20 bat manifestarik ospitalean bukatu izan balute, konparazio bat egitearen, Joseba Egibar. Medio guzti-ten portada ziurrenez. Herri hotonetan badirudi herritar batzuk egurra jasotzea merezi dutela, eta beste batzuk ez.

Larunbatekoia indarkeria bortitzia izan zen, eta nahikoa da, beti betikoei kulta botatze hori, "hemen indarkeria erabiltzen duten bakarrak ETA eta kale borroka dira eta desagertu egin behar da". Ja!

Gero esango dute, "eske manifestazio baketsu hori ilegal zen", oso ondo, baina gero ez dezatela adierazpen askatasuna defendatzetan dutela esan.

Eta honi bueltak ematen hasten naiz pentsatzen, nola larunbatekoari babesia ematen dioten horiek, nola duten demokrazia, konponbidea, adierazpen askatasuna, bakea eta halako hitzakin ahoa betetzeko aurpegi galanta.

Zoritzarrez ez dugu luzaroan bakerik edukiko, bozkatzen dutenen gehiengoa-ren ordezkariek horrela nahi ez dutelako, besteak beste.

Arrasate eta jasangarritasuna

Joseba Ugalde Mendieta
(EB-Berdeak taldeko zinegotzia)
Arrasate

Urtarrilaren 29ko Udaleko osoko bilkuran jorratu zen Arrasate Iraunkorren gaineko plana, herriko indar politiko eta bestelako erakunde eta taldeek landutako proposamen. Batzar horretan, Ezker Batuak-Berdeak taldeak abstentzioaren alde egin zuen. Jarraian aipatzen ditugu erabaki horren arrazoia.

Uste dugu hitzartu diren dokumentuak oinarri izan daitezkeela jasangarritasunaren gaineko kontuetan lanean has gaitzen. Baino, bestalde, era berean uste dugu gure bota omozioaren aldekoia izango balitz, horrek ulertaraziko zukeela Udal honen, eta bereziki, alkatetzaren asmoa dela plan hau garatzea ondorio guztiek; errealtitatea, ordea, guztiz kontrako da.

Tokiko Agenda 21 eta Arrasate Jasangarria prozesuen gakoetako bat da herriaren parte-hartza. Hala jasotzen da honen moduko prozesuak aztertzen dituzten txosten guztietan. Arrasateko Udaleko osoko bilkurara eroan zen dokumentuak ere horixe nabarmenzen du. Hala, hainbat pasartetan, era honetako aspektuak jasotzen dira: "Prozesu parte-hartzaile bat garatu, zeina urtetik urtera handituz, Udal aurrekontuak osatuko diren"; "Udalean herritarren parte-hartza bultzatu, alderdien ohiko parte-hartzeaz aparte"; "Udalariaren etorkizunaren gaineko erabakiak hartu aurretik hausnarketa prozesuan, herritarren iritziak aintzat hartu".

Dokumentuan esaten da herritarren parte-hartzaezinbesteko dela (bigarren mailako palanka erregulatzalea izeneko faktorean sartzen da). Izan ere, faktore hau erabakigarria da Arrasatek arrakasta izan dezan jasangarritasunerako bidean.

Hala ulertzen du Ezker Batuak-Berdeak taldeak. Helburu hori lortzeko, gure taldeak aurkezu zuen herriaren parte hartzera planeari bat, Udaleko Arautegi Organikoaren barruan zegoena, plan horrek legearen bermea izan zean.

20 ordu baino gehiagoren ostean, Udaleko talde ezberdinak -osoko bilkuran hamar bota egiten dituztenak hain justu ere- hasierako akordio batera iritsi ginen, adostasunean eta elkarritzetan oinarrituta. Garapen Jasangarria izenaren bere baitako oinarritz-

Garibai kalea

Iñaki Zabala (Garibai kaleko bizilaguna) > Arrasate

Arrasateko Mugikortasun Plana diseinatuta dago denbora batean hiri barruko mugikortasun eredu berria ezarri eta kudeatzeko. Arrasaten, plan horrek hiru ditu eta aurrez ikusten du abian jartzea hainbat neurri, modu mailakatu. Ekintza-plan horien artean dago: garraio publikoaren hobekuntza tranbiari egokituz, horretarako zazpi urteko epea aurrez ikusiz, betiere egitasmoa bere osotasunean onartuko balitz.

Asmo horiek aintzat hartuta, ez da koherentea une honetan Garibai kalea automobil partikularrendako ixtea eta ez dago justifikaziorik hori egiteko. Are gehiago, kale hori denean Arrasateko kalerik zabalena eta hiri-arteria nagusia, eta ez daudenean amaituta kanpotik herrira sartu eta irteteko gainerako azpiegiturak: saihestidea, autobidea, tranbia...

Garibai kalea ixtarekin batera planteatu diren alternatibak zirkulazioaren arazoa larriagotu egin dute; izan ere, berez auzoetarako sarbideak ziren kale estuak bihurtu dira zirkulazio bide.

Gure kezka areagotu egin da Udalera jo eta esan diguteen aurten desagertuko direla Garibai 16ko 24 etxebizitzaiko auzoaren atzealdeko hainbat hiri elementu: arboladía, espaloia, atseden guneak..., trafikoa bi noranzkotan bideratzeko asmoz (herrirako sarrera-irteera).

Alkateak eta bere zinegotziak batzuek erantzun beharko dute zergatik jartzten dituzten indarrean hain azkar horrelako neurriak, berez tranbiaren eta gainerako azpiegituren amaierarekin batera abiatzeakoak direnean.

ko printzipioan oinarrituta. Baino, une horretan, alkateak eta bere udal taldeak parte hartzutzen erabaki horren aurka azaltzeko eta adostasunean oinarritutako proposamen hori bertan behera uzteko, azkenean lortu arte.

Hortaz, faktore erabakigarri horretan -Jasangarritasunaren Foroan ere hala ulertua-, alkateak osoko bilkuran hartzuen onartu behar zenaren aurkako erabakia.

Baina kontua ez zen hor amaitu. Dokumentuan erabakigarriak diren beste aspektu batzuetan ere jokaera berdina izan zuen alkateak, hala nola: "Hirigintza kudeaketaren instrumentuetan, jasangarritasuneko ebaluazio-irizpideak erantsi"; "Udalariaren abian jartzekoak diren egitasmo guztietan, epe luzera eta hurrengo belaunaldietan izango lituzkeen efektuen gaineko azterketa-txostenak erantsi".

Bada, bi faktore erabakigarri hauetan, errealtitatea eta benetan egiten dena ez dato bat. Ezin dezakegu bestelakorik esan, proposatzen denean Ikutixoko naturagunean 142.000 metro koadroko isurtegi bat egitea, eta aurrez ikusten direnean 66.000 metro koadro eraikitzea, 40 metroko altuera. Eta erabaki hori hartzutik, ez zaionean eskatzen txostenik Garapen Estrategiko Departamentuari inbertitu nahi den leku fisikoaren gainean, Ekintza-Plana garatzen duen Jasangarritasun Foroa konbokatu barik... Edo,

Olandixoko tunelaren gainean Diputazioak egindako Ingurune-Inpaktu txostena aintzat hartzutu barik, aipatutako tunela egiteko kenduko diren lurruk, Muxibar Gaineakoa baserri ondoko isurtegira eroatean proposatzen denean...

Lerro hauetan aipatutako errealtitate hauen gainean, Arrasateko Jasangarritasun Planaren eta honen ekintza planen alde bozkatzea izango litzateke hiritarrak sinistaraztea apustua benetako eta sinesgarria dela, baina hori ez du Ezker Batuak-Berdeak taldeak egingo, edozein haserren dela ere.

Arrazoi hauengatik abstentu ginen osoko bilkuran.

Elkarren artean lortuko dugu!

Amaia Agirre
(Etxeraten izenean)
Arrasate

Pasa den larunbatean Bilbora gerturatzen ginen gure senideek otsail osoan zehar burutu duten borrokaldiari elkartasuna eta babesea adierazteria.

Ez du etenik espiniar eta frantziar estatuek helburu politikoak lortu asmoz gure eta gure senideen aurka duten biolentziak. Kondenak beteak nahiz gaixotasun larriak dituztenak ez askatzeak eta 600 gizon-emakumez osatutako kolektiboa bizi baldintzarik gogorrenetan mantentzeak

ondorio ezin larriagoak eragiten ditu. Hil ala biziko egoeran den Iñaki de Juanaren argazkiak argi eta garbi erakusten digun bezala. Estatuen biolentzia mugarik gabekoa dela erakusten digu eta era berean, gure senideen tinkotasuna erakusten digu argazki berak. Baldintzarik gogorrenetan izanik ere, plantoak, itxialdiak, komunikazio greba eta baraualdia burutu dituzte igaro diren asteetan. Horrenbeste urtetan horrenbeste sufrimendu ekarri duen gatazka politikoaren konponbidea, autodeterminazioa eta amnistia exijitzu.

Beraien aldarria gure eginez eta lau haizetara zabaldu asmoz, Bilboko kaleak hartzutu genituen milaka pertsonak.

Heldu orduko, ordea, ertzainez gainezka zeuden kaleak. Ahal genuen moduan manifestazioa burutzeari ekin genion, baina gure adierazpen askatasuna bortxatu eta egundoko sarraskia egin zuen PNVren poliziak. Horren ondorioz, hamarnaka zauritu egon ziren; beraien artean, Maria Murgoitio 81 urteko arrasatearra aurkitzen da. Aste honetan 22 urte espetxeen betetzen dituen

Gabriel Uriarz *Gautxori* semeareen eskubideak aldarrikatzen joan zen Bilbora eta pelbisa bi lekutatik hautsita amaitu du Basurtoko ospitalean. Maria ere probokatzen joan al zen? Nori egotzi behar diogu horren ardura?

Egoera ezin larriago honek gure konpromisoak biderkatzen biltzatzu behar gaitu. Horren harira, Arrasateko Udalari bere konpromisoak hartzeko exijitzen diogu eta Maria Arrasateko herritarra den aldetik, udaletxearen adierazpenen baten esperoan geratzen gara, ezin baita entzungor egin horrelako gertakarien aurrean.

Horrelako jarrerek ez gaituzte kikilduko eta hemen-dik aurrera ere, gure exijentziekin kaleak betetzen jarraituko dugu. Asteartero Seberon enkarteladak egin eta ostiralo herriko plazan elkarretaratzeak burutuz.

Eskoriatzako udalbatzari

Pedro Lasagabaster
(Onbide.org-en izenean)
Eskoriatza

Ez zait gustatzen egiaik zarataka eta modu txarrean uluka aurpegiratzea. Baino gaurkoan, nire barrua husteko besterik ez bada ere, hola egitea tokatzen zait nahi eta nahi ez. Tori, bida, Eskoriatzako Udaleko agintariei; Juan Carlos Bengoa alkate jauna eta zure EA, EAJ eta EBko mahaikideei ondo

merezitako purrustada galanta! Izan ere, joan den otsailaren 22an plenora inguratu ginen herritar eta auzokide arduratu batzuk, autopistako lanek luzaroan sortzen ari diren kalte eta arriskuen gainean kontuak eskatzen. Orain urte eta erdi konponduko zenituztela agindutako kalte eta arrisku berberen gaineko kontuak eskatzen, besterik ez.

Esan genizuen, besteak beste, Zarimuztarrok delitu ekologikoa egin zela, babestutako errekan baimendu gabeko lanak egin zirelako. Zuek hori bazenekiten, noski! Eskatu genizuen berri zela, publikoki, mesedez guztia salatzeko. Baino, bai zera! Horretarako pertsona kabala behar da izan gero! Edo eta bi hilabete barru Diputazioan lagun berrien ondoan lanean hasteko asmotan zabilta akaso?

Esan genizuen, baita ere, auzoetako bideetatik ezin garela ibili kamioitzarrek lokatza artean raliak egiten dituztelako. Edo eta Antontxu inguruko urak behar bezala jaso gabe jarraitzen dutela. Eta tori, zuek haginiakoa berriro! Zure etxe ondotik ere auto mordoa abiada bizian pasatzen delako inor ez dela kexatua erantzunda, bapo geratu zinen, alkate jauna! On egin dagizula, motel! Hori bai boako irabazteko postura zabala!

Herritarren segurtasunaz arduratu eta zuen betebeharra delako, Diputazioaren aurrean aurpegia emateko eskatu genizuen berriro. Zuen aldetik, ordea, zurikeria, lotsagabeko eskusa, arduragabekeria eta mespresua kiloka, besterik ez genuen erantzuntzat jaso! Egia esan ikusitakoak ikusita, ez nintzen batere harritu. Zergatik ote!

Bibliotekako langileei eskerrak

Maria Pilar Gonzalez
Arrasate

Kultura etxe berria zabaldutela-eta, bibliotekako langileei eskertu gura diet erabiltzaileekin duten arreta, begikotasuna eta egiten duten ahalegina. Eurek ahalbidetzen dute erabiltzaileok liburu onenetara gerturatzea.

Horrez gain, Kulturako Sailak eta Bibliotekak azkeneko urteotan eskaintzen digun opari onenetakoak dira Literatur Solasaldiak. Solasaldi horiek gero eta irakurketa zale gehiago erakartzen dituzte. Letren txoko honetatik eskertu gura dizkiet hilero halako opari ederra egiten digitenei.



www.arizmendi.ikastola.net

ikasten gozatu eta hazi



“Haur sortzaile, gazte ekintzaile”


MATRIKULA EPEA ZABALIK OTSAILAREN 26tik MARTXOAREN 9ra

902 11 20 25
informa zaitez

Zatoz ikastolara Come to the school Vem à Escola 欢迎光临学校 Ven a la ikastola تعال إلى المدرسة

A
Arizmendi
ikastola

Debagoieneko GREMIOAK



AROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leioak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzailak, sukaldak
 - K-21
- Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

BIDABURU AROZTEGIA

Oñati

- Era guztietako berrikuntza lanak, leioak, neurri guztietako atariak, zoruak, eta abar.
- Zubillaga 20
T: 943 78 35 00 / 627 48 58 13
bidaburu.h@euskalnet.net

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta

- Telebista, audio eta bideoa
 - Salmenta eta konponketa
 - Instalazio elektrikoak
 - Atezain automatikoak
 - Antena kolektiboak
- Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate

- Instalazio elektrikoak
 - Antena kolektiboak
- Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

ARETXARGI

Aretxabaleta

- Instalazio elektrikoak
- Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

BELLIDO ELEKTRIZITATEA

Oñati

- Erreformak orokorrean
 - Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
- Kale zaharra 60 - 3 erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

RELE

Eskoriatza

- Instalazio elektrikoak
- Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza

- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
 - Kontratak
 - Enpresen mantentze-lanak
- Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

IGELTSEROAK

DE LA TORRE IGELTSEROTZA

Eskoriatza

- Barruko lanetan espezialitatea
 - Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
- Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

G. IZCUE IRURZUN

Arrasate

- Igeltserotza orokorra
 - Etxeen berrikuntza
 - Sukaldeak, komunak...
- Munar 6
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

ITURGINTZA

ARETXABAleta ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Sukalderako eta bainugelarako altzariak
- Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

- Gipuzkoa etorbidea 39, behea
- T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA

Arrasate

- Iturgintza
 - Berogailua eta gasa
 - Bainugelak
- Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

J.J. IRURE ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Ura
 - Gasa
 - Kalefakzioa
- Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
 - Berogailuak eta petrolio-produktuak
 - Klimatizazioa
- Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

TXORROTA

Arrasate

- Berogailua eta gasa
 - Galdarak aldatzea
 - Obra integralak
 - Zaharberritzeak
- Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiek
 - Berokuntza eta gasa
 - Aire girotua eta haizeztatzea
- Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Hargintza lanak
 - Bainugelako altzariak
 - Berogailuak
 - Erretenak ipini eta garbitzea
- Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

LEIHOAK

ARGI-PLASTIC

Arrasate

- PVC leihoak
 - Aluminio termikoko leihoak
 - Poliuretanozko leihoak
- Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK

Arrasate

- Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
- Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

LEIHATEK

Arrasate

- Leiho eta ate isolatzialeak
 - Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
 - Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
 - Horma apaingarriak barrualderako eta imitzazioak harri eta marmolean.
- Okendo 1 - behea
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorenzaintza
 - Ureztatzeko sistemak
 - Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
- Basabe poligonoa D-2-1
T: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorean
 - Pareztatzeak
 - Errutulazioa
- Maitena 3-1.
T: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35
Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> ARRASATE
2007an hasi eta bi urtean bukatuko dituzte Iturbideko obrak >**18**



> BERGARA
Kezka sortu du osokoan udal plangintzako batzordeak >**24**



> ESKORIATZA
laz jaiotako 36 umeen izenekin zuhaitz bana landatuko dute >**34**



> GATZAGA
Emakumeen Eguna Arabako Elosuko emakumeekin ospatuko dute >**39**

ELKARTASUNA > SAHARA ETA DEBAGOIENA

Aurtengo udan ere Saharako umeak etxearen hartzeko kanpaina abiaraziko dute

Saharako 7 eta 12 urte bitarteko 27 umeak Debagoienean pasa zuten iazko uda, eta aurten beste horrenbeste ume, behintzat, ekarri gura dituzte elkarteeek

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Saharako umeak udan etxeetan hartzeko kanpaina abiarazikdu datorren astean Arrasateko Nubi elkartea. Arrasate, Oñati eta Eskoriatzako udalekin harremantzen jarri da umeak Debagoienea ekartzeko dirulaguntzak esatzeko; Eskoriatzako Udalak, gaur, egubakoitza, erantzungo dio eta beste biek baiezkoa eman diote dagoeneko. Bergarako Bubisher elkarteari ere laguntza emango diola esan dio Bergarako Udalak; Antzuolakoak bi ume ekartzeko laguntza emango dio eta Elgetakoak, ume bat ekartzeko. Aretxabaletako Iesbaa elkartea, berriz, eskaria du bi ume ekartzeko. Eta Aramaioko Udalak ere lagunduko du umeak ekartzen. 7 eta 12 urte bitarteko 27 ume etorri ziren iaz gurera, eta aurten ere beste horrenbeste ekarri gura dituzte.



UMEAK San Martzialen ateraz zuten argazkia, iazko udako azken asteburuan, Bergarara eta Antzuolara etorri ziren ume sahararrak.

GOIENKARIA

PRODUKTUEN KARABANA

Aurten, 400 tona produktu bidaли dituzte Euskal Herritik Saharara, iaz baino bi aldiz gehiago. 29 trailer bete dituzte, horietako

bat gure ibarrean. "Ikagarria da Sahararekin dugun elkartasuna eta eskertzeko da herritaren laguntza, baina, tamalez, Saharako gaia ez da oso interesgarria


munduarendako. Martitzenean, otsailaren 27an, bete da Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren 31. urteurrena, eta zenbat komunikabidek jaso dute

albiste hori?", galdeztzen du Nubi elkarteko Agurne Juldaineik. Hala ere, ibarreko elkarteeek esker beroenak ematen dizkiete lagundi duten debagoendarrei.

31 urteren ostean, gauzak ez dira hobetu Tindoufeko kanpalekuetan

Nubiko Agurne Juldain abenduan egon da Saharan azkenekoz eta herria gero eta okerrago ikusten duela dio: "31 urte pasa dira Saharan Errepublika Arabiar Demokratikoak sortu zenetik, baina gauzak ez dira batere hobetu. Nazioarteko laguntza erdira jaitsi da. Gainera, iazko uholdeek lur jota zuten herria, psikologikoki oso motel daude. Jateko ere ez dute ezer eta jaioberriak hiltzen ari dira amek ez dutelako esnerik".

Juldainek kontatu digun moduan, 200.000 saharar inguru bizi dira Tindoufeko lau kanpaleku nagusietan. Horiez gain, beste hiru kanpaleku daude. "Otsailak 27 deitzen dena emakumeen formaziorako sortu dute eta Urriak 12 izena duenean, berriz, ikasleendako ikastetxeak daude. Gehienak barnetegiak dira eta eguen arratsaldea eta egubakoitza izaten dute jai ikasleek. Hirugarrenean instituzioak daude", kontatu digu Nubiko kideak. Juldainek, gainera, argi dauka presio politikoa egin behar dela Saharan arazoa konpontzeko: "Gatazka politikoa da eta aldarrikatu behar da hori politikoki konpondu behar dela. Saharak askea izan behar du noizbait", dio Agurne Juldain arrasatearrak.



Tindoufeko kanpalekuetan ateratako argazkia.

NUBI

kale inuesta

Berdintasunaren bidean zertan egiten dugu kale?



Irune Ugalde
Langilea
Aramaio



Begoña Arriaran
Langilea
Aramaio



Oskar Arrizabalaga
Langilea
Aramaio



Paki Gil
Langilea
Aramaio



Izaskun Ormaetxea
Langilea
Aramaio

Ohitu gara etxearen ikusi duguna egitera. Ez dut kexarik nire bikotekidearekin. Ahal duenean egiten du eta bere partetik ipintzen du. Baino konturatzaten naiz neuk gauza gehiago egiten ditudala.

Gauza asko daude oraindik aldatzeko. Berdintasuna ez dagoela guztiz lortuta uste dut. Nahiz eta kanpoan lan egin eta laguntza izan, etxeko hor dago, eta emakumeak egiten du lan handien.

Etxeko kontuetan gero eta berdintasun handia goa dago, baina oraindik asko falta da. Gaur egun egoerak hobera egin du. Badoaz lanean sartzen, baina oraindik ez daude gizonak beste langile.

Etxetik kanpo lan egin arren, etxea eta seme-alabak gure ardura izango balira onartzen dugu. Neurri batean gure erruada, baina ez dugu kalerik egin. Uste dut gure hezkuntzaren ondorioa dela.

Hezkuntza kontua da, baina ez oraingoa, antzinatik dator. Oraindik dugu barruan sartuta. Hori kendu arte ez da posible izango berdintasuna. Eta hori kentzoko borrokatu egin behar dugu asko.

txaloak eta txistuak



GOIENKARIA

Auto bat botata Garagartzako errekatxoan

Arrasateko Garagartzako auzokide batek kezka azaldu du, Kobateko harrobitik gora auto bat bota dutelako errekatxora. Autoak inguruaren asteak daramatzala eta duela egun batzuk errekan agertu zela jakinarazten du. Dagokionari berehala kentzoko eskatzen dio.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

70

Urkulu urtegiak dezente berreskuratu du ur-kopurua azkenaldiko euriei esker. Orain, urtegiaren %70a beteta dago. Konparazioa eginet gero, urtarrilaren 15ean zegoen beteta %53a. Hilabete eta erdian igo da 17 puntu, beraz.

Irizpidea ezartzeko arrazoia izan da diru-sarrera gutxien zuten familiaik baztertu xamar geratzen zirela lehen. Baino iruditzen zait diru asko irabazten duten familieie begira egon direla, eta ez benetan beharrean daudenei.

5 galdera...

Imanol Biaín

Oñati Natura Eskolako irakaslea

1. Zuhaitzen inguruan kezka dago aspalditik gurean. Adibide gisa Zuhaitz Eguna aipa daiteke. Sentsibilizatuta dago ibarra?

Bai. Natura Eskolan ikasleei zuzendutako Zuhaitz Eguna egiten dugu hamabi bat urtetik, pentsatzen dugulako sentsibilizazioa txikitik landu behar dela. Eta ekimen horiek arrakastatsuak dira, jendea etortzen da. Kezka bat dago, zuhaitzak beharrezkoak dira eta landatu egin behar dira, nahi badugu gerora ere edukitzea.

2. Ahalegin berezia egiten da bertako zuhaitzak landatzen...

Beti autoktonoak landatzen ditugu. Behar handiena bertako zuhaitzak dutelakoan gaude. Kanpoko espezieak, bestela ere, askotxo daude, pinu landaketa edo parkeetan zuhaitz exotikoak direla.

3. Zer zuhaitz mota aukeratzen dituzue Oñati Natura Eskolan?


Aurten, adibidez, gaztainondoak, gereziondoak eta intxaurrondoak landatu ditugu. Baino beste urte batuetan, leku eta parajearen arabera, haritzak, lizarra eta elorri zuriak landatu izan ditugu. Kontuan hartu behar da herri lurretan egiten dugula hau, aurretik baimena eskatuta.

4. Zergatik da horren garrantzitsua bertakoak landatzea?

Egoera honetara, klima eta lurzoruei ondo egokitzen direla. Era berean, sortzen dituzten elikagaiak oso importanteak direlako animalia eta ekosistemanrentzako.

5. 106 zuhaitz daudela euskal herritar bakoitzeko esan da. Zer diozu?

Oñati mailan, kontuan izanda Gipuzkoako herri handiena dela, populazioa txikia eta zuhaitz eremuak handiak direla, ziurrenik kopuru hori handitu egingo da. Egon daitezke 200 edo 250. Debagoienean ere, handiagoa izan daitekeela uste dut. Hala ere, importanteena ez da kopurua, zer zuhaitz motak diren baizik.



3.170.742,35 euroko aurrekontua zehaztu dute Iturbide berritzeko

Oro har, legeak esaten duenari egokitzeko obrak egingo dituzte

Obren ostean, sarrera nagusia Garibaitik izango du egoitzak

UBANE MADERA > ARRASATE
Legeak agintzen duenari egokitzeko obrak egin behar dituzte Iturbide egoitzan. Hain zuzen ere, horren gaineko proiektua onartu du oraingo astean osokoak. Iturbide egoitzaz zabaldutzenetik (1984) eraikin horretan egingo dituztena obra handienak izango dira. 3.170.742,35 euroko aurrekontua zehaztu dute eta 24 hilabete lanak bukatzen.

BEHEKO ETA LEHEN SOLAIRUAK
Egin beharreko lanak solairuz solairu aztertuz gero, eraikinan aldaketa ugari egitera doaz.

Hasteko, egoitzaren beheko solairuak hartuko du gaur egun Abaroa okupatzen duen espazio osoa. Hain zuzen ere, Iturbiderako sarrera nagusia izango da Abaroara sartzeko erabiltzen dutena. Oraingoa, berriz, Zerkaosteta kalekoak, itxi egingo dute.

Beheko solairu horretan egingo dituzte lan handienak. Hala, sarrera berritik sartu eta han ipiniko dituzte, besteak beste, langileendako bulegoak, fisioterapia gela, orotarikoa eta artxiboa. Era berean, espazio bat gordetzea dute etorkizuneari Udaleko Gizarte Saileko langileak hara joan daitezzen.

Lehenengo solairura bagoaz, berriz, orain sarrera nagusia dagoen gune hura egokituta eta logela gehiago egingo dituzte (sei). Eta gaur egun han dagoen jangela kokatuko dute gainera-ko solairuetako jangelen parean. Hori horrela, jangela guztia elkarrekin konektatuta egoteko karga-jasogailu bat ipiniko dute.

BIGARRENEAN, ERIZAINZTA
Bestalde, bigarren solairuko botikin zerbitzua indartzeko asmoa dute: "Bikoiztu edo hirukoiztu

NAGUSIAK > ITURBIDE EGOITZA

Aurten hasi eta bi urte iraungo dute egoitzako lanek



TRESNA BERRIAK Langileek ere igarriko dute hobekuntza; besteak beste, etxetresna elektriko berriak ipiniko dituzte. U.M.

DATUA

104
EGOILARI

Obrak egin ostean, Iturbide egoitzan 104 lagunendako leku izango dute. Eta, legeak zehazten duenari jarraituz, egoiliar horiek guztiak izango dira besteekiko mendekotasuna dutenak.

Lanak faseka egingo dituztela ere jakinarazi du, "laugarren solairukin hasita". Eta obrek iraun bitartean, egoiliarrek Iturbiden

segituko dutela: "Egoitzak dauka solairu bakoitzean hegal edo alde bi. Bada, obrak hegal baten egiten dituzten bitartean, han bizi diren egoiliarrik beste hegalera era-mango ditugu; eta alderantziz. Bestalde, obra hasi baino hilabete bi lehenago ez dugu onartuko egoiliar berririk. Obra aurrera doan neurrian ikusi beharko dugu zein aukera dagoen berriak hartzeko".

FINANTZAZIOA ARAZO

Lanon kostuaren %72 Diputazioak ordainduko du; gainerakoa Udalak. Baina hori lortzea nahi-kotxo kosta zaio Udalari: "Udalak aspaldi gura zuen obra egin, baina kosta egin zaigu adostea Diputazioarekin obra zelan finantzatu".

EMAKUMEAK

Martxoaren 8a dela-eta, hil osorako ekitaldiak

'Zu ere beharrezko zara' leloa aukeratu dute Emakumeen Egunerako

GOIENKARIA > ARRASATE
Atzo (martxoak 1) hasi ziren aurtengo Emakumeen Nazio-arteko Eguna aldarrikatzeko ekitaldiak, Arrasateko Emakume Kontseiluak antolatu dituenak. Zinema, antzerkia, hitzaldia, dantza... Era guztietako saioak izango ditugu gurean datozen egunotan.

EMAKUMEZKOEN FILMAK

Hala, atzotik martxoaren 29ra arte, egunero Emakume zuzendarriak, emakume protagonistak izenarekin II. zinema zikloa egingo dute, 20:30ean, Amaia Udal Antzokian.

Bestalde, datorren astelehenetik egubakoitzera hezkidetzaren gaineko erakusketa izango da, Kulturanet, 17:00etatik 20:00etara. Datorren martitzenean, berriz, martxoaren 6an, EAEko Berdintasun Legea izenarekin mahai-ingurua egingo dute osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

MARTXOAREN 8AN, PROTESTA

Martxoaren 8ari berari dago-kionez, manifestazioa egingo dute Arrasateko kaleetan. *Zu ere beharrezko zara!* da era-biliko duten leloa. Hitzordua da 19:00etan Seberren.

Martxoaren 8an segitzuz, egun horretatik martxoaren 22ra arte Emakume Txokoak Emakumeen Egunarekin lotuta antolatutako kartel lehiaketako lanekin erakusketa egingo dute, 16:00etatik 19:00etara. Horren harira, Aritz Larrinaga aretxabaletarrak irabazi du aurtengoa.

Bukatzeko, martxoaren 10erako iragarri dute emakume baserritar eta artisauen azoka eta 18an, *Mujeres en sus camas* antzezlana izango da.

Arrasate
INSTITUTUA

**Gure eskola,
guztiona,
guztontzat**

**2007-2008 IKASTURTERAKO
DBH Matrikulazioa:**
Otsailaren 26tik martxoaren 9ra

Informazio-batzarra eta ate irekiak:
Aramaion, martxoaren 5ean, 18:00etan eta
Arrasaten, martxoaren 6an, 18:00etan,
Musakolako eraikinean

Idazkaritzako ordutegia: 9:00 -17:00
Telefonoak: 943 79 44 47 - 943 79 20 38
www.goieskola.net/arrasateinstitutua
iarrasate@euskalnet.net





AURKEZPENA Pello Urizar (behean erdian) aurkezpenean, Larreinak (eskuman) eta Larrañagak (goian) lagunduta. U.M.

OSOKOA > OTSAILARI DAGOKION OHIKO BILKURA

Babestutako etxeen zozketetan izen gehiago onartuko dituzte

Etxebideko zerrendan daudenei gutuna bidaliko diente; baina posible izango da, baita ere, izena ematea, baldintza jakinekin

U.M. > ARRASATE
Udalbatzarrak asteleheneko osoko bilkuran onetsi zuen Udalak babestutako etxebizitzak zozkettako arauak. Hain zuzen ere, erabaki zuen Gelman eraikitzentzat 131 etxebizitzaren eta Uribarriko 44 etxebizitzaren zozketa Udalaren bidez egitea, eta ez Etxebideren bidez. Ezker Batuak emendakina aurkeztu zion pun-

tuari, baina ez zuten onartu. Puntu berria, berriz, onartu zuten EAJ, EA eta PSE-EEren aldeko botoekin. EBk kontra bozkatu zuen eta abstentu egin ziren PP, Aralar eta Talde Mistoa.

GARDENTASUN FALTA
EBren izenean Ander Rodriguez zinegotziak salatu zuen "prozesu horrek kaosa ekarriko" duela. Etxebideko zerrenda bakarra defendatu zuen, esanez hark berme guztiak dituela. EBren ustez, Udalak zozketa eta prozesu guzia bere gain hartzeak iluntasuna ekarriko luke.

Inazio Lakuntza alkateak, berriz, adierazi zuen ez duela uste gardentasun falta izango denik. Kontuan hartuta udal bat, kasu honetan, Jaurlaritza edo

Etxebide baino gertukoagoa dela, horrek gardentasuna gehiago bermatzen duela uste du.

IZEN BERRIAK ARRETA ZERBITZUAN
Horrez gainera, alkateak argitu zuen Udalak Etxebideko zerrenda izango duela oinarri. Eta zera egingo dutela: lehenengo konfirmatu Etxebideko zerrendan dauden pertsona guztiak oraindik ere badutela babestutako etxebizitza bat eskuratzeko interesa. Gutun zertifikatuak bidaliko dizkiete, haiak jakinaren gainean daudela ziurtatzeko. Horrez gainera, alkateak jakinarazi zuen arrasatear gehiagok ere eman ahal izango dutela izena zozketa horietan parte hartzeko, Arrasaten 20 urtez bizi eta 10 urtez erroldan apuntatuta daudenek, alegia.

HAUTESKUNDEAK 07 > EA-REN AURKEZPENA

EAko zerrendaburu Urizarrek gura du herritarrekin jardun

Martitzenean aurkeztu zuen hauteskundeetarako sei laguneko zerrenda, EAk; erdiak dira andreak

UBANE MADERA > ARRASATE

Rafael Larreina, EAko Antolamendu idazkaria, Esther Larrañaga, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburua eta Jose Luis Aranburu Arrasateko EAko buruak babestu zuten Pello Urizar EAko Arrasateko alkate iza-teko zerrendaburu. Urizarri laguntzen bost arrasatearrez osatutako taldea aurkeztu zuten, zinegotzi izateko. Guztiak arrasatearrak, eta EAko ordezkariek nabarmendu zuten moduan, seitik hiru emakumeak. Honako hauek dira hautagaia: Pello Urizar; Ainhoa Gallastegi; Bixente Etxeberria;

Ainara Larrañaga; Igor Altuna eta Kontxi Etxeberria. Gaztetasuna eta esperientzia tartekatu gura izan dituzte zerrendan.

HERRITARREKIN ELKARLANA

Urizarri dagokionez, lehenago ere zinegotzi izandakoa da. Orain arte, berriz, EAko batzorde era-gileko Debagoineneko ordezkaria izan da. Aurkezpenean argi utzi zuen herriaren eraikuntzan herritarren partaidetza ezinbes-tekoa dela, "herritarrekin eta herritarrentzat lan egin behar da". Lanean garden izateari ere eman zion garrantzia.

UDALA > MUGIKORTASUN PLANA

Garibaiko egoera eta beste aztergai datorren astean

Martitzenean,
19:00etan, Kulturaten
emango dizkiete
azalpenak herritarrei

dako aldaketa guztiak Arrasaterako Mugikortasun Planaren ondorio zuzena dira.

ETORKIZUNEAN, TAO

Udaleko Ingurumen Sailetik aurreratu dutenez, esplikatuko dute zergatik abiarazi duten Mugikortasun Plan hori; zertan oinarritu diren eta orain arte egindakoaren gaineko balorazioa egingo dute: oinezkoendako bihurtu dituzten guneak, zirkulazioan egin dituzten noranzko aldaketak, aparkalekuak, bidegorria, garraio publikoa eta beste. Horrez gainera, etorkizunera begira, Mugikortasun Planak izango duen jarraipenaren nondik norakoak ere azalduko dituzte. Esaterako, Arrasaten TAO (OTA) jartzea planteatu dutela, urbanorako linea berriak, tranbia, eta abar.

Txitxindepe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel: 943 79 52 50

OGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

OSTANTZ
Ferreries 12 behe 20.500 ARRASATE Tel.: 943 79 56 04

pinxoak eta bokata onenak geurean!!!

GAIA > 'KULTURBIRA' ETA 'GU TA GUTARRAK' IKUSKIZUNA

Ekitaldi ugari egingo dituzte Korrika datorrela iragartzeko

Domekan Seber Altube jaigune erraldoia bilakatuko dute; eta iluntzean 'Gu Ta Gutarrak' ikuskizuna eskainiko dute Amaia Udal Antzokian

IKER BARANDIAREN > ARRASATE
Etzi, domeka, Korrikaren gaine-ko jai erraldoia egingo dute Seber Altuben. Korrika Kulturalaren *Kulturbira* Arrasatera eraman-go dute, eta iluntzean *Gu Ta Gutarrak* ikuskizuna eskainiko dute lehenengo aldiz Gipuzkoan. Azken hori Amaia Udal Antzokian izango da, 19:30ean.

Kulturbira da Korrika datorrela iragartzen duen ekitaldia

AGERTOKIERRALDOIA

Lehen esandako moduan, Korrika 15en agertoki erraldoia Seber Altuben izango da 12:30ean hasita. Besteak beste, pantaila erraldoia jarriko dute han eta hainbat ikus-entzunezko emango

dituzte, Niko Etxartek egin duen Korrikaren bideoeklipa, esaterako.

TXATXILIPURDI ETA EKIN

Horrez gain, Txatxilipurdik hainbat tailer jarriko ditu 13:00etatik 14:00etara bitartean, eta umeek, gazteek zein helduek jolasteko aukera izango dute. Azkeneko bi taldeendako aldarrikapen txoko sortu dute.

Bestalde, Ekin Emakumeak elkarrean talo saltokia jarriko du goizean. Jasotako dirua Korrikaren alde emango dute.

Bazkaltzeko etenaldiaren ostean, 17:00etan agertoki erraldoia berriro jarriko dute; eta 17:30ean *Miss Heldu* kale antzer-

ki ikuskizuna egingo dute. Barre egiteko ikuskizuna izango da, jakina.

'GU TA GUTARRAK' IKUSKIZUNA

Korrikaren aldeko ekitaldiei bukaera emateko, *Gu Ta Gutarrak* ikuskizuna egingo dute Amaia Udal Antzokian, 19:30ean.

Gu Ta Gutarrak proiektu oso berria da, eta honako artistak daude izen horren atzean: Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertolariak; eta Josu Zabala eta Aitor Rubio musikariak.

Ikuskizun horretan musika eta bertsoak uztartzen dituzte. Batzuen ustez 7 Eskaleren jarrai-pena da, baina proiektuaren parataideek ez dute uste halako zeri-kusi zuzena duenik.

Sarrerak salgai daude 10 eurotan honako lekuetan: AEKn, AEDn, Monte tabernan eta Amaia Udal Antzokiko txartelde-gian, hain zuzen ere.



PADDY REKALDE *The Clash* liburua aurkeztuko du hilaren 27an. LADER JUARISTI

MUSIKA > 'HITZ EGIN DEZAGUN MUSIKAZ' JARDUNALDIAK

Musika berbagai jarriko du AEDk

Ramones eta The Clash-en gaineke berbaldiak eta herriko musika taldeen mahai-inguruak

I.B.> ARRASATE

AEDk musikaren gaineko jardunaldiak egingo ditu martxoan. Astero ekitaldi bat egingo dute, eta guztiak gaztetxeen izango dira. Rock musika izango dute berbagai, eta liburuen aurkezpenak eta mahai-inguruak egingo dituzte.

Ideia aspalditik dator. AEDkoek gazteei zuzendutako ekinmenak egiteko premia ikusuten, gazteek musika zaletasun handia dutelako.

Antolatzaileak rockean oinarritu dira egitaraua antolatzeko, eta ekitaldi guztiak gaztetxeen egingo dituzte. Hain

zuzen ere, martxoan musika taldeen gaineko liburu biren aurkezpen-berbaldiak egingo dituzte.


PUNK-ROCKA PROTAGONISTA

Martxoaren 15ean Gotzon Hermosilla kazetari bizkaitarrak *Ramones familia maitagarria* liburua izango du berbagai, 19:00etan. AEBetako talde aitzindari horren gainean berba egingo du.

Hilaren 27an, berriz, Paddy Rekalde idazle deustuarra Punk rock-and-roll reggae matxinada liburua hartuko du ardatz berbaldia egiteko. 19:00etan izango da.

HERRIKO MUSIKA TALDEAK
Atzerriko talde garrantzitsuez gain, baina, herriko musika taldeen gainean ere arituko dira *Hitz egin dezagun* musika ekitaldien barruan. Hain zuzen ere, egunean, hilaren 7an, Des Kontrol, Los Cretinos, The 5 Twisters, Anger, Ozen eta Numen taldeko kideek mahai-inguru egingo dute.

Horrez gain, hilaren 22an, Arrasateko punk eta oi taldeen sorreraren gainean berba egingo dute Rip eta Puñetazo taldeetako kideek. Ekitaldi guztiak 19:00etan izango dira.



AURPEGI EZAGUNAK *Gu Ta Gutarrak* Igor Elortzak, Unai Iturriagak, Josu Zabalak eta Aitor Rubiok osatzen dute. 'GU TA GUTARRAK'

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Lagunza terapia.
- Mota guztiako eskola arazoak.
- Peritaje judzialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei lagunza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



• **Estetika tratamenduak**
Lipoerreduktore: saio bakarrean hiru zentimetro gutxiago

• **Gorputz-mesoterapia**
Erreduktorea, tinkatzailea, eta abar.



Amagara

Erdiko kale 54 beheoa 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

**Momentua
iritsi da.
Zuk nahi
izanez gero,
guk lagunduko
dizugu.**

Arruabarrena doktorea.
Elkargokide-zenbakia: 6.073

Eguzki bonua

Aste Santurako promozio berezia
Martxoaren 5etik apirilaren 5era

Beltzaran jartzeko aparatuen UVA izpiek eragina izan dezakete azalean eta begietan. Ondorioak izpien izaeraren eta intentsitatearen araberakoak izango dira, baita pertsona bakoitzaren azalaren sentsibilitatearen araberakoa ere.

RPS 297/05



umezaintza

Udal Haur Eskola
0-3urte

San Andres, 8



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arizmendi ikastolak kudeatutako
Udal Zerbitzua

07-08 IKASTURTERAKO Matrikula Epea Zabalik
OTSAILAREN 26tik MARTXOAREN 9ra

902 11 20 25
informa zaitez

Instalazioak ikusi edo elkarritzeta egin nahi izanez gero,
aurrez telefonoz abisatu.



> ATLETISMOA
**Maria Jose Gil,
Espainiako
txapelketan**

Arrasateko atleta beteranoak estatu mailako beteranoen txapelketan hartuko du esku asteburuan, Oviedon. Hala, Maria Jose Gilek 1.500 eta 3.000 metroko lasterketetan jardungo du.

Joan den asteburuan Maria Jose Gil Ormaiztegin lehiatu zen 40 urtetik gorako-en artean; 65 urteko arrasatearra hirugarren sailkatu zen. Horrek erakusten du Gil gorputzaldi onean dagoela. Lasterketa hori Arrasateko Mari Fran Alonsok irabazi zuen.

> ATLETISMOA
**Lander Errasti
Zaragozan lehiatuko
da asteburuan**

Junior mailako Espainiako txapelketak egingo dituzte asteburuan, eta Arrasatekoak, gutxienez, joan den asteburuan Kluben Arteko Txapelketan egindakoa errepikatu gura du. Hala, Errastik marka pertsonala hobetu zuen, (4,35 metro), eta 3. sailkutzen.

Martin Berrizbeitia gaztea, bestalde, Amorebietan izango da, kadete mailako Espainiako txapelketara sailkatzen lehian.

Mendi irteera, eskia eta bizikleta, martxorako Besaidek gertatu duena

Negua badabil poliki-poliki atzean geratzen, eta Besaideren proposamenen barruan udaberrian egiteko kirolak antolatzen hasi dira

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Negu makala izan da aurtengoa, eta Besaidekoek ondo igarri dute hori. Eskiatzera joateko hainbat zailtasun izan dituzte, bai pisten ibiltzeko eta baita mendiko eskia egiteko ere. Dena dela, martxoa oraindik ere eskaintza horiei eusteko sasoia da. Hala, Besaidekoek martxoaren 17ko eta 18ko aste bukaeran Saint Laryn (Frantziako Pirinioa) mendiko eskia egiteko irteera antolatu dute. Irteera horretan parte hartu gura duenak martxoaren 12an eta 13an eman beharko du izena Besaideren egoitzan (19:30-20:30).



ALPINOA ERE BAI Besaidek astebururo antolatzen du Formigalera irteera. GOIENKARIA

LEHENAGO, MENDI IRTEERA

Pirinioetaraino joan barik, datoren domekan, hilak 11, *Ardoaren ibilbidea* izeneko mendi ibilaldia egingo dute Besaidekoek, Mendata eta Durango banatzten dituzten parajeak zeharkatuz. Astelehenetik egunera eman ahal izango da izena Besaideren.

Amaitzeko, martxoko azken asteburuan Besaide MTB taldeak denboraldiko lehenengo irteera antolatuko du mendiko bizi-kletan ibiltzeko. Oiartzun aldeera egingo dute martxoaren 24an, Bianditzeko ingurueta ibiltzeera. Emango dugu horren berri aurrerago.



Matrikulazio epea zabalik
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan
OTSALEN 26tik MARTXOAREN 9ra



Arrasate
Herri Eskola



baikara
Gipuzkoako Ikasleen
Gurasoen Federazioa

futbitoa zaldibar

EMAITZAK

Lasagabaster-Omu Dribling	4-4
THC-Abokajarro	2-7
Cipris-HLB 108	3-2
Saukelu Abian-Cicatrus	7-1
Iluntz-Mc Auen Dauen	8-2
Equus-Iturrioz Taberna	3-4
Iriztu Taberna-AT Celaya	5-6
Billy & The Cowboys-Man.Pippol	3-5

PARTIDUAK

Martxoak 3, zapatu	Epaileak
09:50 AT Celaya-Equs.	Iturrioz Tab.
11:00 Saukelu Abian-Iturrioz	AT Celaya
12:00 Dribling-HLB 108	Saukelu Abian
13:00 Manh. Pippol-Dublin Irish	HLB 108
15:50 Cipris-Mc Auen Dauen	Cicatrus
17:00 THC-Cicatrus	Mc Auen Dauen
Martxoak 4, domeka.	Epaileak
10:50 Lasagabaster-Abokajarro	Betrayer
12:00 Iluntz-Betrayer	Abokajarro
13:00 Iriztu-Billy&The Cow.	Iluntz Tab.

SAILKAPENA

1. Saukelu Abian	21
2. AT Celaya	21
3. Dribling	19
4. Iluntz	17
5. Betrayer	15
6. HLB 108	14
7. Cipris	14
8. Abokajarro	14
9. Iriztu Taberna	12
10. Lasagabaster	11
11. Mc Auen Dauen	7
12. Manhattan Pippol	6
13. Dublin Irish Pub	4
14. Iturrioz Taberna	3
15. Billy & The Cowboys	11
16. Equus	11
17. THC	11
18. Cicatrus	11

**Guk bezala
Euskal Eskola
Publikoaren alde
egin apustu!**



BEDOÑABE • Tel: 943 79 20 69



MUSAKOLA • Tel: 943 79 04 49



ERGUIN • Tel: 943 79 77 74

nire bidaia hora

Oier Aliaga
Kubara > 2006ko urrian

"Goizean goiz edo arratsaldeko azken orduak kenduta, bizikletan ibiltzea jasangaitza zen"

MIRIAN BITERI > ARRASATE
Xabier Barruttiabengoa lagunarekin egin zuen bidaia Oier Aliaga arrasatearrak urrian. Kuba bizikletaz ezagutza zuten helburu. "Bikaina eta ahaltezina" izan dela eta "bentako" irla ezagutu gura duenari, "bel-durrak albo batera utzi" eta motxilarekin abiatzea gomendatzen dio.

Urriaren 2an, Santiagorako bidea hartu zuten bi lagunek. Bi aste eta erdi zituzten aurrek irlako herri eta herritarrak ezagutzeo. Arrasaten zeudela, hango klima beroa eta hezeak kontuan hartu ez izana "akats larria" izan zela uste du Aliagak. "Goizean goiz edo arratsaldeko azken orduak kenduta, bizikletan ibiltzea jasangaitza zen, baina ez geneukan beste aukerarik", dio.

Lo egiteko etxe partikula-



Argazkian, Oier Aliaga.

rrak aukeratu zituzten: "Hotelak baino askoz ere merkeagoa iza-teaz gain, familiarekin tratu handia edukitzeko" bidea ematen du. Ez zuten arazorik izan; behar-beharrezko bakarrik eraman, eta "turista planta tipikoa" ez izateak lagundu egiten zuela dio.

"Itxura apala genuen eta horrek ate asko ireki zizkigun", esaten du. Habanatik urrunago dauden herrietan, kubatarren eskuabaltasuna handiagoa dela dio.

FRUTAREN ZAPOREA
Aurrekontua "justu samarra" zela eta, dendetan eta bidean aurkitzen zuten jendeari fruta eros-ten ziotela azaltzen du. Horixe da, hain zuzen ere, gehien sumatzen dutena faltan: "Hango frutak sekulako zaporea zuen".

Santiagon bi gau igaro ostean, Baracoantz abiatu ziren, hego-ekialdean dagoen herri arrantzalerantz. Jandris izeneko kubatarra ezagutu zuten, angulak arrantzatzen zituen hark. Gauero 30 kilo angula hartzen ei zituen. "Hemen aberatsa izango litzatekeela esaten genion". Haren

lanbidea ezagutu zuten. Manguna hondartza "ikaragarria" eta Toa ibai emaritsua ere ikusi zituzten, bizikletan ziohazela.

Handik Trinidad hiri "ikus-garrira" joan ziren, autobusez. "Denboran atzera egitea bezala da", azaltzen du. Gero, Topes de Collantes menda gogorra igo zuten bizikletaz. Aliagaren ustez, "egun gogorrena" izan zen; "hasieran urik gabe geratu ginen. Eske-rak turista danimarkar batzuk pasa zirela autoz, eta ura eta fruta eskaini zizkigutenean".

Cienfuegos hiria eta Viñaleseko eskualdea ere bisitatu zituzten. Azken hori, "ziurrenik, Euskal Herriarekin antz handien duen zatia da", gogoratzen du. Azken hiru egunak Habanan eman zituzten. Han jasotako tratu ezin hobea du gogoan oraindik.



Topes de Collantes menda gogorra igo zuten arrasatearrak.



Toa ibaia emaritsua zeharkatu zuten bizikletarekin.



La Habanako aireportuan, irla atzean utzi aurretik.



Oier Aliaga eta Xabier Barruttiabengoa Osasunaren bufandarekin.

bere ustez



Antxon Mendizabal

Ikutixo desagertu behar dute

U dalak erabaki du Iku-tixoko baserria bota eta ibarra zabortegi industriala bihurtzea. Hemen dago nekazaritzatik bizi den gure azken baserritarra. Gure azkenetariko ibar ederra. Oraindik igel eta karramarro autoktonoak dituena. Oraindik mendiko erbiak, urtxintxak, erbinudeak eta orka-tzak dituena. Zuhaitz mota askotariko lekua eta txorien herri txikia. Gure aniztasunaren azkenetariko gune ikuskaria. Errege bidea gor-detzen duena.

"Datorren belaunaldian, absurdua museoan, ohorezko lekua izango dugu"

Betiko logika dugu hemen. Arrasateko botere ekonomiko nagusien menpe aplikatutako bilakaera kapitalistak Olandi-xoko tunela eskatzen du eta hortik ateratako lurra-rekin beteko dute Iku-tixoko ibarbeidea. Jakina, zabortegiaren gai-nean industrialdeak eraiki behar dituzte eta ondorioz, azpiegitura, etxebizitza, merkatal gune, garraio eta tunel berriak etorriko dira. Datorren belaunaldietako etorkizuna hipotekatuz eta noski, beti bezala, jabedun txikiak bortxatzu.

Klima-aldeketa, energia itu-riren agorpena, kutsadura eta glaziarren urtzea dela eta, Europan nagusitzen doan ingurumenaren aldeko ildoaren kontrako da Arrasateko politika. Datorren belaunaldian, absurdua museoan, garai honetakoek oho-rezko lekua izango dugu.

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua



ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74



ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoa eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoa

Ateak

Armairu enpotratuak

Armairu-fronteak

Mota guztietako zoruak

Lixatua eta bernizatua

Osagariak

Neurrira egindako alfonbrak

Gortinak, mahaia eta aulkia

HIRIGINTZA > DOMINGO IRALAKO PROIEKTUAREN LEHEN FASEKO LANAK

Domingo Irala kaleko lanak geldi daude, eta arrazoia argitzeke dago

Susmoa da eraikuntza enpresaren gorabehera batengatik gelditu dituztela lanak

Martitzenean bilera egingo dute udaletxean, arrazoia argitzeko

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Domingo Irala kalea konpontzeko lanak geldi daude. Oraindik ez dute arrazoia argitu, baina badirudi enpresaren gorabehera batengatik gelditu dituztela lanak. Argi dagoen gaua bakanra da obrak geldi daudela eta inork ez dakiela noiz helduko dieten berriz.

ARRAZOIA, ARGITZEKE
Lasarteko Ozio Eraikuntzak enpresa ari da Domingo Irala kaleko lanak egiten. Hala ere, enpresara deitu arren, enpresako arduradunek esan digute ez dutela inolako adierazpenik egingo ezta arrazoirik emango ere. Udaleko iturrietara joz, berriz, Josean Etxeberriak, Hirigintza zinegotziak, baiezatu egin dio



DOMINGO IRALA Kale guztia jasota dagoela gelditu dituzte Domingo Irala berritzatzeko lanak.

onartu dute eurek ere susmoa dutela ordainketa-etendura dela obrak gelditzeko arrazoia. Eraikuntzako lanetan erabiltzeko apa-railuak alokatzen dituen enpre-sa batek eraman ditu dagoeneko Domingo Iralatik makinak.

Arrazoia argitzeko bilera bat egingo dute martitzenean udale-txean Hirigintzako arduradunek eta enpresako ordezkarieki.

ORAIN ZER?

Lanak noiz eta nork jarraituko dituen ere argitu beharko dute orain. Beste enpresa batek egin behar baditu, orain arteko lana baloratu behar dute lehendabi-zi. Horrek obrak atzeratzea eka-rriko du, ziurrenik.

Irizar kaletik Telefonicara bitarteko zatia altxatu behar zuen Ocio enpresak, 1,4 milioi eurotan adjudikatu zioten lan hori. Aurre-tik, Goenkaleko eta Artekaleko urbanizazio lanak ere egin ditu, baita Komenio kaleko lur azpi-ko edukiontzien obrak ere.

GOIENKARIari obrak geldi daudela, eta arrazoia zein den ez dakitela aurreratu du, susmo batzuk badituzten arren. "Aurre-tik ere gelditu zituzten lanak hamar egunez, lur azpian sartze-ko elementu batzuk falta zituzte-lako. Bitartean, Komenio kaleko lanak egin zituzten. Gero konturu-rua genen ekarrita zuten mate-rialak, enkofratuak egiteko alan-bre handi horietako batzuk, era-man egin zituztela. Kezka handitu zitzagun. Horrenbestez, eta

dago oraindik", esan du Josean Etxeberriak. Obran lanean ari diren langileek ere ez dute hitz egin nahi izan, baina batzuek

UDALA > OTSAILEKO OSOKO BILKURA

Udal plangintzarako aholku batzordeak kezka sortu du, txikiagia delako

Batzordea zabaltzeko eskatu diote berriro alkateari Bergara Aurrerak eta Aralarrek

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Lurzoruaren legeak herritarren parte-hartzea jasotzen du eta Bergarako udalak onartuta dauka plangintzarako aholku batzordea. Hirigintzako zinegotzi eta teknikariak, alkateak eta Mendi Bizirik, Bergarako Kirol Elkar-tea eta Bedelkar elkarteeak osa-tzen dute batzorde hori, eta

batzordea zabaldu egin behar dela uste dute Bergara Aurrerak eta Aralarrek. Bergara Aurre-rak gogora arazi zion alkateari partaideen kopurua txikiegia zela eta zabaltzeko eskaera egin zion berriro. Aralarrek ere esan zuen alde bozkatu zuela alkate-ak batzordea zabaltzeko konpro-misoa hartu zuelako. Alkateak erantzun zien legeztatuta dauden alderdiak egin behar dutela batzorde horretan, eta horregatik daudela daudenak. Bergara Aurrerako Jesus Mari Garita-nok galdu zion ea zergatik ez dituen herriko beste talde batzuk

ere gonbidatzen, nekazariak edo auzotarrak, adibidez, euren tal-dea gonbidatu duen bezalaxe. Batzordearen sesioak nahikoak ote diren kezka ere agertu zuen Garitanok. PSE-EEk ere aben-duan eskatu zuen batzordea zabaltzea. Bolu eta Zabalotegiko biztanleak ere osoko bilkurara joan ziren idatzi bat irakurtzeko asmoz, baina aholku batzordearen gaiak eurengan ere zeriku-sia duela esan zuen Aitor Gan-txegi bozeramaileak; eurek ere batzorde horretan parte hartu nahi dutela esan zuen eta han hitz egingo dutela, ez osoko bilkuran.

POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara



Diodo bidezko laser depilazioa:
eraginkorra eta azkarra

GORPUTZ GUZTIRAKO DEPILAZIOA:

- Hiru hilabetean behin
- Tratamendua bukatzeko 4 edo 6 saio
- Osasunean profesional direnek egina

Estetika zentroa
Igara

Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

Presta zaitez
udarako, orain!

ARISTEGI iturgintza

Tel.: 943 76 25 57
Mug.: 646 02 16 94

Ibargarai hiribidea 32-04.B
BERGARA

UGARTE

AROZTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean
• Horma armairuak
• Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA

Ikerlek zeharbidea • BERGARA

Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA

San Juan 1A • BERGARA

Tel.: 943 76 54 91 / Fax: 943 76 08 04

KONDE PANADEROKUA



Burdinaste 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

Mariaren Lagundia Ikastola

40

Gure bidea, gure bermea,
Gure bermea, zuen aukera,
Zuen aukera, gure xedea.

Berargarrokin batera
Etorkizuna eraikiz

1929

Espaloia 1. Tfnoa 943 76 25 40-41. e-mail. ikastola@mlagundia.net
0-16 urte / 18tik aurrera
Matrikulazioa: Otsailaren 26tik martxoaren 9ra

bai

Bai Euskarari Zientzia
Guk zerbitzua euskaraz

MARGOAK > ERAKUSKETA AROZTEGIN

Txopitearen ibilbideari gainbegiratua

Daniel Txopiteak (1950-1997) egindako hainbat lan Aroztegi aretoan, apirilaren 15era arte

EDU MENDIBIL > BERGARA

Daniel Txopitearen margo era-kusketa zabalduko dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan, 19:00etan. Gazte hil bazeen ere, Txopiteak (1950-1997) ibilbide luzea egin zuen: Eibarko Gorutz taldearen sortzaileetako bat izan zen 1970eko hamarkadan; Remigio Mendiburu eta Jorge Oteitzako esku-toreekin kolaboratu zuen; *Gipuzkoako margolariak, 1939-1979* izenburuko erakusketan hartu zuen parte; Donostiako

Altxerri galeria zuzendu zuen 1987tik 1990era; *La ley de los cambios* (1990), *Zarautz bihotz bihotzetik* (1997) edo *Poemario de Daniel Txopitea* (2001ean) lanak argitaratu zituen; Euskal Herrian zein Euskal Herritik kango era-kusketak egin zituen, e.a.

ATZERA BEGIKOA

Txopitea hil eta berehala hasi ziren haren gaineko omenezko erakusketak eta atzera begirakoak, tartean Bergaran gaur



TXOPITEA Lan oparoa egin zuen Txopiteak. Irudian, alaba Ainizerekin, Zarautzen 1981ean ateratako argazkian.

TXOPITEA

zabalduko dutena. 1969a ezkero, Txopiteak egindako hainbat lan jarriko dituzte ikusgai: olioak, serigrafiak, paperaren gainean egindako zirriborroak eta *Ciclope vigilante* izenburuko eskultu-

raren maketa. Oteitzaren inguru mugimendu artistikoari lotuta, 1990eko hamarkadan egin zuen *Colosos y titanes* serieko lanak ere ikusteko aukera izango da Aroztegin.

Erakusketa apirilaren 15era arte izango da zabalik: martxinetik egubakoitza 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; domeketan, 12:00etatik 14:00etara.



GOIENKARIA

Bideberriko kontzertuak gertatzeko bilera

Udaleko Kultura Zerbitzuak aditzera eman duenez, Mendekoste jaietan Bideberri izaten diren kontzertuak antolatzeko bilera izango da martxean, martxoaren 6an, kultura Etxean, 19:00etan. Herriko musikazale guztiei bileran parte hartzeko gonbita egiten zaie. Era berean, bileran parte hartzeko interesa dutenei Bideberri ikusi nahiko lituzketen taldeen zerrenda eta horien inguruko informazioa eramatea eskatzen zaie. Herriko jaiak maiatzaren 25etik 29ra ospatuko dira aurten.

> GAZTETXOAK

Iñaki Lasa ipuin kontalaria Agorrosingo Ekintza Gunean izango da domeka arratsaldean

Iñaki Lasa ipuin kontalariek sssss izenburuko saioa eskainiko du domekan, Agorrosingo Ekintza Gunean (2. solairuan). Bi saio egingo ditu: 17:00etan (3-6 urte bitarteko haurrentzat zuzenduta) eta 17:30ean (7-11 urte bitartekoendako). Sarrerak euro bat balio du.

> LITERATURA

Koldo Eleizalde lehiaketa deitu du Udalak: ipuinak, komikiak, bertsoak eta antzerkia


Koldo Eleizalde 22. Literatur Lehiaketa deitu du Udaleko Euskarra Zerbitzuak. Bertso eta komiki atalak ibarrera ireki dituzte, eta horiez gain ipuin eta antzerki lehiaketak izango dira. Lanak entre-gatzeko epea apirilaren 20ra arte dago zabalik. Argibideak 943 77 91 79 telefonoan edo *l Jimenez@bergara.net* helbidean.

> MAHAI-INGURUA

Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta, mahai-ingurua izango da gaztetxean, egunean

Eguenean, martxoaren 8an, mahai-ingurua izango da Bergarako gaztetxean, 19:30ean. Mundukideko *Truke* programaren bitartez Debagoienean diren Hego Amerikako eta Afrikako ordezkariek hartuko dute parte. Ondoren, afaria izango da gaztetxean bertan.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

ETXEERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA


Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

MATRIKULA EPEA OTSAILAREN 26tik MARTXOAREN 9ra



GUREKIN HAZI ETA HEZI

SAN MARTIN ESKOLA
HAUR ETA LEHEN
HEZKUNTZA

Tel.: 943 76 21 47

e-maila: 012265aa@hezkuntza.net

IPINTZA INSTITUTUA
DERRIGORREZKO BIGARREN
HEZKUNTZA (DBH) (12-16 urte)

Tel.: 943 76 31 42

e-maila: 012981aa@hezkuntza.net



SAN MARTIN
BERGARAKO

IPINTZA

M. ALTUNA

HHE-EPA



IKASTETXE

PUBLIKOAK

> FUTBOLA

Bergarak Amaikak taldearen kontra jokatuko du zapatuan

Lehen erregional mailako Bergarak Agorrosinen jokatuko du zapatuan. Amaikak taldea hartuko du 16:30ean.

BTLSko mutilek, bestalde, Lazkao izango dute aurrean egun berean, 18:30ean.

> TXIRRINDULARITZA

Dorletara irteera domekan, denboraldi hasiera dela-eta

Bergara Txirrindulari Elkar-teak denboraldi hasierako irteera egingo du domekan, martxoaren 4an.

Ohikoa denez, Dorletara joango dira. San Martin plazatik aterako dira, 09:00etan.

> PIRAGUISMOA

Infantilen txapelketa izango da bihar Labegaraietan

Labegaraietak infantil mailako piraguismo txapelketa harituko du zapatu honetan, martxoak 3.

15:30ean hasiko da eta arratsalde osoa hartuko du txapelketak.

SNOWBOARDA > TXAPELKETA DOMEKAN IZAN ZEN PIRINIOETAN, PANTICOSAN

Espainiako Txapelketako infantil mailan txapeldunorde izan da Manex Asula

Snowboardean ederki moldatzan den mutikoa du Bergarak. Espainiako Txapelketan bigarren geratu zen, domekan, Panticosan

MIRIAN BITERI > BERGARA

7 urte baino ez zituenean hasi zen snowboarda praktikatzen Manex Asula bergararra. Ordutik hona, denbora luzea eman du Valdezcarayn entrenatzen, eta orain, lehen garaipenak lortzen hasi da.

Domeka goizean lehen domina irabazi zuen. Espainiako Txapelketako infantil mailan txapeldunorde izatea lortu du, hain zuzen, Panticosa estazioan jokatu zuten txapelketa.

HASIERAN, URDURI SAMAR

Zapatu osoa entrenatzen eman zuela gogorarazu zuen eguztanean. Txapelketa hasieran urduri samar zegoela onartu zuen, bereziki lehen bi jaitsieretan.

"Baina gero jendeari irabazten hasi nintzen eta azkenean txapeldunorde geratu nintzen",



TXAPELDUNORDEA Argazkian, Manex Asula txapeldunordea.

M.B.

adierazi zuen Asulak, snow oholo ondoan zuela.

Lau urte daramatzat kirol hori egiten. Ikasi zuenean, talde batetan eman zuen izena, Valdezcarayn. "Hiru urte daramatzat taldean", esan zuen. Domekakoa lehen txapelketa izan da Asularen dako, gainontzeko urteak entrenatzen eman ditu-eta.

Asteburuetan Valdezcarayn egoten da. Egubakoitz gaeuan Errioxarantz abiatzen da familia-rekin. Hamar ordu ematen ditu entrenatzen astebururo. "Ez dut arazorik, oso gustura egiten dut", aipatu zuen. Etorkizunari begira, snowa egiten jarraituko due-la ziurtatu zuen. Ilusiorik, behintzat, ez zaio falta.

Iabegaraieta**EMAITUAK**

Errota Gain - Teatekh	4-1
Niu Tim - Belengua	10-3
Iribide - Altospornos	3-5
Deba - K. Piperrak	4-9
Tiki Taka - Irish Pub	2-7

PARTIDUAK

Martxoak 4, domeka	Epaileak
10:00 Niu Tim - Irish Pub	Altospornos
11:00 Errota Gain - Iribide	Errota Gain
12:00 Deba - Iribide	Tiki Taka
16:30 Teatekh - Belengua	Belengua
17:30 Tiki Taka - K. Piperrak	

SAILKAPENA

	P	J
1. Errota Gain	39	13
2. Niu Tim	36	13
3. Altospornos	27	13
4. Teatekh	24	13
5. Tiki Taka	18	13
6. Irish Pub	15	13
7. Belengua	9	13
8. Komando Piperrak	9	13
9. Iribide	9	13
10. Tornilleria Deba	3	13

Kopako zozketa egin zuten martitzenean

Martitzenean egindako delegatuen bileran, kopako zozketa egin zuten. Hamar talde direnez, lau taldek aurrekanporaketa jokatu beharko dute, zortzi talde izan arte. Iribide Niu Tim-en aurka arituko da eta Tornilleria Debak Irish Pub izango du parean. Liga txapelketa amaitzean hasiko da kopa.

**2007KO ARATUSTEETAKO KALE-ANIMAZIOKO SARIDUNAK:
"HIPPYAK"**

160 eurotako bonoa

Bedelkarreko jatetxe eta tabernetan erabiltzeko



kanpotarrak Bergaran

David Kekhof > Holandarra da eta udaz gerotzik Bergaran bizi da

"Nire ustez, oso importantea da euskaraz berba egiten jakitea"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Udaz gerotzik dago David Kekhof holandarra Bergaran bizi izaten. Euskal Herrira, ordea, duela lau urte iritsi zen. Lanagatik erabaki zuen hona etortzea, eta, hasiera baten, Beasainen jarri zen biziizaten. Heldu eta handik gutxira, euskaltegian eman zuen izena.

Ordutik hona, euskara ikasten ibili da Kekhof astegunetan, goiz-goizean. Eta, hain zuzen, denbora tarte hori harendako "oso garrantzitsua" dela eta Euskal Herrira iritsi bezain laster euskara ikasi behar zuela argi izan zuela esan digu.

"Hemengo hizkuntza da, eta, nire ustez, oso importantea da berba egiten jakitea", azpimarratzen du. Horrez gain, gizarteratzeko orduan, hizkuntzak zenbait ate zabaltzen dituelu uste du holandarrak. Izan ere, euskaldunekin berba egiteko aukera iza-tentu modu horretan.

Euskara ikasteko helburua duela hiru urte eta erdikoa da,

bete egin du eta gaur egun, ondo moldatzen da. Momentu honeitan, 8. urratsa ikasten ari da euskaltegian.

EGA tituluagatik galdetuta, barre egin eta oraindik ikasteko asko falta zaiola esaten du Kekhofek. Hala ere, haren aurpegiak baztertzen ez duen zerbaite dela islatzen du.

EMAZTEAREKIN ETA ALABA BIREKIN

Rotterdam hirian jaio zen Kekhof duela 44 urte. Denbora luze-rik ez zuen eman han, familiak lau urterekin hegoaldera aldatu zuelako bizilekua. Euskal Herri-rako bidaia ez zuen bakarrik egin. Emaztea eta alaba biak izan ditu ondoan esperientzia berri horretan.

"Gustuko dut Bergara, bereziki alde zaharreko kale estu eta eraikin ederrak. Giro aldetik ere ez naiz kexu"

Debagoienera heldu aurretik, Beasainen izan zen bizi izaten. Baina, hiru urteren buruan, Bergaran etxebizitzaz errentan hartu eta tokiz aldatzea erabaki zuen. Askorik ezagutzen ez zuen herria bazeen ere, hemen geratzea erabaki egokia zela pentsatu zuen.

"Gustuko dut Bergara, bereziki alde zaharreko kale estu eta eraikin ederrak", azpimarratzen du Kekhofek. "Giro aldetik ere ez naiz kexu", gaineratzen du.

Udako haur eta gazteendako kanpalekuetan lanean ibilia da holandarra, baita diseinu eta informatika arloan ere.

Jaioterria gogoan izaten due-la aipatzen du: "Izaten dut bueltatzeko gogoa", aitorzen du. Horren harira, Holanda duela bost urte inguru utzi zuela eta, beraz, gogoratzea normala dela gaineratzen du. Oraingo, hala ere, etxeeko errentan bi urterako kontratu duela eta gustura dagoenez ez duela bueltatzeko asmo-rik dio. "Gero ikusi beharko da zer egiten dugun", azaltzen du.



Irudian, David Kekhof, Irizar jauregian.

• Pedagogia eraikitzalea • Ortua • Naturan murgilduta • Txokoak • Teknologia berriak • Ingelesa, psikomotrizitate eta musika irakasle espezialisat-

antza eta jangela zerbitzua (baita eskolako jaiegunetan ere) • Projektu pedagogiko propioa tak • Behar bereziak dituzten uneentzat arreta espezializatua • Harreman hurbilak • Zaintz:

etorkizuna eraikitzen

Angiozarko Eskola • 943 761 619 • Gure neurriira egindako eskola jaiegunetan ere) • Projektu propioa

ITURRIA > LORATEGI BIHURTU

Lorategi bihurtuko dute Durana kale osteko plazan dagoen iturria

Iturriak ur asko galtzen zuen eta ia egunero bete behar zuten; gainera, zikinkeriaz beteta egoten zen sarritan, zabortegi gisa erabiltzen zutelako

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Orain hilabete batzuk ura botatzen zuen iturria azken asteotan lurrez beteta ikusi dugu. Durana kale osteko plazatxoan zegoen iturria herriko bakarra zen. Orain, baina, lorategi bihurtzea erabaki du Udalak.

LOREZ BETETAKO LORONTZIA
Ilargi plaza parean dauden edukiontziak lurperatzen hasi zirenean bete zuten alboan dagoen iturria lurrarekin. Eta laster lorategi bihurtuko dute. Iturria zegoen lekuari ez diote aldaketarik egingo, baina ura izan beharrean loreak landatuko dizkiote. "Lorez betetako lorontzi handia bihurtuko dugu", esan digute

Hirigintza Sailean, "besteak beste plazatxoari bizitasun apur bat eman diezaion".

ZIKINKERIAZ BETETA
Erabakia hartzeko orduan hainbat arrazoi izan ditu kontuan Udalak: batetik, eragozpen handia egiten zuen iturriko urak hainzuegunean; izan ere, babesera-koleku txikia zuenez urak, oinezkoengana bete-betean iristen zen. Bestetik, iturriak ur kantitate garrantzitsua galtzen zuen, eta ia egunero bete behar izaten zuten. Eta, gainera, herritarren heziketari dagozkion hainbat arrazoi hartu dituzte kontuan. Sarritan zabortegi gisa erabiltzen zuten herritarrek iturria eta era guztietako materialak jasotzen zituzten garbitzaileek: "Garbitu eta lau egunera berriro zikinkeriaz beteta egoten zen", azaldu dute Hirigintzako arduradunek. Era berean, iturria inguratzen duen lorategitxoan sekula ez zen egoten larriak: "Lorezainek ezin zuten



ITURRIA Lurrez beteta dagoen eta orain aste batzuk iturria zegoen lekuari begira hainbat ume.

M.A.

lortu berde egoterik", gaineratu dute. Ea, bada, jardineran landatutako loreek buruhauste gutxiago ematen duten.



2007-2008 ikasturtea izena ematea: **otsailaren 26tik martxoak 9ra**

Ordutegia: 09:00etik 11:00etara eta 16:00etik 18:00etara



TALDE EGOKITUAK

- 0 eta 3 urtera arteko haurrek talde egokituetan

ORDUTEGI ZABALA

- 07:30etik 18:00etara
- Ordutegia moldatzeko aukera

JANGELA ZERBITZUAK

- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta

EGUTEGI ZABALA

- Egutegi eskolarraz gain, Gabonetan, Pazko astean eta Uztaila zabalik.

LOGELA



**Txiki txikitatik
jolasten heziz**

BELORRIETA 8an GAUDE. 943 77 03 77

GOROETA AUZOA > ELKARTEA SORTU DUTE

Lizasoain elkartea sortu dute Goroetan, hainbat ondasun auzoak gorde ditzan

Lehen pausoa elkartea sortzea izan da, eta bigarrena izango da eskola, maisu- etxea eta hainbat lur elkartearen izenean jartzea; gero erabakiko dute zer egin horiekin.

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Lizasoain elkartea sortu dute Goroetako auzotarrek oraintsu. Helburu bakarrarekin sortu dute: maisu- etxea, eskola eta hainbat lur auzoaren dako gordetza.

GOROETARRAK BAZKIDE
Maisu- etxeen bizi zen bizilaguna hil zenean konturatu ziren etxeak berak, auzo eskolak eta hainbat lurrek ez zutela jaberik. Auzotar batek azaldu dizkigu sasoi bateko kontuak: Lizasoain abizena zeukan gizon batek dirua utzi zuen eskola eta maisu- etxea egiteko, auzotarren "kultura eta kris- tau heziketarako" erabiltzeko, hain zuzen. Egin egin zituzten, baina eskriturak egin barrik utzi, eta orain ez daukate jaberik. Horrengatik, arazorik sor ez dadin, auzo- ratzea erabaki dute.

Elkartea dagoeneko sortuta dago, eta karguak ere banatu dituzte. Jesus Mari Madinabeitia da presidente eta Jabier Zaloña idazka-



MAISU-ETXEA Goroeta auzoko eliza parean daude maisu- etxea (handia) eta eskola (txikia), argazkiak erakusten duen moduan.

AMAGOIA LASAGABASTER

ria. Bazkideak, ostera, Goroetan bizi diren zortzi baserriko bizilagunak. Joan zen domekan bertan egin zuen elkartek batzarra. "Oraingo elkartea sortu besterik ez dugu egin. Bigarren pausoa

ondasunak elkartearen izenean jartzea izango da, auzoaren dako izan daitezzen", azaldu digu Madinabeitia presidenteak.

Oraindik ez daukate erabakita zer egingo duten etxearekin eta

eskolarekin: "Ezer ez dugula salduko da argi daukagun bakarra. Eskola, seguru asko, auzo- etxe bihurtuko dugu eta maisu- etxea errentan eman. Hainbat lagunek azaldu dute interesa etxearekiko

azken hilabeteotan, baina konpondu beharrean dago. Edozelan ere, irabazi bako elkartea da gurea, eta jasotako guztia auzoaren onurarako izango da", argitu du Madinabeitia presidenteak.

ONGIZATEA > GIZARTERATZEKO EGITASMOA

Udala oso gustura dago Auzolan egitasmoak izandako emaitzarekin

Lau aretxabaletar, bergarar bi eta eskoriatzar bik jardun zuten lanean ekaina eta Gabonak bitartean

Bikain egin dutela lan eta jarrera eredugarria izan dutela aditzera eman dute Udaleko aditurek

M.A. > ALTUBE
Gabonetan bukatu zen Auzolan egitasmoaren balorazioa egin digu Gizarte Zerbitzuak zinegotzi Iñaki Saez de Azkunagak. Udala oso pozik dago jasotako emaitzarekin.

MARGOTZE ETA GARBIKETA LANAK
Ekainean hasi eta Gabonak bitartean jardun zuten zortzi lagunek Udaleko Gizarte Zerbitzuek Jaurlaritzaren laguntzarekin abian

begiralea eta koordinatziale lanak egiten zituen heztailea izan zituzten lagun eguneroko lanean, eta hurbiletik egin zieten jarraipena. Sei hilabete iraun zuen tartean heziketa okupazionala jaso zuten eta sei hilabeteko kontratuarekin ibili ziren lanean Udalaren dako. Batez ere margotze eta garbiketa lanak egin zituzten, eta herriko hainbat kale, parke eta eraikinetan jardun zuten: Kurtzebarri eskola, Basotxo, musika eskola, kirol etxea, kanposantua, Iturrigorri frontoia eta beste hainbat.

LAN BIKAINA

Lanean hasi ziren zortzi lagunetik zazpik bukatu zuten Auzolan. Hain zuen bukatutako aretxaba-

letar batek margotze lanak egiten dituen enpresa zabaldu du oraintsu.

Lehenengo aldiz jarri zuen abian iazko udan halako egitasmoa Aretxabaletako Udalak, eta ez zekien zelako emaitza izango zuen: "Langileak zein koordinatzaileak zoriondu beharrean gau- de. Izan ere, Udaleko aditurek dio- te egindako lana bikaina izan dela, eta langileen jarrera eredu- garria", azaldu digu pozik Saez de Azkunaga zinegotziak. Eta gaineratu du: "Dirutza aurrera- tu dugu, gainera, lan horietan. Horregatik guztiagatik eskerrak eman behar dizkiogu taldeari egindako ahalegin eta eskuza- baltasunari esker profesionalta- sunez berritu dituztelako herriko hainbat txoko".

BAKE EPAITEGIA

Bake epailea eta ordezko aukeratuko ditu Udalak

M.A. > ARETXABAleta
Bake epailea eta haren ordezko izango dena aukeratu gura ditu Udalak. Izena emateko udaletxetik pasatu behar da, eta azken eguna martxoaren 5a da, astelehena.

EZKONDUA ETA ADISKIDETUA
Ezkontza zibilak eta adiski- detze-egintzak bideratzea, hau da, epaitegira jo aurretik herritarren arteko liskarrak konpontzea izango ditu bake epaileak egin behar. Horiez gain epaitegiko zitazioak eta sententziak sinatzea egoki- tuko zaio. Horretarako, baina astean behin udaletxetik pasatzea nahikoa izango du. Orain, eguztzen eguerditan egoten da.



IRABAZLEAK Argazkian ageri diren Arlutz tabernako kideak garaile Loramendi EEk antolatutako mozorro lehiaketa.

ARLUTZ

EUSKARA > IKASTAROA ETA BERBALDIA

Autoestimu ikastaroa eta Mont Blancera espedizioa Emakumeen Egunerako

Alpeetan dagoen Mont Blanc mendira espedizioa egin zuten hainbat emakumek azalduko dute han bizi izandakoa, tartean Gema Zubizarretak

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Emakumearen Nazioarteko Eguna hurreratu zaigu, eta Loramendi EEko Tril emakume taldeak bi ekitaldi antolatu ditu.

MONT BLANC BERBAGAI
Martitzenean, martxoak 6, Alpeetan dagoen Mont Blancera espedizioa egin zuten hainbat emakume euskaldunek ia 5.000 metro dituen mendian bixitakoa azalduko dute. Euren artean dago Gema Zubizarreta aretxabaletarra.

19:00etan egingo dute berbaldia, udaletxe zaharrean.

Bestalde, autoestimu ikastaroa egingo dute martxoko hiru astelarenan: 12an, 19an eta 26an. Maite Gartzia psikologoaren gidaritzapean egingo dute lan, eta saioek 18:30etik 20:00etara iraungo dute. Talde mugatua izango da, 15 lagun inguru, hortaz, izena lehenbailehen ematea komendatza; azken eguna martxoak 7. Baskideek 18 euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek 20.

MUS TXAPELKETA

Bihar, zapatua, sagardotegira irteera zeukan antolatuta Loramendi EEk. Baino lagun gutxik eman du izena eta bertan behera uztea erabaki dute. Hilaren 10ean egingo duten mus txapelketa, ostera, aurrera doa. Urbaltz elkartean izango da, eta izena emateko 15:00etatik 15:30era hurreratu behar da; txapelketa 16:00etan hasiko da.

ARLUTZ GARIA

Eta Loramendi EEko kideek jakinarazi dute Aratuste-domekarako antolatutako tabernen arteko mozorro lehiaketa Arlutzek irabazi duela. Euskal kirola izan zuten gai parte hartzaileek.



Jaunartzetarako
erretserbak egiteko
azken egunak

100 €

FUTBOLA > PREFERENTKO TALDEA

Gorabehera asko preferentearen azken partiduetan

Ondo aztertu du Hondarribiako partidua UDAko zuzendaritzak, eta neurri ziniko zigorra deritzo bost jokalari kanporatzeari

M.A. > ARETXABAleta

Partidu gorabeheratsuak jokatu ditu UDAko preferenteko taldeak azken bi asteotan. Otsailaren 17an, Hondarribian, bost jokalari bidali zizkion kalera epaileak, eta, aste honetan bertan, Federazioak galduzat emango dio partidu hura (3-0). UDAko presidente Jokin Antxiari galdu diogu gorabehera horien arrazoia. Azaldu digu kirol legez jokatu arren ohikoa dela txartel asko ateraztea preferente mailan; ez, ostera, bost jokalari kaleratzeari: "Istilu larrien seinale izan beharko litzateke: borrokak, sarrera arriskutsuak, irainak...

Eta gurean ez zen halakorik geratu. Hortaz, gehiegizko zigorak izan ziren. Partidu hura behin eta berriro aztertu dugu elkartean, eta bi arrazoi mota ikusten ditugu: batetik, ezkutukoak, epaileen gaitasuna edo UDaren aurkako zerbaitea, esaterako; eta bestetik, UDaren eskuetan daudenak: gure jarra... ", dio. Eta autokritika eginnez etxeko lanak egingo dituztela gaineratu digu.

Joan zen domekan, ostera, Berioren aurka jokatu zuen etxeen, eta azken minutuan penaltia ikusi zuen epaileak aretxabaletarren aurka. Zaleak asko berotu ziren, eta ertzainei deitu zieten: "Hala ere, ez zen ezer gertatu. Anbulantzia ere agertu zen, baina Berioko jokalari bat zorabiatu egin zelako", argitu digu Antxiak.

BIHAR ORDIZIARA

Sailkapeneko 9. postuan dago preferenteko taldea 30 puntuarekin. Bihar, zapatua, Ordizian jokatuko du, 16:00etan.

> XAKEA

Sestao Naturgas talde indartsuaren aurka jokatuko du Bihar, etxeen, Arlutzek

Bi partidu geratzen zaizkie Euskal Ligako ohorezko mailan dabiltzan taldeei denboraldia bukatzeo. Arlutzek azkena galdu egin zuen Easoren aurka (2,5-1); hala ere, 5. postuan jarraitzen du. Bihar, Sestao Naturgas talde indartsua hartuko du etxeen. Jokalarien artean bi maisu handi eta nazioarteko maisu bat ditu Sestaoak; hortaz, partida gogorra izango dute aretxabaletarrek.

> FUTBOLA

Infantilen ohorezko mailako taldeak lehen postuan dagoen Real Sociedad hartuko du etxeen

Bihar, 10:30ean, jokatuko du Ibarra futbol zelaian infantilen ohorezko mailako taldeak Real Sociedaden aurka. Aretxabaletarrak 6. postuan daude 15 puntuarekin; Realak, ostera, 33 puntu ditu.

Horrez gain, beste hiru partidu jokatuko dituzte Bihar, Ibarra: gazteen ohorezko mailako taldeak Beti Gazteren aurka, 17:30ean; gazteen lehen mailako taldeak Soraluzeren aurka, 15:30ean; eta kadeteen lehen mailakoak Ilintxaren aurka, 12:00etan.

MARIA JESUS ARGAZKILARIA

Herriko plaza 10
Aretxabaleta
943 771255

DIGITAL FX

Ordutegi berria
8:30 - 13:30
16:00 - 20:00

10 x 15 digitala 0,09€-tik aurrera



mingainari tiraka

Aintzane Aizpurua > Lie lurrindegia eta opari denda

"Poltsa garestienak saldu ditut lehenengo"

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta

Urtarrilean hartu zuen Lie denda Aintzane Aizpurua, eta martxoan sartzearekin batera udaberriko salgaiak jasotzen dabil: poltsak, bainujantziak, barruko arropak...

Aurretik dendaren baten lan egindakoa zara?

Eroskin ibili nintzen sasoi baten, baina komertzio txikietan ez.

Zela bururatu zitzaitzun?

Umeak haziz doazela-eta lanean hasteko garaia zela pentsatu nuen. Lie dendako jabeak erretiratzea erabaki zuen, eta aukera ona iruditu zitzaidan.

Ez da lan lotua?

Bai, baina beste lan asko ere lotuak dira. Lantegi baten hasiz gero ere ez nuke ordutegi ona izango umeekin bateratzeko, eta oraingoz ondo moldatzen naiz.

Aldaketarik egingo duzu dendaran?

Ez, aldaketa handirik ez. Hori bai, proba-gela jarriko dut; uste dut bezeroak eskurtu egingo duela.

Arropa saltzaile asko kexu izan dira neguan oso gutxi saldu dutelako. Zuk zer diozu?

Ezin dizut baloraziorik egin, urtarrilean hartu nuelako denda. Baino, ez dut uste eguraldiaren menpe egongo naizenik.

Ze kolore datozen udaberrirako?

Gorria asko, eta urdina eta zuria, marinela-koloreak, hain zuzen.



Arropak ez daukazu, ezta?

Orain arte ez, osagarriak izan ditut: txanoak, lepo-zapiak, bufandak... Baino zerbait ekarriko dut udaberrirako, batez ere kamisetak.

Zer da aretxabaletarren artean ondo salten dena?

Poltsak. Italiako diseinatzailenak ekartzen ditut, eta batzuk garestiak dira onak direlako. Hala ere, garestienak lehenengo saldu ditut.

Euskaldunok klasiko ospea izan dugu janzteko eran. Hala da?

Ez dut uste. Aterkiak, esaterako, lehenengo loredunak saldu ditut, deigarriena. Eta koloretako bufanda eta txano asko erosoi dizkidate; egia da gero kalean jantzita gutxi ikusi ditudala.

Azoketara joan zara salgaiak aukeratzeko?

Ez, orain arte ez, ekarri egiten dizkigu telako ikusi eta probatzeko. Lehendik denden dauden oparitarako pitxer, figura eta altzari txikiak kentzeko asmoa neukan, baina saltzen direla konturatu naiz. Hortaz, altzari txikiak eskuratzeko seguru asko joango naiz.

Gizonak etortzen dira erostera?

Bai, oparia egin gura diotenean emazte, neskagun edo amari.

Eta galtzontziloak erostera?

Ez, norberaren dako galtzontzilorki oraindik ez diot inori saldu; halakoak emakumeen eskuetan uzten dituzte.

> KZGUNEA
IT txartelaren azterketarako lau aukera martxoan

Astelehenean, hilak 5, hasi eta martxo osoan arratsaldez zabalduko dute KZgunea, 16:00etatik 20:00etara. Hainbat ikastaro antolatu dituzte 16 urtetik gorakoendako: Internet ezagutu, sinadura elektronikoa, elikadura segurtasuna eta beste batzuk.

Gainera, IT txartelaren lau azterketa egingo dituzte: hilaren 7an eta 15ean, 18:00etan; eta 19an eta 30ean, 16:00etan. Ikastaroetarako zein azterketa egiteko Markole auzoko KZgunean eman behar da izena.

> GAZTEAK
Capoeira ikastaroa egingo dute hilaren 3an eta 10ean

Capoeira Senzala Euskadi taldeak erakutsiko dizkie Aretxabaleta eta Eskoriatzako gazteleku kideei capoeiraren gaineko kontu guztiek. Bihar, zapatau, eta hilaren 10ean elkartuko dira Eskoriaztako pilotaleku.

Eta hurrengo bi aste bukeratuan Korrikaren gaineko kontuekin ibiliko dira lanpetuta. Hilaren 16an, pankartak eta apaingarriak egingo dituzte, eta 23an, Korrika datorren egunean, txistorra salduko dute dirua batzeko.

> PARROKIA
Garizumako egubakoitz guztiak gurutze-bidea


Garizuma sasoian daude kristauak, otoitz eta hausnarketarako sasoia, eta egubakoitzetan ez dute mezilik esango. Horren ordez gurutze-bidea egingo dute otoitz, 19:00etan, parrokiaren. Domeketan, ostera, bezperak egiten dituzte otoitz Agustindarren komentuan, 18:30ean, eta herritar guztiek gonbidatu dituzte. Bestalde, pastoral barrutiak garizumarako gertatutako egitaraua dauka parrokiaren gura duenak.

Mobiliario
ARENAZA

- **ALTZARIAK**
- **DISEINUA**
- **APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta

hau be badaukogu



M.A.

Meza eta bazkaria egin zuten Basotxoko erretiratuek Aingeru Guardakoa gogoan

Atzo, martxoak 1, zaindari duten Aingeru Guardakoa izan zuten gogoan Basotxo erretiratuen elkarteko bazkideek. Eguna ondo hasteko salda beroa hartu zuten Basotxon bertan, eta ondoren Agustindarren komentura joan ziren meza entzutera. Ospakizunak, baina,

jatekoan behar du; eta, hain zuzen ere, autobusa haritu eta Baster Alde jatetxera joan ziren, bazkaltzera. 125 lagun inguru elkartu ziren, eta Jesus Ortiz de Urbina parrokoa eta Arritxu Oliden alkatea izan zituzten lagun Aretxabaletako erretiratuek.

INGURUMENA > ZUHAITZ EGUNA

Iaz jaiotako 36 umeen izenekin zuhaitz bana landatu dute Aingeru Guardan

Aurten bigarren aldiz antolatu dute ekimen irudimentsu hori, eta gurasoek eta senitartekoek oso ondo hartu dute; hain zuzen, 10:00etan landatu dituzte 36 zuhaitzak Aingeru Guarda inguruan

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Gaur, egubakoitzta, Zuhaitz Eguna narekin lotutako ekintzak egin dituzte herrian. Hain zuzen ere, 10:00etan 36 zuhaitz landatu dituzte Aingeru Guarda inguruan.

Iaz asmatu zuten jaioberriren izena daukaten zuhaitzak landatzeko ekimena, eta aurten erre-pikatzea erabaki dute. Ibarraundi museoaren ekimena da hori, eta herritarrek oso harrera ona egin zioten.

GURASOAK ETA UMEA
Lehenik eta behin, Ibarraundiko arduradunak 2006an seme-alabak izan zituzten gurasoekin harremanetan jarri ziren zituzten asmoak azaltzeko.

Gurasoek begi onez ikusi zuten asmoa, eta Ibarraundikoek aurrera egin dute erabakita-



SENITARTEKOAK LAGUNTZEN Senitarteko eta gurasoek gustura esku hartzen dute ekimenean. Argazkian, iazko landaketa.

IBARRAUNDI

koarekin. Hala, 2006an Eskoriatzan jaiotako 36 umeen izenekin zuhaitz bana landatza erabaki zuten. Hain zuzen ere, 19 neskatalik dira eta 17 mutilak.

Iaz hainbat zuhaitz landatu dituzten Aingeru Guarda inguruan. Eta aurten ere inguru bera aukeratu dute horretarako. Bestalde, aurten, berrikuntza mo-

duan, urkiak landatu dituzte. Ibarraundikoek azaldu digute urkia dela kutsadura ondoen xurgatzen duena, eta horregatik aukeratu dutela zuhaitz hori.

Iaz jaiotako umeen guraso eta senitarteko ugari batu dira Aingeru Guardan zuhaitz horien landaketa ikustera eta udal langileei babes ematera.

EUSKARA > 'ZATOZ EUSKARAZ' KANPAINA

Administrazioa euskaraz jotzeko eskaera egin dute

Udaleko Euskara Zerbitzuak kanpaina egiten dihardu herritarrek Udalera euskaraz jo dezaten

I.B.> ESKORIATZA

Udaleko Euskara Zerbitzuak asteon eskuori bat banatu du etxeetxe. Mankomunitateko euskara zerbitzuek bultzatutako *Zatoz euskaraz* kanpainaren barruan, Eskoriatzako Euskarra Zerbitzuak herritarrei esku-tidie zinegotziekin eta udal langileekin euskaraz egiteko: "Herritarron eskubidea dela-koko, batetik; eta euskarari laguntzen diogulako, bestetik".

UDALEKO %83K EUSKARAZ

Aditzerako eman du, baita ere, 2006an Eskoriatzako Udaleko langileen %83k euskaraz zekitela; 1990ean, berriz, %23k bakarrik zekiten. Biztanleei dagokienez, aldiz, 1981ean %48 ziren euskal hiztunak eta 2001ean, %59.

Era berean, alderdi politikoek eskatu diete hautagaia euskaldunak izateko.



LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Leintz Udal Euskaltegikoak sagardotegian

Leintz Udal Euskaltegian fin ibiltzen dira, batzuk euskara ikasten eta beste batzuk euskara irakasten. Baino dirudienez beste gauza batzuk ere ikasten dituzte, edo horretan dihardute. Hala jakinarazi digute, behintzat, Legorretako Aulia sagardotegikoek.

Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako euskaltegietako 29 lagun Legorretako sagardotegi horretara joan zen afaltzera, eta, ondo afaltzeaz gain, kantuan ibili ziren ia atseden hartu barik.

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

OSPAKIZUNA

Aingeru Guarda eguna ospatu zuten

Ibiltarien aldeko
meza esan zuen
parrokoak Aingeru
Guarda ermitan

I.B.> ESKORIATZA

Atzo, eguna, Aingeru Guarda eguna ospatu zuten izen bereko ermitan. Jesus Ortiz de Urbina parrokoak esan zuen meza ibiltarien alde, Aingeru Guarda ibiltarien patroia da-eta.

ERRETIRATUREK KONPONDUTA

Hain zuzen, urtebete egin du herriko hainbat erretiratuk ermita konpondu zutenetik. Eta haiei esker, urtean birritan egiten dute meza Aingeru Guarda ermitan.

EMAKUMEAK

Emakumeen Egunarekin lotutako ekintzak

Erretiro aurreratuaren gaineko berbaldia eta txokolate-jana egingo dituzte hilaren 8an

I.B.> ESKORIATZA

Eguenean, hilaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat ekintza izango dira udalerrian.

*Aurre-erretiroa, bizitzarri bat leloa daukan berbaldia egingo dute Ibarraundin, 18:00etan. Horren ostean, Oihulari Klownek *klownek klu* egingo ditu.*

Bestalde, Inkernu tabernan txokolate-jana egingo dute, 18:30ean.



Jose Mari Agirre Zenitagoia > Margolaria

"Olioak margotzen 8 urterekin hasi nintzen; ordutik ez dut utzi"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Jose Mari Agirre Zenitagoia margolari beteranoak *Aurpegi indartsuak* erakusketa jarri du Inkernu tabernan. Agirrek ibilbide luzea dauka margolaritzan, eta, besteak beste, Eskoriatzan hilabete bukaeran egingo duten aire zabaleko margo lehiaketa antolatzan dabil.

Beti ikusi zaitugu margotzen.
Noiz zaletu zinen, oso txikit?

Bai. Oso txikitatik marrazten dut. Izan ere, 8 urterekin olioak margotzen hasi nintzen. Horren ostean, Simon Arrieta bergararraren eskolara joan nintzen, Okinarekin ere ikasi nuen... Maisu onak izan nituen Bergaran.

Gerora Arte Ederrak ere egin zenituen, ezta?

Bai, gerora, lanean nenbilela, Arte Ederrak egin nituen nire kontura. Batez ere, titulua eskuratzeko egin nituen ikasketa horiek. Oinarria Bergarako mai-suekin hartu nuen, eta gero, nire kontu ikasten aritu naiz. Hala ere, oraindik nire burua Bergarako eskolako kidetzat daukat.

Hain zuzen ere, jende askoren irakaslea izan zara...

Bai. Arrasaten bizi nintzenean, Makatzena auzoan margo eskolak ematen nituen. Arratsaldeetan eta asteburuetan izaten ziren eskolak, eta jende ugari pasa zen handik. Horrez gain, Arrasaten Kutxak zeukan lokaletan, batzokian, Aramaiko udaletxe-an, Aretxabaletan... 400 bat ikasle izan ditut guztira. Erakusketei dagokienez, lanak erakusgai jarri ditut Valentzian, Donostian, Gasteizen, Arrasaten, Italian, Salamanca eta beste herri batzuetan.

Egunotan Eskoriatzako aire zabaleko lehiaketa antolatzen zabitza...

Bai. Ibarraundiko ordezkariek niregana jo zuten, eta epaimahaia osatuko duten zazpi aditurek dagoeneko esan dute etorriko direla. Hilaren 25ean egingo dugu, eta lehen aldia da herrian halako lehiaketa egiten dena.



Argazkian, Jose Mari Agirre Zenitagoia Inkernu tabernan ikusgai jarri duen lanetako batekin.

IKER BARANDIARAN

"Bergarako irakasleekin ikasten hasi nintzen, eta nire burua hango eskolakotzat daukat"

"Debagoieneko herri askotan margo eskolak eman ditut; 400 bat ikasle izan ditut"

Zer-nolako margolariak daude Eskoriatzan?

Astero, Amuskako emakumeak margotzeko batzen dira. Horrez gain, txikitatik nire ikasle izandako Aitor Lajarinek arrakasta handia du gaur egun. Egunotan

"Oso txikitatik nire ikasle izan den Aitor Lajarinek ospe handia hartu du atzerrian"

"Kirolarien espresso gogorrak batu ditut 'Aurpegi indartsuak' erakusketan"

AEBetan eta Finlandian erakusketak jarri ditu; eta Artiumek haren lan batzuk erosi ditu.

Urte hauetan guztieta mota askotako lanak egingo zenituen, ezta?

Bai. Denetatik egin dut: klasikoa, impresionista, minimalista... Denbora luzean esperimentatzen ibili ostean, figurazioa egiten hasi naiz berriro. Baino, betiere, aldi berean mota askotako lanak egitea gustatzen zait. Ez naiz estilo bakarrera mugatzen. Garrantzitsuena da margotzen disfrutatzea; eta hala jarraitzen dut; oso gustura nago.

Eta zer motatako lanak daude Inkernu tabernan jarri duzun erakusketan?

Aurpegi indartsuak izena jarri diot. Kirolarien aurpegi eta espresso gogorrak batu ditut. Serie bat da, eta lan gehienetan lehen planoak egin ditut, olio eta akrilikoa nahastuta.

**MIRENTXU
TABERNA**

Kafe goxoa hartzeko

Tel.: 943 71 41 67

HIRIGINTZA > KULTURA, KIROL ETA GIZARTE AZPIEGITUREN LANEI JARRAIPENA EGIN DIEGU

Azken urteotako herriko proiektu handienak aurrera doaz

Gizarte etxearen inguruari etekin handiena ateratzeko proiektu paisajistikoa egiten dabilta

Erreka bideratzeko lanak bukatzean daude, baina atzerapen pixka bat daramate

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA
Herriko hainbat puntuatua dihardtute lanak egiten, eta haiei begiratua egiteko momentu egokia da.

GIZARTE ETXEA
Gizarte etxearen proiektua da azkeneko urteotan herrian egin den proiektu garrantzitsuenetako, garestienetako eta ika-mika asko sortu dituenean. Urrian hasi zituzten lanak, eta martxa onean doaz. Udaleko

arduradunek espero dute urte amaierarako bukatzea lanekin eta datorren urteko udaberrian martxan jartzea hango jarduerak.

Udal Liburutegia, osasun etxea, auditorioa, eguneko zentroa, erretiratuen egoitza eta etxebizitza tutelatuak egongo dira hantxe. Bestalde, aipatzeko da gizarte etxearen inguruan geratzen den lur-zatiari etekin handiena ateratzea dela Udalaren asmoa eta horretarako paisai-

proiektua egiten diharduela Jakoba Rekondo adituak. Apirilera bukatuko du proiektu hori idazten. Horrela, Udalaren nahia da lan guztia batera amaitzea.

EGUZKI AUZOKO ERAIKINA

Eguzki Auzoan ere badihardute lanetan. Hantxe, 20 etxebizitza tasatu eraikitzen dabilta. Irailean jakinarazi zituzten etxebizitza horien jabe izango direnen izenak eta urrian ekin zieten lanei. Sinatutako kontratuaren arabera, 2008ko ekainean jasoko dituzte giltzak etxejabeek. Etxebizitzez gain, kirol eta aisialdi jarduerara zuzenduta egongo da beheko solairua. Batetik, gimnasioa eta aldagelak egingo dituzte; bestetik, hantxe kokatuko dute gaztugunea.

INTERPRETAZIO ZENTROA

Herriko kulturari eta ondareari dagokion proiektu garrantzitsua ere badu eskuartean Udalak. Telleria etxearen, hamar etxebizitza eraikitzeaz gain, beheko solairuan larrugintzaren gaineko interpretazio zentroa egingo dute. Orain dela aste batzuk hasi dira eraikina eraisten.

ERREKAKO LANAK AMAITZEAR

Urte askotako tira-biren ondoren, 2006ko urtarilean hasi zituzten erreka bideratzeko lanak. Moyua eraikuntza enpresak dihardu horretan eta gainezkabidea eraikitzen hasi ziren; iazko abuztu amaieran, Herriko Plazako lanekin hasi ziren, erreka bistaratzea. Lanok pixka bat atzeratutu doaz, baina, amaitzear daude.



SAGASTI Eraikinaren hiru solairuak jaso dituzte.



ERREKA Hilabete gutxi barru bukatuko dituzte lanak.



ETXEBIZITZAK Eguzki auzoko etxebizitzen lanak martxa onean doaz.



TELLERIA Oraingo astean bertan eraitsi dute eraikina.

bere ustez



Jone Lete

Bi orratzei
urre
hartuz

Aurreko udan erabaki nuen eskumuturrean neuzkan bi orratzak, nire zaindaria, alde batera lagatzea. Hainbeste estresatzen gaituen erlojuetan etxean lagatzea, hain zuen ere. Izan ere, erlojuaren menpe bizi nintzela konturatutu nintzen. Orain hara joan, ordu honetarako hona etorri... Eta konturatzen nintzen erlojueta edukita ere sekula ez nintzela ordurako iristen.

Abiadura bizkorrean bizi nintzen eta dena bi orratzen menpe egiten nuela onartu.

**"Erlojuan niri
gaina hartu
urretik ni bere
urrean jartza
erabaki nuen"**

Gizartearen gehiengoa bezala. Nik ez dut, ordea, abiadura gehiegia maite, nahiago dut gauzak lasai egitea, denborarekin eta patxadaz. Egun ez da erraza hori egitea, baina erlojuak niri gaina hartu uretik ni bere urean jartza erabaki nuen.

Egia esan beti ez da posible hori egitea, izan ere, bete-behar batzuk bidaude ordua kontutan hartu eta errespetatu behar direnak, lana, esaterako. Kasu horretan zuk hartu behar diozu aurre erlojuari eta ez erlojuak zuri. Baina, bi orratzen menpe bizitza baino iruditzen zait hobe dela lasaiago eta ahal denean ordulari gabe bizitza. Ni ahalegintzen naiz hori egiten, eta egia esan batzuetan zaila izan arren, uste dut posible dela.

LARREA
TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta
isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga

**Zoruen kutxilatu
eta
bernezatzea**

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Tomas Gezalaga

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

**Apainketarako eta
industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak**

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA



ASENTZIO Asteon hasi dira Asentzioko urbanizazio lanekin.

LARRAITZ ZEBERIO

ASENTZIO > 'INTXORTAKO ATEA' ESKULTURA JARTZEKO LEKUA PRESTATZEN ARI DIRA

Plazatxoak, aparkalekuak eta mahaiak prestatzen

Hilaren 25erako Asentzion egingo den 'Intxortako Atea' ekitaldirako prest egon beharko lukete plazatxoak, lau aparkalekuak eta mahaiak

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA
Asteon mugimendua ikusi dugu Asentzioko sarreran. Beharginak hilaren 25ean leku horretan egingo den *'Intxortako Atea'* ekitaldirako lekua atontzen ari dira. Plazatxo bat, lau autorendako aparkalekuak eta egurrezko hiru mahai jarriko dituzte bertan.

Proiektua Toledo Taldearena da eta 88.320 euroko aurrekontua du. Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko ditu lanok.

Lanak egiten ari diren leku horretan zegoen kokatuta duela 70 urte Euzko Gudarostea defentsa lerroa, eta haren orioigarri bertan inauguratuko dute hilaren 25ean Juan Jose Arangurenren *'Intxortako Atea'* eskultura. "Eskulturak 80 tona pisatzen du eta zazpi metro garai da. Estruktura sendoa behar du", esan digu Toledo Taldeko arkitekto Kristina Zarzabeitiak. "Zimenduzko zapata handi bat prestatzen ari dira langileak eguna-

notan". Zarzabeitiak GOIENKARI azaldu dio eskultura jartzeko kareharrizko plataforma handi bat egin behar dutela. Argiak ere jarriko dituzte. Foku handi bat behetik gora eskultura argituko duena.

APARKALEKUAK ETA MAHAIK
Errepidearen beste aldean, ezker aldean Asentziorako noranzkoa kontuan hartuta, aparkalekuak egingo dituzte, lau bat autorendako. "Asentziora jende asko joaten da egun pasa eta pentsatu dugu inguru horretan egurrezko hiru bat mahai jartzea", azaldu du Zarzabeitiak. Lanok amaituta beharko dute hilaren 25erako.

Edurne Eraña bergararraren erakusketa

Edurne Eraña margolari bergararrak pintura erakusketa jarri du Espaloia Kafe Antzokian. Martxoaren 8ra arte egongo dira margolanaikusgai.

Erañak hogei bat lan zintzilikatu ditu kafe antzokian. Ederrak dira guztia ere. Erakusketa denetarik dago: paisaiak, natura hilak, erretratuak, animaliak mugimenduan...

Eraña margolari trebatua da eta hori nabaritu egiten da haren margolanetan. Ikusi besterik ez dago!



L.Z.

UPELTEGIETARA IRTEERA > MARTXOAREN 10EAN

Arabar Errioxako upeltegiak bisitatza joateko irteera

Autobusa, bi upeltegieta bisita, hamarretakoa eta bazkaria, 45 eurotan

gia ikusteko. Ordu eta erdi beranduago Samaniegoko Baigorri epeltegiari egingo diote bisita. Bertan, gainera, hamarretako txiki bat egingo da.

GUARDIAN BAZKARIA

Antolatzaillek aurreikusten dute 13:00etan Guardian izaeta. Txikiteoa egingo da bertan jarraian, 14:30ean, Hotel Marian bantzuketako.

Irteera honetan parte hartu nahi dutenek Espaloian eman behar dute izena. Prezioa 45 eurokoa da. Plaza mugatua dira.

MUSIKA ESKOLA > SEI IKASLE PIANO JAIALDIAN IZAN ZIREN

Brontzezko eta zilarrezko dominak ekarri zitzazten

Lorea Larrañaga irakaslea pozik dago ikasleek Andoainen egindako lanarekin

SEI PIANO-JOLE GAZTE

Gazteenek lau eskutara jo zuten pianoa Andoainen. Alde batean, Nahia Otxoa eta Ibane Zubiaurre aritu ziren, eta, bestetik, Maria Sarasua eta Maialen Zubiaurre. Bi bikoteek diploma eta brontzezko domina jaso zitzuten.

Maitena Mañarikua eta Iñaki Beristain, berriz, nagusiagoak dira eta bakarka jo zuten pianoa urtero egiten den jaialdian. Ondo aritu ziren eta biak diploma eta zilarrezko domina ekan zitzuten Elgetara.

> MARTXOAREN 8A

Elgetako Udalak txokolate-jana antolatu du martxoaren 8rako Espaloia Kafe Antzokian

Txokolate-jana egingo du aurten Elgetako Udalak martxoaren 8a ospatzeko. 50 bat lagunendako prestatuko dute txokolate beroa eta Elgetako emakume guztiek daude ekitaldi horretara gonditututa. Espaloia Kafe Antzokian egingo dute txokolate-jana. Hitzordua arratsaldean da, 17:30ean.

> CORREOS

Zerbitzu hobea emateko helbide zuzenak eta osorik emateko eskaera egin du Correos-ek

Zerbitzu hobea eman eta gutunen banaketarekin arazorik ez izateko, herriko Correos zerbitzutik helbideak eguneratzeko eskaera egin dute. Hala, behar den lekuetan helbide zuzenak emateko eskatzen digute eta osorik eman behar direla jakinarazten zaigu. Herriko postariari lana asko erraztuko diogu horrela.

> FUTBOLEAN DERBIA

Aurkari gogorra du asteburu honetan Elgetak, Antzuola liderra hartuko du-eta Unben

Norgehiagoka zaila du aste bukaera honetan Elgeta Futbol Taldeak. Antzuola izango du aurkari zapatuan. Talde gogorra da Antzuola, uneotan sailkapeneko liderra eta mailaz igotzeko aukera asko dituen taldea da. Horregatik, jarraitzaileen babes guztia beharko du Elgetak zapatu honetan, 15:30ean, Unben.



ENTRENATZEN Raul Perez, Markel Arriolabengoa eta Bingen Lopez euren XC bizikleten gainean, Aramaioko Andra Mari ermita inguruan.

U.M.

KIROLA > MENDI BIZIKLETA

Hiru aramaioar lehiatuko dira mendi bizikletako bi txapelketatan

Bingen Lopez eta Raul Perez aurten lehiatuko dira lehen aldiz, kadete mailan

Markel Arriolabengoa, berriz, bigarren urtez lehiatuko da, kasu horretan gazte mailan

UBANE MADERA > ARAMAIO

Gogor entrenatzen dabilta Bingen Lopez, Raul Perez eta Markel Arriolabengoa aramaioar gazteak mendiko bizikletan. Izan ere, martxoaren 11n jokatuko dute aurtengo denboraldiko lehenengo proba, Arazurin (Nafarroan). Sei kilometroko zirkuitua izango dute han zain, eta, bakoi-

tzaren mailaren arabera, buelta kopuru jakin bat eman beharko diote. Bingen Lopezek eta Raul Perezek eman beharko diote Markel Arriolabengoa baino buelta gutxiago (hiru), maila bat behereago daudelako, kadete mailan.

Oro har, bi txapelketatan lehiatu behar dute hiru kirolarietako aurtengo denboraldian: bate-

tik, Nafarroako eta Euskadiko txapelketan (Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Araba), eta, bestetik, Euskadiko Openean; "hori Euskadikoa da. Baino etortzen dira Iparaldekoak eta berez edozein etor daiteke", argitu du Markel Arriolabengoa.

Zirkuitu horietan batzen dituzten puntuen arabera lortuko dute, denboraldia bukatzen denean, sailkapen orokorrean postu bat. Sailkapen horretan, aurreneko hamabostek hamar euroko saria irabaziko dute; lehenengo hirurek apur bat gehiago. Ikusten den moduan, sari sinbiloak dira. Izan ere, profesional edo elite mailara salto egiteko 23

urtetik 30 urtera arte izan behar dute kirolarieki. Beraz, oraindik aramaioarrei bide handitxo geratzen zaie. Baino hori oso argi dute: "Gehienbat, gustatzen zai-gulako gabiltza, zaletasun gisa".

DORLETAKO AMA ETA LIZARRALDE

Lopez, Perez eta Arriolabengoa lehiatuko dira Aretxabaletako Dorletako Ama taldearekin eta Lizarralde Kirolak-ek babestuta. "Arrasate, Aretxabaleta eta Gatzagakoak dira taldeko bestetako. Guztira, hamar gara", dio Arriolabengoa. Eta, duda barik, hamarreko talde baten hiru lagun Aramaikoak izatea seinale ona da herriarendako.

VI. ipuin lehiaketa antolatu du Txirritola Euskara Elkarteak; dei berezia egin die parte hartzeko DBHkoei

U.M. > ARAMAIO

Lehen Hezkuntzako (LH) lehen ziklotik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) osoko gazteei dei egin diente VI. Txirritola Ipuin Lehiaketan parte hartzeko. Idazlanak martxoaren 15a baino lehen eraman beharko dituzte Udal Liburutegiria.

Sariak martxoaren 29an bantu dituzte, 19:00etan, kultura etxeen. Gaztetxoendako (lehen eta bigarren mailak) 70 euroko sariak dituzte; 80 euro bigarren ziklokoendako (3-4 mailak); 90

KULTURA > IPUIN LEHIAKETA

Txirritola Ipuin Lehiaketarako epea martxoaren 6ra arteko da

hirugarren ziklokoendako (5-6 mailak) eta 130 eta 100 euro DBHko lehen eta bigarren irabazleen-dako. Horrez gainera, partehartzaile guztiak jasoko dute diploma bana.

ESKOLAREKIN ELKARLANEAN

Berezitasun bat badu aurten lehiaketa: LHko lehen eta bigarren mailakoek taldeka landuko dute ipuina, irakasleek lagunduta.

Bestalde, antolatzaileek dei berezia egin nahi diente DBHko (13-16 urte) gazteei ipuin lehiake-

tan parte har dezaten, "DBHkoak erakarri nahi ditugu, oso zaila izaten da-eta eurek parte hartzea. Azkenean beti parte hartzen dute berdinak", diote Txirritolakoek. DBHko maila horretan, ipuinak baloratzeko orduan, epaimahaia kontuan hartuko du idazlanak gaur egungo Aramaikoerrealtatean girotzea. Hau da, idaztea Aramaioarekin lotura zuzena duten gaien gainean, adibidez, Abiadura Handiko Trena eta gaztetxea aipatu dituzte antolatzaileek.

OINARRIAK
Edozelan ere, berez, ipuinaren landu beharreko gaia librea da parte hartzaile guztiendako. Era berean, San Martin Eskolan ikasten ibili ez arren, Aramaion bizi den edozein neska-mutikok parte har dezake.

Hori bai, lanek gutxieneko luzera behar dutela zehaztu dute antolatzaileek: LHko 2. eta 3. ziklokoentzat bi orri eta hiru orri DBHkoendako. Gaztetxoendako, berriz, ez dute halako araurik zehaztu.

EMAKUMEEN EGUNA

Datorren astean, emakumeak protagonista

Astelehenetik barikura arte antolatu dituzte ekitaldiak

U.M. > ARAMAIO

Emakumeen Nazioarteko Eguna badatorrela-eta, Itur Zuri emakume elkartea lau eguneko egitaraua antolatu du.

Zinema emanaldi batekin hasiko dute egitaraua hori; astelehenean 18:00etan, kultura etxeen egin dute hitzordua. Pedro Almodovaren *Volver* filma emango dute. Martitzenean, berriz, hitzaldia izango dute, hori ere 18:00etan, kultura etxeen. Osasuna, loaren arazoak eta menopausia aztertuko dituzte.

Eguaztena libre utziko dute, atsedenerako. Eta egunean, nazioarteko zenbait dantzaren saioa ekarriko dute Aramaiora. Hori ere kultura etxeen izango da, 18:00etan hasita. Saioaren ostean, gainera, nazioarteko zenbait gozo dastatzeko emango dituzte.

Eta barikuan bingo-afaria egingo dute, eskolan. 19:00etan hasiko dute bingoa (opari eta guzti). Afarirako izena eman behar da, ohiko lekuetan (15 euro). Menestra, erredondo onddo saltsarekin eta tutuoxak kremarekin da menua.

> BERTSOLARITZA
Hiru herrikide, bihar, Araiaiko kanporaketan

Bihar, zapatura, Arabako Bertsolari Txapelketako finala laurdenak jokatuko dituzte, Araian. Hiru aramaioarrek dute hitzordua: Andere Arriolabengoa eta Manex Agirrek (aurrekoan gaixotu egin zen) bertsolari eta Garazi Erizek gai-jartzaile. 22:30ean izango da saioa, sagardotegian.

> UDALA
Administrazio orokorreko teknikari lanpostu deialdia

Udalak hutsik duen administrazio orokorreko teknikari lanpostua bete gura du. Eta horretarako, lehiaketa-oposizioa antolatu du. Hala, bere burua aurkezteko interesa daukanak martxoaren 13a baino lehen eman beharko du izena. Udaletxeen duten eskaera orria bete behar da.

SORGINAK > EMAKUMEAREN EGUNA

Arabako Elosu herrikoekin ospatuko dute Emakumeen Nazioarteko Eguna 'sorginek'

Iaz elkar ezagutu zuten bi koadrilek, eta, sortutako giro bikainari esker, batera ospatu gura dute aurten ere

MIRARI ALTUBE > GATZAGA
Ohiturari jarraituz bazkaria eginda ospatuko dute Sorginak elkar-teko emakumeek nazioarteko-

eguna. Martxoaren 10ean izango da, zapatua, baina aurten ez dira bakarrik egongo; Elosuko emakumeak izango dituzte lagun.

ELOSUAREN DEIA

Iazko Emakumeen Egunean egin zuten bat bi koadrilek, Gatzaga-koak eta Elosukoak, Gure Ametsa jatetxeen. Jangela berean egon ziren, eta bien artean giro bikaina sortu zuten: kantuan egin, dantzak eta jolasean ere



ELOSUARRAK Arabako Elosu herriko emakume koadrila iaz Gure Ametsan. M.A.

jardun zuten. Orduko gogoan elosuarren deia jaso dute *sorginak* egunotan, eta martxoaren 10ean batera ospatzekotan geratu dira. "Hasita gaude gertaketa lanetan, eta iaz izandako giroa sortu gura dugu aurten ere. Hortaz, jolasak eta gehiago izango ditugu", adierazi digu Mariatxen Arantzabal kideak.

ISUSKIAK, DANTZA ETA JOLASAK
Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago, eta Labidea denda-ra hurreratu behar dute herriko emakumeek. Gure Ametsa jatetxeen egingo dute bazkaria, eta ohiturari jarraituz isuskiak banatu dituzte taldeko kideen artean: "Zozketa bidez hautatzen dugu zeini eman, baina gehienak dagoeneko banatuta ditugu. Hortaz, hartzeko daudenei emango dizkiegu", argitu digu Arantzabalek.

Ondoren dantza eta jolasak etorriko dira, eta trikitilariak izango dituzte lagun. "Urtero urtero gurekin egon diren musikariei beste hitzordu bat sortu zaie, eta beste trikitilari batzuk izango ditugu; trikitilari profesionalak dira, gero", esan du Arantzabalek. Osagai horiekin guztiek jai giroa ziurtatuta dago.

> ZIRKULAZIOA

Gure Ametsa jatetxe inguruan bertan behera utzita dagoen autoa kentzeko dei egin du Udalak

Gure Ametsa inguruan dagoen atzerriko ibilgailua abandonatuta dagoen salaketa jarri zuten ertzainek udaletxeen. Mercedes Benz markakoa da, eta jabea ezin izan dute identifikatu. Hala, otsailaren 27an argitaratutako GAOn 15 eguneko epea eman zitzaien kentzeko jabeari; bestela, Udalak kenduko du hondakin gisa.



JOSETXO ARANTZABAL

Dorletako Ama taldekoak Gatzagan

Joan zen zapatuan, otsailak 24, aurkeztu zuen Dorletako Ama txirrindulari taldeak denboraldia. Taldeko txirrindulari guztiak elkartu ziren Dorletako santutegian eskaintza egiteko zaindari duten ama birjinari. Gero Leintz Gatzagara joan ziren, eta argazkiak atera eta aurkezpen ofiziala egin zuten.

jose arana

Udal Haur Eskola *0-3 Urte*

Aranburuzabala, 1

07-08 IKASTURTERAKO MATRIKULA EPEA ZABALIK
OTSAILAREN 26tik MARTXOAREN 9ra

943 71 31 58
informa zaitez

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero,
aurrez telefonoz abisatu.



MENDIKO DUATLOIA > EUROPAKO TXAPELKETA

Antxintxikako hiru ordezkari Ciudad Realen

Domekan egingo dute Ciudad Realen Europako mendiko duatlooi txapelketa; Antxintxikakoak gonbidatuta doaz

XABIER URTZELAI> BERGARA

Europako lurrardeetako selekzioz beteta egongo da domekan egingo duten Europako Txapelketa. Eta, antolatzaleek gonbidatu dituzten taldeen artean egongo dira Antxintxika-Algon taldeko hiru atleta, Miguel Vazquez arrasatearra, Aitor Rementeria berargarra eta Xabi Ugarte tolosarra. Rementeriak azaldu digu zer dela eta gonbidatu dituzten txapelketa horretara: "Joan den urtean ere taldeko bost lagunek hartu genuen esku proba horretan. Eta, bost lagun horietatik hiruri gurpila zulatu zitzagun. Kontua da, arazo hori izango ez bagenu taldeka bigarren sailkatuko ginatekeela, eta horregatik erabaki dute antolatzaleek gu gonbidatzea".

MALDA HANDIKO ZIRKUITUA

Domekako lasterketari dagokionez, Rementeriak proba gogorra aurreikusten du: "Hori da esan dugtena. Lehenengo hamar kilometro egingo ditugu mendian korrika, eta gero beste hogeitako kilometro mendiko biziak. Zeasmorekin doazen ere galduen diogu Bergarakoari: "Joan den urtean Xabi Ugarte hamargarren sailkatzen proba horretan, eta aurten ere abendutik dabil proba hori prestatzen. Hala, Miguel eta biok ahal duguna egitera joango gara, taldeka lan txukuna egiteko asmoarekin". Txapelketa horretan, talde bakotzeko hel-



ASTURIASEN Antxintxikako Patxi Torres, Candaseko proban, otsailaren 18an. J.A.

mugara iristen diren lehenengo hiru sailkatuen denborak hartzen dituzte kontutan. Hala, Antxintxikakoek ez dute hutsegitarako tarterik, joan den urtean baino zorte hobeak beharko dute.

DENBORALDI HASIERA

Oraingo asteburuan, Europako Txapelketarekin batera hasiko dute Euskal Herrian duatloio denboraldia. Hori horrela, domekan Antxintxikako eta Oñatioko Triatloio Taldeko hainbat atleta izan-

go dira Lasarteko duatloian, denboraldia hasteko gertu. Hurrengo proba Basaurin egingo dute, eta bi lasterketa horiek hartuko dituzte kontutan Spainiako Txapelketa Euskadiko selekzioa osatzeko.

OÑATIKOA, MARTXOAREN 17AN

Ibarrean, baina, martxoaren erdialdean izango dugu hitzordu garrantzitsuetako bat, hilaren 17an egingo dute-eta oñatiarrek Oñatioko duatloia.

FUTBOLA > PREFERENTEA

Etxetik kanpora, hiru puntuen bila

Ordizian jokatuko du Aretxabaletak, Pasaian Aloña Mendik eta Mutrikuko futbol zelaian lehiatuko da Mondra

X.U. > ARETXABALETA

Joan den astean etxeen erakutsitakoa baino puntu-gose handiagoa erakutsi beharko dute Aretxabaletak eta Mondrak asteburuan. UDAK 2-2 egin zuen Berioren kontra, eta emaitza bera erdietsi zuen Mondrak hamaikagarren lekuaren dagoen Touringen kontra.

UDAK ahalegina egin behar du azkenaldian epaileekin izan dituzten gertaerak ez errepikatzeko. Azken bi asteotan zelaian agintzen dutenek nabarmen egin dute Aretxabaletako-

en kontra, baina jakin egin behar da bihotza bero baina burua hotz izaten. Hala, Reciorren mutilek laugarren lekuaren dagoen Ordizia izango dute bihar aurrean (16:00, Altamira).

Mondrak zaitasunak ditu bosgarren postutik gora egiteko. Azkenaldian, partidu txukunak erdipurdikoekin tartekatzen dituzte, eta horrek aurrea egitea galarazten du. Jaitsiera postuetan dagoen Mutriku izango dute kontrario domekan (16:30, San Miguel).

PASAIA ERE HORTXE-HORTXE

Mondraren kontrarioa zaitasunetan badago, Aloñak bihar aurrean izango duen Pasaia ez dago askoz ere hobeto (16:30, Don Bosco), bi puntura ditu-eta jaitsiera postuak. Joan den astean oñatiarrek ondo bete zituzten etxe lanak (1-0). Hori, lan hori etxetik kanpora borobilteza falta da.



MUTRIKU Mondraren asteburuko kontrarioa, Aloñaren zelaian. JOSETO ARANTZABAL

'Asteleheneko Goienkaria', Debagoieneko kirol taldeekin

Bergara Kirol Elkarteko saskibalo saila 06-07 astelehen honetan, Asteleheneko Goienkaria-rekin

Debagoineneko kirol taldeen posterrak argitaratzen dihardu astero Asteleheneko Goienkaria-k.

Oraingo astelehenean, martxoak 5, Bergara Kirol Elkarteko saskibalo sailarenak argitaratuko ditugu. Saileko bost taldeen argazkiak eta horietako bat, senior mailako mutilena, handiz eta jokalarien izen-abizenak jasoko dituzu, erdi-erdian, koloretan.

Ez galdu aukera eta eskuratu Asteleheneko Goienkaria.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa





ARMENDARIZ Suedian eta Norwegian sei txakurrekin lehiatuko da Eskoriatzako.

ITOITZ ARMENDARIZ

MUSHING PROBA > MUNDUKO TXAPELKETAN LEHIATUKO DA ITOITZ ARMENDARIZ

"Azken hiru asteotan Norwegian eta Suedian ondo entrenatu gara"

Itoitz Armendariz eskoriatzarrak datorren asteburuan Suitzan egingo duten Munduko Mushing Txapelketan hartuko du esku

XABIER URTZELAI > ESKORIATZA

Egin duen negu epelaren aurrean, Itoitz Armendariz eskoriatzarrak eta Iker Ozkoidi nafarrak batera eta bestera ibili behar izan dute txakurrak entrenatzeko. Ez da urte ona izan, besteak beste, bertan behera geratu da Pirinioetan egingo duten Pirena proba, eta orain, datorren astean egingo duten Munduko Txapelketa rako dabilta prestatzen. Horretarako, euskal ordezkarriak Norwegianaino joan ziren orain dela hiru aste. Aste barruan, baina, Suedian harrapatu dugu Armendariz: "Munduko proba Suediako iparraldean izango da, eta entrenatzera etorri gara. Txapelketak hiru egun iraungo du –martsioak 9, 10 eta 11–, eta esprint modalitatean jardungo dugu. Ni sei txakurrekin ibiliko naiz eta Iker, berriz, zortzi txakurrekin lehiatuko da".

Europako iparraldean bizi diren lehiakideekin alderatuta, Euskadi Dogs Team taldeko kideek desabantaila nabarmena dute, apena izan dute-eta entrenatzeko baldintza egokirik: "Txakurrak nahiko ondo daude, baina denboraldiaren sasoi honetarako euren prestakuntzak askoz ere aurreratuago beharko luke. Hala, orain gauden lekuak elur

ona dago, baina pisutsu samarra. Lasterketa iparralderago izango da, eta han izotz gehiago egongo da, eta elurra gogorrako. Biher –atzo– bertan abiatuko gara proba egingo duten lekuak, txapelketarako abiadura lantzena".

Armendariz eta Ozkoidi ez dira Suediaraino denbora pasa-tzera joan, aurrealdean gura dute ibili, baina urte xelebre honen aurrean, ezin gauza handirik aurreratu: "Lasterketako lehenengo txandan ikusiko dugu non gauden eta zer egiteko aukera dugun. Ordura arte ezin genezake ezer esan, ez dugu-eta inongo erreferentziarik".

ESANAK

"Txapelketako lehenengo txandan ikusiko dugu non gauden eta zer egiteko aukera dugun"

Itoitz Armendariz > Musherra

EUROPAKO, JARRAIAN

Aurten Alemanian egin behar zuten Europako txapelketa, baina elur faltagatik atzeratua egin zuten hitzordu hori. Hala, martxoaren 17ko eta 18ko asteburuan egingo dute proba hori, Norwegian: "Albiste ezin hobeña izan da guretako, Suediatik jarraian Norwegiania joan ahal izango garela, Europako Txapelketan parte hartzena".

> SASKIBALOIA Igoera faseko talde makalenetakoia izango du Mugarri Alkesak bihar aurrean, Iturripen

Igoera faseko aurreko postuetan dabilen Mugarri Alkesa Arrasate saskibaloitik taldeak Santutxuko (Bilbao) Ocaso Berrio Otxoa taldea hartuko du bihar, zapatua, Iturripen, 18:00etan. Santutxuarek hiru garaipen baino ez dituzte erdietsi, eta kuriosoa bada ere, hiru garaipen horietatik bi etxetik kanpo lortu dituzte. Hala, bilbotarrek lau aste daramatzate irabaztea zer den jakin barik, otsaila hasieran izan ziren-eta Urdanetari ezustekoa emateko gauza (63-67). Ordutik, Consmetalen, Baskoniaren eta Mapy.tv taldeen aurrean makurtu egin behar izan dira.

Arrasatekoie dagokienez, Mugarri Alkesaren bolada bilbotarren antzerakoa da, baina alderantziz. Hau da, Mugarri Alkesakoek hiru astez jarraian irabazi dute, otsaileko lehenengo asteburuan lider dagoen Consmetalak kontrario gogorregia zela era-kutsi zuenetik, alegia. Bolada on horrekin jarraitzea da asmoa.

> ESKUBALOIA Ford Mugarri Donibane Majesticen kontra ahaleginduko da etxeen, behingoz, irabazten

Ford Mugarriko mutilei gura baino gehiago ari zaie kostatzen partidu bat irabaztea. Hilabeteak daramatzate partidurik irabazi barik –nahiz eta askotan izan duten eskura garaipena–, eta biher izango dute bolada txar horrekin amaitzeko aukera. Hala, Euskadiko Txapelketa hasi eta lehenengo hilabeteetan egindako lan onari esker erosoa samar daude sailkapenean –seigarren postuan, hamasei punturekin–, baina ezin dira horrekin konformatu.

Lehen aurreratu moduan, Arrasateko biher (Musakola, 16:00) izango dute, azkenaurreko lekuaren dagoen Donibane Majestic taldearen bisitarekin, bolada txarrari agur esateko modua. Donibanekoak ez dira kategoria berrira Arrasatekoak bezain ondo molatzen, eta nekez eutsiko diote mailari.



JOSETXO ARANTZABAL

Domekan, trialsina Aretxabaletan

Gipuzkoako Trialsin Txapelketako hirugarren jardunaldia jokatuko dute domekan Aretxabaletan (10:30). Eta tartean egongo dira Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Arrasateko ordezkarri gazteak. Aurreko edizioetan moduan, ikusleek kirol hori probatu ahal izango dute; horretarako, bizikletak izango dituzte eskura.

**MAISUEN II. MAHAI FUTBOL TXAPELKETA
BTLS7 joko automatikoak**



www.ehmff.com
943 76 42 31 / 652776051

Saria: **Mercedes SE 400 edo 5.000 euro** txapeldunarentzat eta beste horrenbeste tabernarentzat (taberna bakoitzak zazpi jokalari)

Altsasu: Lurazpi Antzuola: Mox – Surpe Aretxabaleta: Haizea – Izotz – Kixkor Arrasate: Biona – Iturrioz – Equus – Udala Azpeitia: Korrale – Txarrantxa Beasain: Pott Bergara: Agorrosin – Avenida – Biko – Gaztetxea – Mitor Eibar: Balkoi – Hilbehera – Monteka Ermua: Carpediem – Xagua – Zabal Eskoriatza: Aldatz – Naira Etxarri Aranatz: Iturrieder Gasteiz: Iraudi – Parkesur – Sorginak – Txintxarri Oñati: Arrano – Ongi – Otamendi Ondarroa: 34 Pasaia: Kamio Urretxu: Berit – Florida – Gaztetxea

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Lehenengo maila
Zaragoza-Realta
Domeka: 17:00. La Romareda.

Preferente maila
Ordizia-Aretxabaleta
Zapatura: 16:00. Altamira.
Pasaia-Aloña Mendi
Zapatura: 16:30. Don Bosco.
Mutriku-Mondra
Domeka: 16:30. San Miguel.

Lehen erregionala
Bergara-Amaikak Bat
Zapatura: 16:30. Agorrosin.

Bigarren erregionala.
Igoera fasea
BTLS-Lazkao
Zapatura: 18:30. Ipintza.
Elgeta-Antzuola
Zapatura: 15:30. Eibar.

Bigarren erregionala.
Kopa txapelketa
Mondra-Urkia
Domeka: 16:00. Atxabalpe.
Eibartarrak-Aretxabaleta
Zapatura: 17:30. Unbe.

Ohorezko mailako gazteak. Igoera fasea
Aloña Mendi-Herrera S.
Zapatura: 15:30. Azkoagain.
Aretxabaleta-Betiz Gazte
Zapatura: 17:30. Ibarra.
Mondra-Kostkas Bihotza
Zapatura: 16:00. Atxabalpe.

Ohorezko mailako gazteak. Jaitsiera fasea eta Kopa
STO Tomas Lizeoa-Bergara
Domeka: 15:30. Berio.

Lehen mailako gazteak.
Igoera fasea
Arizmendi Aretx-Soraluze
Zapatura: 15:30. Ibarra.

Lehen mailako gazteak.
Kopa txapelketa
Arrasate-Bergara
Domeka: 11:00. Atxabalpe.
Zarautz-Antzuola
Zapatura: 16:00. Asti-Txiki.

Ohorezko mailako kadeteak. Igoera fasea
Bergara-Ordizia
Domeka: 12:00. Ipintza.
Eibar-Arizmendi Aretx.
Domeka: 15:30. Unbe.

Ohorezko mailako kadeteak. Kopa eta jaitsiera fasea
Urola-Arrasate
Domeka: 12:00. Argia.
Herrera Sp.-Aloña Mendi
Zapatura: 11:45. Herrera.

Lehen mailako kadeteak.
Kopa Txapelketa
Arizmendi Aretx-Illintxa
Zapatura: 12:00. Ibarra.

Ohorezko mailako infantilak. Txapeldunen fasea
Arizmendi Aretx-Reala
Zapatura: 10:30. Ibarra.

Ohorezko mailako

infantilak. Jaitsiera fasea eta Kopa

Aloña Mendi-Anaitasuna
Domeka: 11:30. Ibarra.
Arrasate-Elgoibar
Zapatura: 11:00. Atxabalpe.

Lehen mailako infantilak.
Igoera fasea
Bergara-Amaikak Bat
Domeka: 10:30. Ipintza.

Infantil txikiak. Kopa
Elgoibar-Arizmendi Aretx.
Domeka: 12:00. Mintxeta.

Kadete emakumezkoak
F11. Txapeldunen liga
Aloña Mendi-Lagun Onak
Zapatura: 10:00. Ibarra.
Touring-Arizmendi Aretx.
Zapatura: 15:00. Errerteria.

Zapatura: 12:00. Donostia.

Gipuzkoako ligako junior maila, emakumezkoak
Antigua-Eskoriatza
Zapatura: 16:00. Donostia.

Gipuzkoako ligako kadete maila, gizonezkoak
Ford Mugari-Bergara
Zapatura: 16:00. Arrasate.

Gipuzkoako ligako kadete maila, emakumezkoak
Eskoriatza-Bera Bera Zur.
Zapatura: 16:00. Intxaurtxu.

ESKUBALOIA

Euskadi Senior Maila
Ford Mugari-Donibane Maj.
Zapatura: 16:00. Musakola.

Emakumezkoak. Goren maila
Errioxako Unib.-Verkol Aloña
Domeka: 12:30. Logroño.

Emakumezkoak.
Euskadikadetemaila
Autob. Juanxtu-Verkol Aloña
Zapatura: 16:00. Barakaldo.

Lehen territorial maila
Usurbil-Bergara
Domeka: 11:30. Usurbil.

Leihazaran-Arrasate
Zapatura: 16:30. Andoain.

Gazte maila (gizonezko)
Bergara-Egia Servi-Chap
Zapatura: 17:15. Labegarai.

Hirugarren maila
UDA Mercedes-Deutsche Sc.
Zapatura: 16:00. Aretxab.

Gazteak
Anotako GA-Aloña Mendi
Zapatura: 17:00. Añota.

Kadete maila, gizonezkoak
Aloña Mendi-Gatz Museoa
Zapatura: 16:00. Zubikoa.

Gazte mailako Udaberri Saria, emakumezkoak
Verkol Aloña-Jauja Andone.
Domeka: 12:00. Zubikoa.

SASKIBALOIA

ACB
Caja Fernando-Bruesa
Domeka: 12:30. -----.

Lehen maila. Igoera fasea
Mugarri Alkesa-Ocaso Berrio
Zapatura: 18:00. Iturriape.

Gipuzkoako ligako senior maila, gizonekoak
Ordizia-Candy BKE
Zapatura: 18:00. Ordizia.
Aloña Mendi-Kevian Sport
Zapatura: 19:15. Zubikoa.

BKL CAF-Ointxe Arrasate
Zapatura: 16:30. Beasain.

Gipuzkoako ligako senior maila, emakumezkoak
Eskoriatza-CD Internaciona
Zapatura: 18:00. Intxaurtxe.
Ordizia-Aloña Mendi
Zapatura: 16:00. Ordizia.

Capellan-Lascurain
Larralde-Lasa III

Del Rey-Arizmendi Uriarte-Arrutti

PILOTA

Pilotari profesionalen jaialdia, Eskubaninako Txapelketa barruan
Domeka: 17:00. Bergara.
Olaizola I-Beloki Xala-Eulate

Capellan-Lascurain
Larralde-Lasa III

Del Rey-Arizmendi Uriarte-Arrutti

PIRAGUISMOA

Gipuzkoako Txapelketa
Infantil mailako txapelketa.
Zapatura: 15:00. Bergara.



Gipuzkoako infantilen piraguismo txapelketa, zapatuan
Beti Bustik eta Gipuzkoako Piraguismo Taldeak antolatuta, Bergaran, Labegaraietan egingo dute infantil mailako proba, 15:30ean.

PILOTA > ESKUZ BINAKAKO TXAPELKETA

Finalerdietan lehen kolpea eman dutenak, Bergaran

Xalak eta Eulatek Belokirekin eta Olaizola I.arekin neurruko dituzte indarrak domekan. Irabazten dutenek ia-ia finalerako txartela izango dute



OLAIZOLA ETA BELOKI Atzo, Bergarako pilotalekuaren pilotak aukeratzen.

x.u.

za izan baziren ere, beti ez dute lako erreakzio gaitasun bera izango.

Hala, pilotari guztiek norgehiagoka gogorra izango dela aurreikusten dute: "Aurrekoan Zornotzan ia hiru egun egin genituen jokatzen", esan zuen Eulatek, broman, "eta bihar ere ez zait axola 500 edo 1.000 pilotakada jotzea. Garrantzitsuena irabaztea da, ez besterik".

Hasiera baten, guztiek ibiliko dira gustura Bergaran: "Nire pilotaleku gustukoentetako da, azkarra delako, eta zorrotza". Belokik

esan zuen hori; ea domekan gauza bera esateko moduan dagoen.

ELKOROK URTEBETE GEHIAGO

Bestalde, Elgetako pilotariak urtebete gehiago egingo du Asperrekin, oraingo astean berritu du eta kontratua. Hori horrela, 39 urteko pilotariak 15 urte bete ahal izango ditu profesional modura –Gernikan egin zuen debutua, 1992an–. 2005ean izandako lesioak atzean utzi, eta Elkorkok 52 norgēhiagoka jokatu zituen joan den denboraldian.

HUHEZIKO fakultateko ikasleak gailendu dira txapelketan

Martitzenean egin zuten MUKO fakultateen arteko kirol txapelketa. Hala, Arrasateko, Oñatiako, Eskoriatzako, Ordiziako eta Irungo fakultateetako 155 ikasle izan ziren lehian -130 gizonezko eta 25 emakumezko-, eta bederatzi kirol modalitatetan lehiatu eta gero, HUHEZIKO fakultateko ikasleek eraman zituzten sari gehien. Era berean, MUKO kirol zerbitzuak txapelketan zehar egon den lagun giro ona azpimarratu gura izan du. Argazkian, futbolean hiruko torneoak jokatu zuen taldeetako bat.



MU-KO KIROL ZERBITZUA



> **AMAIA OTAEGI**
Airbus enpresak Frantziako Saint Nazaire herrian duen plantan ari da ikasketa amaierako proiektua egiten.

Bergararrak Ingeniaritza ikasi du Arrasaten > 50



> MUSIKA

Lordi Bergaran eta Potato Arrasaten, gaur; Ruper Oñatin, etzi > 45

> KOMUNIKAZIOA

Inazio Arregi Goienako zuzendariari elkarrizketa > 52



ARGAZKIA: JUAN CARLOS ESPEJO

'Otras mujeres' antzezlana dakarkigu Antonia San Juanek

Umorea, satira eta ironia tartekatzen dituen antzezlana egingo du Oñatin

Ikusleen konplizitatea lortzeko orduan maisua da Antonia San Juan

EDU MENDIBIL > OÑATI
Debagoien inguruan dabil Antonia San Juan eta zapatuaren Oñatin geldiunea egingo du. Eibarreko antzerki jardunaldietan hartu zuen parte egunearan, atzo Elgoibarren izan zen eta bihar *Otras mujeres* antzezlana ekarriko du Oñatira. Agenda beteta dauka Antonia San Juanek martxoan (17 emanaldi hilabetean zehar).

Otras mujeres antzezlana 2001ean estreinatu zuen eta Euro-

pan eta Ameriketako hamaika emandaldi egin ditu dagoeneko. Urte hauetan jasotako harrera beroarri eta arrakastari eutsi nahirik, lanaren jarraipena den *Las que faltaban* ekarri zuen egunearan Eibarrera.

IKUSLEEN KONPLIZITATEAREKIN

Ikusleen konplizitatea lortzeko orduan maisua dugu Antonia San Juan. Pedro Almodóvarren *Todo sobre mi madre* filmari esker publiko zabal batengana heltzea

lortu zuen San Juanek, baina aurretik ibilbide luzea du antzerkigintzan, Madrilgo kafe-teatrotan bakarrizketak egiten zitueneik hain zuen.

Otras mujeres antzezlana orduan landutako estiloari eusten dio. Bakarrizketen bitartez ikusleekin komunikazioa lantzen saiatzen da artista madrildarra; komedia eta drama tartekatzen dira testuetan, San Juan berarenak, Felix Sabrosorenak, Luis Antonio Seguirenak eta Enrique

Gallegorenak. *Doña Rosita la soltera* laneko pasarteak ere badira tartean. San Juanek esaten duen moduan, "ikusleei zaplatzekoak ematea atsegin dut, modu doto-rean baina... Irrabarretsu daudela ikusten dudanean, erregistroz erabat aldatzen dut. Barraketako errusiar mendian ibiltzea bezala da ikuskizunean murgiltzea".

Emanaldia Oñatiko Santa Ana aretoan izango da, 22:30ean. Ordu eta erdi inguruko saioa da eta sarrerak 10 eurotan daude salgai.

MUSIKA > KONTZERTUA SANTA ANA ARETOAN

Ruper Ordorikaren emanaldia domekan Oñatiko Santa Ana aretoan

Jon Piris kontrabaxu-jotzailearekin batera egingo du emanaldia Ordorikak; disko berriko lanak izango dira kontzertuaren ardatza

EDU MENDIBIL > OÑATI

Lagunen eta herritarren aurrean aurkeztuko du Ruper Ordorikak *Memoriaren mapan* diskoa domekan, Santa Ana aretoan. Orain dela pare bat urte eman zuen Ordorikak azken kontzertua jaioterrian, Hiru Trukurekin.

Lan berria aurkezteko kantari oñatiarrak Debagoienean egiten duen bigarren emanaldia izango da domekakoa. Urtarrilaren 27an Arrasateko Amaia antzokian egin bezala, Jon Piris kontrabaxu-jotzailearekin batera egingo du emanaldia.

Joan den udan Azkarate estudioa grabazioa egin ostean, azaroan aurkeztu zuen Ruperrek *Memoriaren mapan* (Elkarlanean). Disko akustikoa da, antzinako folk doinuei helduta. Gitarra akustikoa eta ahotsa dira disko-

aren osagai nagusiak, kontrabaxuak, teklatuak eta tronpeten laguntzaz. Hamaika kantu batzen ditu diskoak eta hitzak Joseba Sarriónandarenak dira. Hain zuzen ere, *Sarri-rekin* duen adiskidetasuna ospatzeko egindako disko dela azaldu du Ruperrek.

DISKO BERRIKO KANTUAK

Domekan disko berriko kantuak joko ditu Ordorikak. Abenduan Donostiako Jareñon egindako emanaldian *Lera zakurren balaria, Ibaia, Ez da itzuliko, Hondartza galduan, Albert Einsteinen mihi, Berak entzungo ez duen kantua, Enbaxadore hodeiertzan, Eskubiak, Hiriak eta Izen zaharrak* abestu zituen (diskoko denak *Goizabalda* izan ezik). Era berean, aspaldiko kantuendako tarteak ere egon zen emanaldi har-



RUPER ORDORIKA *Memoriaren mapan* azken diskoa aurkeztuko du domekan, Oñatin.

GOIENKARIA

tan: *Martin Larralde, Bihotz begiekin, Zaindu maite duzun hori eta Mila gau. Antzeko emanaldia* izango da domekakoa.

Oñatiko Ingurumen Astearren barruan antolatutako emanaldia da. Sarrerak salgai daude 8 eurotan kultura etxean eta Natur

Eskolan. Domekan 10 eurotan salduko dituzte Santa Ana aretoko leihatilan. Emanaldia 19:30ean hasiko da.

Etxean konposta egin nahi duzu?

Leintz Gatzagan, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten, Oñatin, Bergaran, Elgetan edo Antzuolan bizi zara?

Debagoineneko Mankomunitateak etxe anpondoa egiteko bigarren kanpaina jarriko du martxan.

Bizitza bakarreko etxe batean bizi bazara eta lorategia baduzu, edo lursail bat, edo antzerako zerbait, deitu ezazu Debagoineneko Mankomunitatera eta har ezazu parte.

Eskaerak egiteko epea:
otsailaren 21etik martxoaren 9ra,
8:00etatik 14:00etara.

Informazio gehiago nahi izan ezkerro:
Debagoineneko Mankomunitatea.
Arrasate Pasealekua, 5 behea.
20500 Arrasate.
Tel.: 943 79 33 99.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Garapen Iraunkorrerako Departamentua
Departamento para el Desarrollo Sostenible



MUSIKA > KONTZERTUA JAM ARETOAN

Lordi, Eurovision-eko azken irabazleak, gaur Bergaran

Eurovision txapelketa irabazi zuen Lordik Atenasen, 'Hard rock hallelujah' kantuari esker

'The Arockalypse' diskoko eta aurreko laneko kantuak joko dituzte gaur Jam aretoan

E.M. > BERGARA

Lordi talde finlandiarak emanaldia egingo du gaur, egubakoitzan, Jam aretoan. Joan den maiatzean Grezian jokatutako Eurovision txapelketa irabazi zuen Lordik, *Hard rock hallelujah* kantuari esker. Hasiera baten, udazkenean etortzekoak ziren Bergarara baina emanaldi hura bertan behera geratu zen. Oraingoan lau emanaldi egingo dituzte Espainiako estatuan, tartearen gaurkoa Bergaran.

HARDROCK TALDEA

Zalantzarak gabe, Eurovision bezalako lehiaketa bat irabazteak bultzada handia eman zion Lordiri. Ezusteko ona eman zuten, haien musikak eta janzerak erabat apurtzen zuelako orain arte Eurovisionen ikusitakoarekin. Ikuksleria zabal bat

zuzendutako hardrock erraza egiten dutela diote adituek: teklatuak eta ikusleek ondo ikasten dituzten kantuak leloek garrantzi handia daukate. Rovaniemin sortutako taldeak lau disko argitaratu ditu: *Get heavy* (2003), *The Monsterian Dream* (2004), *The Arockalypse* (2006). Era berean, *The Monster Show* izenburuko bilduma daukate baita ere. 1980ko hamarkadako musikaren eragina nabaria da euren musikan eta batek baino gehiagok Alice Cooperrekin parekatu ditu finlandiarak. Twisted Sister, Kiss eta WASP ere gustuko dituztela aitoritu izan dute. Finlandieraz hitz asko 'i' hizkia-rekin bukatzen dira eta hortik izena: Lord (Jauna) hitzari ukitu finlandiarra eman zioten.

Gaurko emanaldirako sarrekak 23 eurotan salduko dituzte.



LORDI Finlandiarrek lau disko kaleratu dituzte orain arte.

GOIENKARIA

BERTSOLARITZA

Oñatiko bertso txapelketa, bihartik

E.M. > OÑATI

Martxoan zehar Oñatiko IV bertsolari txapelketa jokatuko da Portu tabernan. Biher, zapatua, jokatuko da lehen kanporaketa, 18:00etan. Mikel Kortabarriak, Joseba Igartuak, Egoitz Atxagak, Endika Ruizk, Josu Igartuak eta Joseba Lasagabasterrek harituko dute parte biharko saioan.

FINALERA, SEI LAGUN

Esan bezala, aurtengoan txapelketaren 4. ekitaldia izango da. Aurreko hiru edizioak 1960 hamarkadan egin ziren.

Martxoan hiru kanporaketa jokatuko dira. Kanporaketa bakoitzeko onena sailkatuko da finalerako eta, horiez gain, bertsoskola bakoitzetik puntu gehien lortzen dituena ere sailkatuko da finalerako. Hiru bertsoskola dira Oñatin: betiko bertsoskola, helduen skola eta gazteena.

Epaimahaia, Iker Agirrek, Lander Diaz de Gereñuk eta Iñaki Larral bertsolari ohiek osatuko dute.

MUSIKA > REGGAE GAUA ARRASATEKO 3.60 ARETOAN

Jamaika aldeko doinuak Potato talde ezagunaren eskutik 3.60 aretoan gaur

Ibilbide luze eta aldizkakoaren ondoren, zaleei agur esateko biran murgilduta dabil Potato

'Miguelín el Cashero', 'Puro derroche' eta 'Rula' kantu ezagunak joko dituzte gaur

E.M. > ARRASATE

1984a ezkerro Potato musika taldea zuzenean ikusterik izan ez dutenek gaur dute azken aukeretako bat: reggae talde gasteiztarra Arrasateko 3.60 aretoan joko du, 23:00etan. Zaleei agur esateko biran murgilduta ei dabilta gasteiztarra. 23 urteren ostean, urtean zehar egingo dituzten kontzertuekin agurtuko zaigu Estatuako ska-reggae talderik beteranoa. Hala ere, haiekin ez dago inoiz fidatzerik: Pako Pko talde-kideak berak ez duela agurrea askorik sinisten aitortu du.

DIBERTSIOA ETA KONPROMISOA

Edozein modutan, Gasteizko taldearen ibilbidea ezagutzeko aitzkaria ona da gaurkoa. Potatok bederatzki disko kaleratu ditu eta ezagun bihurtu dituzten doinuak



POTATO Azken bi hamarkadetako kantu ezagunen gainbegiratua egingo dute gaur Arrasaten.

GOIENKARIA

INMOBILIARIA
Inmoborostti
Ibarra 3 • BERGARA
Tel./Fax: 943 76 97 97
www.inmoborostti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Antonio 50 m². Berriuta.
• Juan XXII 80 m². Eguzkitza.
• Masterreka 92 m². Ondo.
• Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
• Angiozar Bi solaria. Berrieko.
• San Pedro 110 m². Estrenateko.
• Zabaloteig 50 m². Oso onto.
• San Pedro 65 m². Prezio ona.
• Aranerrea 87 m². Oso onto.
• Ibarra 87 m². Oso onto.
• Ortubia 97 m². Oso onto.
• Osintxu 95 m². Prezio ona.
• Zubiaurre 60 m². Berriuta.

Etxebizitza berrien eraikuntza San Lorentzen, 2-3 logela, duplex-ak. Prezio ezin hobeak.

Elgeta:
• Etxebizitza berrien eraikuntza, 2-3 logela. Duplex-ak, garajeak, terraza. Bista politak.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Teleforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA
• Arrizuri 97 m². Oso onto.
• Juan XXIII 80 m². Berriuta.
• Masterreka 87 m². Oso onto.
• Zabaloteig 60 m². Oso onto.
• Zubiaurre 60 m². Prezio ona.
• Ibarra 47 m². Berriuta.
• Martiko 78 m². Oso eguzkitza.
• Erdialdean 200 m². Aukera ona.
• Bidekarutegi 82 m², la berria
• Ibarra 80 m², ondo.
• Artelka 62 m². Oso onto.
• Osintxu 125 m². Oso onto.
• Osintxu 82 m². Garajearekin. Ondo.
• San Lorenzo 18 ebelezitzia berri
garaje eta trastelekuarekin.

SORALUZE
• Gabolatz, 65 m². Oso onto.
• Atxuri, 93 m². Oso onto.
ANTZUOLA
• Beheko auzoa, 53 m². Prezio Ona.
• Duplex berria, erdialdean
• Eguzki auzoa, 85 m². Erdi Berriuta.

eguzkitza. Ganbarekin. Telefona: 606 25 92 80.

INMOBILIARIA
Alfa
HIPOTECAS
Parroquia ondoan
Tel.: 943 77 19 19 / 677 49 89 89

ARRASATE
• Ergun: 2 logela, sukaldea, egongela, bainua eta berogailua. 30.000 pta.
• Santa Teresa: 3 logela, sukaldea, egongela eta bainua. 30.000 pta.
• San Josepe: Errebat berriuta. Igogailua. 42.000 pta.
• Urbe Auzoa: 4 logela, sukaldea, egongela eta bainua. Berehala joateko. 53.500 pta.
• Makatzena: 72 m². Berriko.
• Ergun: 65 m². Oso onto.
ARETXABAleta
• Markole, 99 m². Bi trasteleku eta garaje.
• Etxe bakaria, 140 m². 400 m²-ko lursala. Garaje.
• Estrenateko etxebizitza. 3 logela, 2 bainu, egongela, sukaldea, garajeak eta garaje. 49.000 pta.
• Portsol, 85 m². Berriuta. Prezio ona.
www.alfamondragon.com
orrialdean 7.000 etxebizitza
balio gehiago aukera

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU
Antzuola. Antigua auzoan etxebizitza salgai. 72 m². 3 logela, berogailua, bista ederrak, balkoia. Eguzkitza. Jantzita eta berritua. 198.334 euro. Telefona: 685 70 41 10.

Aretxabaleta. 72 metro koadro. Erdialdean. Azken solairua (buhardilla). 16 metro koadroko garajeak dauka. Berrikuntzen bat behar du. 659 64 67 38.

Aretxabaleta. Etxea salgai Mar-kole kalean. 97 m². Telefona: 649 66 49 70.

Aretxabaleta. Mitarte kalean 100 metro koadroko etxebizitza salgai. Eguzkitza. Terraza handia. 665 72 18 59 edo 695 78 50 86.

Arrasate. Unibertsitatetik gertu. 76 m². Egongela, bi gela, komuna eta sukaldea. Berritz-tatu (gaseko kalefakzio individuala, hezetasunaren kontrako isolamendua...). Denak kanpora ematen du. Eguzkibegia. Garajeak. 298.525 euro. 610 55 72 78.

Arrasate. Ergun auzoa. Guztiz berritua. 60 metro koadro. Guztiz jantzita. 267.000 euro. 629 23 94 89.

Arrasate. Etxebizitza salgai Uri-bea auzoan. Lau logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Garajeak. 625 28 72 06.

Arrasate. Etxebizitza salgai. 80 metro koadro ditu. Hiru logela, sukaldea, egongela eta des-pentsa ditu. 629 62 44 69.

Arrasate. Etxebizitza salgai. Jan-tzita. Hiru logela, komuna eta berriutako etajantziak sukaldea. Terraza ere badu, oso eguzkitza. Parkingu eskuratzeko aukera. 239.200 eurotan salgai. 628 88 81 08.

Arrasate. Ferialekuak. Igogai-luarekin eta guztiz jantzia. 943 79 60 88.

Arrasate. Gorostiza (Malvinak) auzoan. 3 logela, egongela, jan-gela, 2 bainugela, ganbara han-dia, garajeak eta ikuspegia zora-garria. Guztiz jantzia. Telefona: 686 01 75 45.

Arrasate. Grupo San Juan auzoan. 60 metro koadro. Igogailua, ganbara, berogailua. Goiko solairua. 606 25 92 80.

Arrasate. Grupo San Juanen. Bi logela, berogailu individuala,

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK

201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK

301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA

401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA

601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
604. KONPONDUA
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK

801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEJAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

Egubakoitz eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrak iragarriko ditugu.

943 25 05 01
sailkatuak@goiiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITU; GAINERAKO 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.
PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENENKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERRO, 25 EURO (+BEZ-A).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitekeen operazioen erantzukizunik.

ARRASATE

MONDRAGON LINGUAk
begiraleak behar ditu uztalean egingo dituen
ingelesko udalekuetarako.

Interesatuok bidali curriculuma
svazquez@mondragonlingua.com helbidera edo
deitu 943 71 20 55 telefonora

ARETXABAleta

Sukaldaria edo sukaldari laguntzailea behar da.
662 13 27 55

102. EROSI

Arrasaten, Musakola auzoan etxebizitza behar da. Derrigorrezko hiru logela edukitzea. 653 71 64 79.

Arrasaten, Zigorrola auzoan 3 gelako etxebizitza behar da. 653 71 64 79.

103. ERRENTAN EMAN

Benidorm. Bi logelako apartamentua errrentan ematen da. Levante hondartzan bertan. 630 41 84 65.

Bergara. Zubiurren. 60m2, bi logela, sukaldea, egongela, bainugela, trasteleku, berogailua. Jantzita. Garajeak aukera. 630 65 10 87.

Bilbao. Loft-a salgai, 63 m². Dena berritua, argitsua, orientazio ona. Jantzita. Telefona: 656 78 70 34.

Eskoriatza. Etxea herri erdian. Hiru logela. 696 16 83 06.

Elgeta. Hiru gela, ganbara, igo-gailua. 138.232 euro. Telefona: 946 81 71 97.

Onati. Arantzu kalean. Leku eta egoera oinean. Sukaldea, egongela, 2 logela, 2 bainu eta ganbara. Garajeak aukera. 943 71 22 58.

Oñati. Apartamentua salgai San Lorentzen. Saloi-sukaldea, 2 logela, komuna eta terraza handi bat. Garajeak aukera. 658 72 23 37 edo 943 78 18 38.

Arrasate. Etxebizitza etxekotera. Hartuko luke errrentan semearekin biziak. 629 94 66 61.

Arrasate. Hiru mutil arduratsu etxebizitza bila dabiltsa. Telefona: 666 00 52 12.

Bergara. Errrentan hartuko nuke etxea. Deitu telefono honetara: 671 33 75 63.

Bergara. Etxebizitza errrentan hartuko nuke, Bergara edo inguruan. Egoera onean eta

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Arrasateko familia batek etxebizitza bat alokatuko luke, etxe berria eman arte. 619 45 42 87.

Arrasate. Erdiguneko etxebizitza batean bizi naiz eta beste pertsona batendako lekuak dago. Deitu: 619 45 42 77.

105. ETXEAK OSATU

Arrasabeta. Gela bat errrentan ematen da etxea osatzeko. Duran-za. 630 31 84 34.

Etxebizitza osatzeko pertsona bat falta zagu. Etxe erosoa eta handia. Ekonomikoa. Telefona: 647 19 80 67.

106. BESTELAKOAK

Arrasate. Erdiguneko etxebizitza batean bizi naiz eta beste pertsona batendako lekuak dago. Deitu: 619 45 42 77.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Uribarri kalean garaje salgai. 625 47 61 62.

Bergara. Erdialdean. Burdiñaten. 21 metro koadro. 23.000

3/ LOKALAK

301. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Bulegoak alokagai Otalora 18an, Uarkapeko arku-peetan. Deitu telefono honetara: 638 17 93 63.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Emakumea euskalduna behar da arratsaldez umeak zaintzeko. 605 72 77 31.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Aretxabaleta. Ingel esko-la partikularrak emateko per-sona bat behar da. Telefona: 605 74 43 64.

6/ MOTORRA

601. SALDU

BMW 320 i36 Coupe autoa sal-

gai. 134.000 km. Egoera one-

an. 659 04 20 99.

7/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Uribarri kalean garaje salgai. 625 47 61 62.

Bergara. Erdialdean. Burdiñaten. 21 metro koadro. 23.000

Alejandra. Deitu telefono hone-tara: 618 42 70 07.

<p



Osintxuko Landatz baserriko **Joxe eta Angeles** 1957ko martxoaren 2an ezkondu ziren Osintxun. Elkarren aldamenean 50 urte eman ostean,urrezko ezteiak ospatzen dituzten honetan, zorionak, familia guztien partetik.



Arrasateko **Margarita eta Nicasio eta Nieves eta Migel** ezkondu zirela otsailaren 28an bete dira 50 urte. Urrezko ezteiak asteon ospatu dituzte meza eta bazkariarekin, familia giroan. Zorionak eta muxu handi bana, zuen anai-arreben partetik.



Teodora Garcia eta Adolfo Briongos 1957ko martxoaren 4an ezkondu ziren Bergarako San Pedro elizan. Urrezko ezteietan, zorionak eta muxu bana, familiakoentzietan. *Momentu txarrak eta momentu on asko lau seme-alaba eta bost bilobentzako. Berrogeita hamar urte pasa direlako heldu zaigu eguna batera ospatzeko.*

hildakoak

- **Cornelia Iriarte Astola.** Aramaion, otsailaren 24an. 92 urte.
- **Luis Fernando Garai Ibabe.** Bergaran, otsailaren 25ean. 45 urte.
- **M. Carmen Goenaga Askasibar.** Bergaran, otsailaren 25ean. 89 urte.
- **Lazaro Elortza Barrena.** Antzuolan, otsailaren 25ean. 93 urte.
- **Juan Garro Abarregi.** Eskoriatzan, otsailaren 27an. 87 urte.
- **Maria Angeles Bengoa Abarrategi.** Arrasaten, otsailaren 27an. 71 urte.
- **Justo Gonzalez Rodriguez.** Arrasaten, otsailaren 27an. 86 urte.
- **Josefina Lazpiur Elkoro.** Bergaran, otsailaren 27an. 90 urte.
- **Angel Encinas Jose.** Arrasaten, otsailaren 28an. 48 urte.
- **Victoria Jauregi Pagaldai.** Arrasaten, otsailaren 28an. 83 urte.

ESKELA

Eugenio Zuazua Urrutia

Aita karmeldarra

Bogotan (Kolonbia) hil zen 2006ko abenduaren 7an, 88 urte zituela.

Haren arimaren aldeko elizkizuna astelehenean, martxoak 5, 19:00etan, Arretxabaletako Jasokundeko parrokiian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Lorenzo Beitia Ugarte

Lehen urteurreneneko meza zapatuan, martxoaren 5an, 19:00etan, Oñatioko Mikel Goiangeruaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Josefa Arantzabal Loiti

Lehen urteurreneneko meza domekan, martxoaren 4an, 11:30ean, Antzuolako Errukizko Amaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Luis Fernando Garai Ibabe

Donostian hil zen 2007ko otsailaren 25ean, 45 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko martxoaren 2an.

ESKER ONA

Guadalupe Oregi Astigarraga

Pedro Sudupe Lersundiren alarguna

Soraluzen hil zen 2007ko otsailaren 28an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Soraluzen, 2007ko martxoaren 2an.

ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 01

Edo zatoz ordezkaritzat batera, eguztazten eguerdia baino lehen:

Arrasate

Goiena: Otarra lizenziaduna 31. 943 71 25 11. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65. / Laixan euskara elkartea: Bidebarrieta 18. 943 71 63 11.

Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta

Mariasun janaridenda: Salvador 26. 943 76 81 90.

Eskelaren prezioa: 87 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, 100 euro.

Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.



bila-bila 7**hitz gezidunak**

Leku basa	▼	Entzun	▼	Arrain mota	▼
Larria	►	Herrestan dabilena	▼	Joan den urtea	▼
Putreak	►				
Mea	▼				
Zikoitza	▼	* Irudiko animalia	►		
Atari	►	Errep., pil-pil	▼		
Ukuilua	►			Iodoa	►
Berriro esana	►			Zintzo	
Nitrogenoa	►	Bokala	►	Alkoholen bukera	►
Fanatismo-ak jota		Kontso-nantea	▼	Euskaraz eta kitto!	▼
2 6	3			Huts	►
1	9			Oxigenoa	
6	8	7			
4	9				
5					
9					
2					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5					
9					
2					
6					
1					
6					
4					
9					
8					
5</					

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEVERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)

Bergara / Zurradero 6, behea / 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEVERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutza 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriozt 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

TRIPALDI ENRIKE

Bergara / Justo Garate 1 / 943 76 70 76

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

OÑATI / ATZEKO KALEA 6, BEHEA / 620 124 843 / 943 71 61 82

DIETISTAK

ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka 11, behea / 943 76 33 99 / 646 43 34 58

RAQUEL PEREIRA GALDOS (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)

Nafarroa etorbidea 3 / 943 79 44 22

ENTZUMEN ZENTROAK

GAES

Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON

Arrasate/ Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

BASTERRETXEA MARIA

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 6 – 7 / 943 79 95 64

IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Burdinahate 2 / 943 76 21 31

ORMAZABAL FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Telleria 6 bis, 11 bulegoa Labagarieta ind. / 943 76 53 35

UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.

Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

HOMEOPATIA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

KIROPRAKTIKA ZENTROA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

ABUIN JOSE LUIS

Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kiroldegian

943 77 01 33 / 943 77 16 77

ARANTZABAL SAIOA

Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29

ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

CASANELLAS JABIER

Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78

ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

ETXEVERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

BEGINONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ITZIAR OPTIKA

Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

ITZIAR UGARTE OPTIKA

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

ETXEVERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerlek zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

</div

Amaia Otaegi > Ingeniaria

"Hegazkinean bidaiatzeari ez diot beldurrik; dena oso segurua da"

Amaia Otaegi (Bergara, 1981) Airbus enpresak Frantziako Saint Nazaire herrian duen plan-

tan ari da ikasketa amaierako proiektua egiten. Ingeniaritza ikasketak egin ditu Otaegik Arra-

sateko unibertsitatean eta, Leonardo bekari esker, proiektua Europaren egiteko aukera izandu.

Hasieran hizkuntzarekin arazoak izan zituen arren, gaur egun oso gustura dagoela esan digu.

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Amaia Otaegi ez da askotan etortzen herrira; izan ere, bederatzitik orduko bidaia du Saint Nazairetik (Frantzia) Bergarara. Hala, jaieguna bereziak aprobetxatzen ditu Bergarara etorri eta lagunekin eta familiaoekin egoteko.

Zenbat denbora daramazu Frantzian lanean?

Orain bost hilabete hasi nintzen lanean Airbusen Frantziako Saint Nazaire herrian duen plantan. Hasiera gogorra izan zen, baina poliki-poliki nire leku hartzen joan naiz, eta orain gusura nago.

Piezak baten prozesuaren diseinu osoa egiten ari naiz; hasierako tenkatzea eta mekanizatua barne. Hegazkinaren estruktura, eskeletoa, da egiten ari garena; hegazkinari forma borobilera ematen dion piezarekin ari gara.

Nola heldu zitzaitzun Airbusen lan egiteko aukera?

Europa mailako beka bat esker nabil Airbusen lanean; zortzi hilabeteko beka da eta maiztean bukatuko zait. Arrasateko eskolan, lau beka zeuden goi mailako ingeniarientzat eta izena eman nuen. Hasiera batean, Frantziara edo Suediara joateko aukera egongo zela esan ziguten.

Eta nola egin duzu Bergarara bidaia, hegazkinean?

Ez, trenez etorri naiz. Ez daukat hona ingurura hegazkinean etortzeko aukerarik. Nantesetik Madrilera daude hegaldiak, baina Bilbora ez.

Ingeniaritza ikasketekin hasi zinenean, Airbusen lan egiteko aukera izango zenuela pentsatzen zenuen?

Ez; gustatu bai, aeronautikan lan egitea amesten nuen zerbaitez, baina ez nuen uste Airbus enpresan lan egiteko aukera izango nuenik.

Zer egin da Saint Nazaireko plantan?

Gure plantan, fuselaje nagusia eta aurrealdeko fuselajea egiten dira. Baita ere, barrualdeko sistemak; aire girotua, hodiak eta abar. Ni orain egiten ari naizen piezak zazpi metro luze ditu eta bi metro eta erdi zabaleran.

Pentsatzen dut ez diezula hegazkinei beldurrik izango.

Ez; egia esan, ez naiz askorik ibili, baina ez diet beldurrik.



A.E.

PERTSONALA

Herria: Bergara. **Adina:** 25 urte. **Ikasketak:** Ingeniaritza Industriala. **Amets bat?** Bat esatekotan, orain dudan tankerako lan on bat hemen, Bergaran, izaera. **Gomendatzeko moduko film bat?** Matrix, lehenbiziko filma. **Gizadiaren asmakizun onena?** Asko dau-

de; bat, hegazkina. **Bidaiatzeko modu bat?** Hegazkinean, esan beharko dut! **Infozegon zaren leku ederreña?** Orain arte gehien harritu nauen hiria New York izan da. **Bergarako toki gustukoena?** San Martzial, adibidez.

Eta zer esango zenioke hegazkinean bidaiatzeari beldurra dion bat?

Lasai egoteko, hegazkinen entsegu asko egiten direla eta dena oso segurua dela. Gaur egun, ez dago batere arazorik. Pieza guztien entseguak egiten dira. Ni nagoen herrian bi lantoki daude; batean piezak egiten dira eta bestean, muntatu eta entseguak. Ni piezak egiten diren lantokian nago; beraz, ez ditut entseguak ikusten, baina badakit oso zorroztak direla.

Bidaiak direla-eta, prestatu alduzu Aste Santurako bidaia?

Ez, nik ez dut Aste Santuko oporrik izango! Frantziar ez dute ospatzen, astelehena bakarrik ematen dute jai; beraz, hiru eguneko aste bukaera besterik ez zait geratuko.

Zer egiten duzu lanetik ateratzean? Nolako bizimodu egiteko aukera ematen du Saint Nazairek?

Bizimodu oso lasaia egiten dut; ez dut aparteko ezer egiten. Aste barruan 16:30ean bukatzen dut lan jarduna; beraz, teorian nahiko denbora daukat zerbait egiteko. Baina frantsesen bizitza hain da lasaia, ez dut ezer ere egiten. Aste bukaeran ere lo besterik ez dute egiten. Nantes ni bizi naizen herritik nahiko gertu geratzen da, eta han mugimendu handiagoa dago; ikasle gehiago dago.

Bergarara etortzeko oihitura-rik baduzu?

Ez, aste bukaera baterako bakarrik etortzea ez du merezi. Bidaia luzea egin behar dut, bederatzitik orduko. Maiatzean berriro ere etorriko naiz, baina ordura arte Frantziar izango naiz.

Egun hauek parranda egiteko aprobetxatuko dituzu, beraz.

Bai, hala da. Ez dakit parrandarik egingo dudan, baina denbora, behintzat, ez dut alferrik galduko.

Bukatzeko, proiektua ezin ei duzu Arrasateko eskolan aurkeztu?

Bai, hala da, proiektua isilpeko kontua da. Proiektua Saint Nazairen aurkeztu behar dut; aurkezpen egunean, nire tutoreak hara joan beharra dauka. Segurtasun kontuak direla-eta, Airbusen egiten dugun dena erabat isilpekoa da.

berriak

> GOITB
**'Musikantoi' saioa
eguenetik
eguaztenera**

Ixone Serranok aurkezten duen *Musikantoi* saioa egunez aldatuko da aste honetan. Programazio berezia dela eta, eguenean beharrean, eguaztenean izango da aste honetako saioa.

80ko hamarkadako euskal musika taldeen bideoeklikoak, bitxikeriak eta elkarrizketak dira saio horretako muina. Horrenbestez, musika atsegin duenak eguaztenean du disfrutatzeko aukera.

> INTERNET
**'Goiena.net'-en
GOITBko berriak
ikusgai**

www.goiena.net webgunean Debagoieneko albisteak irakurtzeko aukera dugu, baina baita GOITBko albistegia ikusteko ere. Eguneko azken albistegia ikusteko, aski da *goiena.net* orrian sartu eta bertan agertzen den GOITBko pantailan klik egitea.

Hortaz, Debagoienean zer gertatzen den jakin nahi baduzue, Internetera jo dezakezue. Gertuko informazioa sarean duzue baita ere.

> ARRASATE IRRATIA
**Denetarik entzungo
dugu 'Asteko
gainbegiratua'-n**

Zapatu eta domekan 10:00etan eskaintzen den asteko elkarritzeten bilduman, Txomin Iturbe gogoraraziko dugu, besteak beste. Horretarako, Alvaro Arregiren (orduko Arrasateko alkatea) eta Xabier Zubizarretaren (sasoiko HBko zinegotzia) testigantzak jasoko ditugu.

Gainera, Zuhaitzen Eguna izan berri denez, Pello Zabalak zuhaitzei buruz egingo digu berba.

> ARRASATE IRRATIA
**Korrikaren gaineko
saio berezia
aste bukaeran**

Korrika gure bailarara datorenez, zenbait ekitaldi izango dira zapatuan eta domekan Arrasaten. GOITBn aste honetan eskaini den Korrikaren gaineko erreportajea eta mahai-inguru berreskurtuko ditugu irratirako. Zapatuan eta domekan 16:00etan Edurne Brouard (Korrikako antolatzailea), Oskar Elizburu (bailarako antolatzailea) eta eskarmen handiko irakasle bat entzuteko aukera izango dugu, beraz.

DOKUMENTALA > EGUNA, 21:15

Txomin Iturberen gaineko dokumentala eguenean


Txomin Iturberen heriotzaren 20. urteurrena dela eta, dokumental berezia ikusiko dugu

GOIENKARIA > ARRASATE

Badira 20 urte Txomin Iturbe arrasatearra hil zela, eta datoaren eguenean, martxoaren 8an, haren bizitzaren inguruko dokumentala eskainiko du GOITBk.

Ordu erdi iraungo duen saio berezi horretan, hainbat testigantzak jaso dira: Xabier Arzallus, Arnaldo Otegi, Joxe Felix Azurmendi, Inazio Arregi, Gorka Landaburu, Xabier Zubizarreta, Kepa Ormaetxea, eta abar.

Testigantzak gain, ETAko kide ohiazen biografia ere aipatuko zaigu Gorka Etxabe kasetariak eta Iban Toledo kamerariak egindako saioan.



TXOMIN ITURBE Haren heriotzaren 20. urteurrena bete da.

GOIENKARIA

'KOMUNIKALDIAK' > EGUNA, 21:15

HUHEZIREN 'Komunikaldiak' jardunaldien gaineko saioa eguenean GOITBn

GOIENKARIA > ARRASATE

Bigarren urtez, *Komunikaldiak* izeneko jardunaldia antolatu du HUHEZI fakultateak. Jardunaldi horien helburua unibertsitatea eta mundu profesionala geratzea da. Aurtengoan Eskoriatzan jorratu duten gaia zera

izan da: *Tokiko Telebista Digitala Euskaraz*.

Parte-hartzaileak hainbat telebista lokal eta Eusko Jaurlaritzak izan ziren, besteak beste; babeslea, berriz, Euskaltel komunikazio enpresa izan zen. Atzo, eguna, programari hasie-

ra eman zion MUko errektore Josu Zabalak. Hizlari ugari izan ziren: Edurne Basoa, Iñaki Uria, Inazio Arregi, Patxi Baztarrika, Lutxo Egia, Jon Aldanondo eta Bea Narbaiza.

Komunikaldiak duten oihartzuna dela eta, GOITBk saio berezia eskainiko du egunean gaueko 21:15ean. Hori dela eta, jardunaldien nondik norakoak jakiteko aukera izango dugu; horrez gainera, parte hartu zuten hizlariei egindako elkarrizketak ikus ahal izango ditugu, eta Telebista Digitalaren mundura gerturatuko gara.

tele begi

Edorta Arana > www.goiena.net/blogak/hamaika

Teledenda

Aitortu beharra daukat publizitate arruntetik harantzago dagoen, formato transgenerikoa duen eta hipnosia eragiten didan genero hau oso interesgarria iruditzen zaidala. Programazio-taulen bazarretan, desorduetan eta beti ere azpi-produktu gisa kontsideratua izaten den arren, miresmena sortzen dit. Gainera, Teledenda saio bat ikusi eta gero beti zalantza bera edukitzuen dut: nola bizi izan naiz ordura arte produktu hori barik.

Audiometroa, ohe puzgarria, latak mozteko labanak, baita intxaurretatik zukua ateratzeko gai diren gailu magikoak etxeratu barik nola izan bada zoriontsu! Modu berekoa izaten da, politiko batzuen jarduna entzun eta geroko impresioa. Argumentazio ikaragarri sendoa, hitzen erabilera aproposa eta pertsuasio tekniken jabe izanik esaten dutenak sekulako eragina du. Hala gertatzen da elkarritzeta, tertulia eta albistegietan-Hori bai, Teledendetan bezala, hipnosi egoeratik irten eta programaz aldatzen duzunean ez dituzu batere faltan botatzen ez produktu magikorik ezta orojakileen hitzik ere.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.

Txomin Iturbe berbagai Alvaro Arregirekin eta Xabier Zubizarretarekin; Meteorologien geltokian zuhaitzei buruz arituko da Pello Zabal; Imanol Gallegok Oscar sariei buruz egingo du berba;

16:00 Korrikari buruzko saio berezia

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!

Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Lorategiaren geltokia
Elkarritzketak
Merkatu txikia
Zozketak
Zorion agurak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errepp.)
16:00 Korrikari buruzko saio berezia
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tartea (errepp.)

GOITBko programazioa

Egubakoitzta, 2

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musikantoi. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Iragana Gogoratu. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu-Ione Fagoaga. 16:15 Eltze beroa 16:45 Albistek. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Mahai inguru-Korrikako 07. 18:45 Albistek. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Hitz bitan 22:15 Ilunpean-Ion Maia. 22:45 Berriak. 23:15 Iñauteriak 07. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 3

08:00 Emisio hasiera 08:05 Marrazki bizidunak: Fernando Ameketarra, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikuasmira. 11:30 Jazmina. 12:00 Asteakoak. 12:15 Bizitegia. 12:30 Erreportajea 13:00 Eltze beroa 13:30 Mahai inguru-Korrikako 07. 14:30 Musikantoi. 15:00 Aratusteak 07. 16:00 Didjeridu. 16:30 Ilunpean. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Klip@. 20:00 Hitz bitan. 20:30 Erreportajea. 21:00 Erreportaje-harriak. 22:00 Asteakoak. 22:15 Klip@. 22:30 Ilunpean. 23:00 Didjeridu. 23:30 Musikantoi. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 4

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Fernando Ameketarra eta Trikitraka trikitron. 11:00 Hitz Bitan. 11:30 Musikantoi. 12:00 Ur eta Iur. 12:30 Klip@. 13:00 Bizitegia. 13:15 Mkt. 13:30 Erreportajea-harriak. 14:00 Didjeridu. 14:30 Ilunpean. 15:00 Ikuasmira. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00 Jazzmina. 18:30 Hitz Bitan. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ur eta Iur 20:30 Erreportajea. 21:00 Aratusteak 07. 22:00 Mahai inguru-Korrikako 07. 23:00 Erreportajea. 23:30 Ilunpean. 00:00 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 5

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Teknopolis. 14:15 Hitz Bitan. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Ilunpean 15:45 Gaurkoak. 15:47 Mkt. 16:00 Gatza ta b erakatza. 16:15 Jazmina. 16:45 Albistek. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ur eta Iur. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Albistek. 19:15 Musikantoi. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Hamaillatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea 22:15 Telsaila. 22:45 Berriak. 23:15 Didjeridu. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ikuasmira. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 6

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Fernando Ameketarra. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Hamaillatik. 14:15 Erreportajea. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Eltze beroa 15:45 Gaurkoak. 15:47 Hasiberriak. 16:15 Ikuasmira 16:45 Albistek. 17:15 Fernando Ameketarra. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Mkt. 18:30 Gatza ta berakatza. 18:45 Albistek. 19:15 Hamaillatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Fernando Ameketarra 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea 22:15 Hamaillatik. 22:45 Berriak. 23:15 Hitz Bitan. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 7

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Erreportajea. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Ur eta Iur 15:45 Gaurkoak. 15:47 Hasiberriak. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Albistek. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Hamaillatik. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Albistek. 19:15 Musikantoi. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Komunikaldia 07. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Musikantoi. 22:15 Telsaila. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 8

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Fernando Ameketarra. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Komunikaldia 07. 14:15 Musikantoi. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Eltze beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Hamaillatik. 16:15 Ikuasmira. 16:45 Albistek. 17:15 Fernando Ameketarra. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albistek. 19:15 Gatza ta berakatza. 19:30 Mkt. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Fernando Ameketarra. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:15 Telsaila. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.

Inazio Arregi > Goienako zuzendari nagusia

"Digitalizazioarekin, telebista kontzeptu berri bat dator, telebista multimedia"

'Tokiko telebista digitala euskaraz' jardunaldieta parte hartu du Inazio Arregi Goienako zuzendariak

Digitalizazioak hainbat baldintza eskatuko dituen arren, begi onez ikusten du Arregik

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA
Komunikaldiak izenburuko jardunaldiak egin zituzten atzo, eguna, Eskoriatzako HUHEZI fakultatean. Tokiko telebista digitala euskaraz da aurtengo gaia. Hainbat hizlariak egin dute berba, eta horietako bat Goienako zuzendari nagusia, Inazio Arregi, izan da.

Telebista digitalaren eta Goienaren inguruan hitz egin duzu.

Bai. Hala ere, ikuspuntu berezitik aztertu dut gaia: alegia, gaur egungo tokiko telebisten historia gainbegiratu dut, noiz hasi ziren eta, gerora begira dauden aldatetik non kokatzen diren, zein aukera sortzen zaizkien. Ez naiz aritu digitalizazioaz bakarrik, baizik eta 15 urteko tokiko telebisten historiaz.

Hainbat hizlari izan dira, eta nork bere ikuspuntutik landu du gaia. Nik, Goiena gai horretan aurrekaria izan den neurrian, Arrasate Telebista sortu zenetik gaur arte, historiaren ikuspuntua aukeratu dut, etorkizunari begira.

Zein da gaur egungo egoera?

Hamabost barruti daude Euskal Herrian, eta bakoitzean lau telebista egongo dira. Barruti batzuetan lehia handia egongo da: hala, Donostian hiru kate daude orain, Localmedia, Localia eta Vocento, eta Udalak berea egitea erabaki du: dagoeneko lau dira.



Goienako ikus-entzunezkoen zuzendariak Komunikaldiak izenburuko jardunaldieta hartu du parte.

GOIENKARIA

Horretaz gain, badakigu beste hainbat ere aurkeztuko direla: Hamaika taldea, Onda Cero, Cope... Beraz, borroka handia dator.

Horren ondoren, datorkigun panorama orain artekoaren oso desberdina izango da. Telebistek euren frekuentzia izango dute, legeztatuta; euskararen presenzia orain baino handiagoa izan-

go da, guretako ez nahikoa, baina lehen baino handiagoa; eta aukeraketa bat egongo da. Urduritasuna igartzen dut sektorean, orain arte lanean ibili diren asko kanpoan gera daitezkeelako.

Hamaika taldearekin elkarrizketak izan ditu Goienak, ezta?

Bai, eurekin hitz egin dugu elkarrekin lan egiteko, eta orain tokiko telebistak lanean ari garen barrutietan, Hamaika sarearen partaide izateko. Orain, negozioak etenda daude, Hamaikaren exijentziak oso handiak direlako. Hala ere, ez dakit egunotan bestelako gertatuko den.

GOITBren etorkizuna zelan ikusten duzu?

Guretako, sare batan barruan egotea ezinbestekoa da. Kontuan hartu behar da 32 orduz emititu behar dugula astean, eta egune-

an, gutxienez, lau orduz. Hori ekoiztea oso zaila da, eta kostu handikoa. Ezinbestekoa da sare baten babesak aurkitzea, ahal bada, kostuetan behera egiteko. Gure aliatu naturala Hamaika da.

Bestetik, Tokikon gure asmo-ekin jarraitzen dugu, eta programazio komuna egiten jarraituko dugu, lehengo helburu berberarekin: gehiago, hobeto, eta merkeago egitea.

Begi onez ikusten zenuen digitalizazioa. Hala segitzen duzu?

Bai. Abantaila handiak ekarriko dizkigu: legeztatu egingo gaitu, baldin eta lizentzia lortzen badugu. Baldintza batzuk bete beharko ditugu, bai, baina hainbat zerbitzu berri eskainiko ditugu: gaur Interneten aurki daitekeen guztia telebista bidez egin ahal izango da, urrutiko kontrola erabilita: udalarekin harremanetan jarri, ze eguraldi egingo duen ikusi... Telebista multimedia izango da. Kontzeptu guztiz berria da.

Noiz arte eska daiteke lizentzia?

Abenduan ireki zen epea, eta azken eguna martxoaren 23a da. Oso prozesu luzea da, eta prestazten ari gara. Kontratazio Publiko Legearen barruan egindako lehiaketa da. Administrazioak zerbitzu publiko bat esleitzten du: lortu nahi dutenek proposamen egin behar dute, eta berme batzuk eskaini. Gero, puntu gehien dituzten laurek, minimo batetik aurrera, lortuko dute espazio publiko hori kudeatzeko lizentzia.

Goiena bakarrik ala beste batzuekin aurkeztuko da?

Goiena bere kabuz aurkeztuko da lehiaketara, eta gure eskaera egingo dugu. Gero, beti egongo da sare batan babesak aurkitzeko lekua. Euskaraz dezente transmititu beharko da, orain bainodezente gehiago, eta, ekoizpen aldetik, guk ekoizten duguna beste batzuen interesekoa izan daiteke, eta aldearrantziz.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko.blog.komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aebpn
/aistau
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-
aseguruak
/BZ-sistemas

/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia

/gertu
/gorkataxi
/gurea
/gutzizeder
/hamaika
/itxaseder
/irudisport
/jracing
/joseba
/korozabaleta
/markiegi

/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/otzeta
/pando
/richimairer
/tabernaberri

/udalaitz
/urdeki
/urbjeta
/vitoria
/zainduz
/ziripot

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.haurtxoa.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.uxarte.net



Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten


2+1=35

GOIENKARIA 2 eta Pendrive 1; **35 euro**

Ez gabiltza txantxetan. Egia da, gezurra dirudien arren. Urtean 35 euroren truke, Goienkaria bi egunean eroango dizugu etxera, egubakoitzetan eta astelehenetan, urte osoan! Eta, horretaz gain, USB lapitz edo Pendrive bat opari egingo dizugu. Bikaina, ezta?



Deitu telefono honetara 09:00etatik 18:30era:
902-36 38 51



Martxoaren 9an estreinatuko da
“Eutsi” filma zinema-aretoetan.

Hori dela eta... Asteleheneko Goienkariak, bere
harpidedunen artean, honako sariak
zozketatuko ditu.

**18 kamiseta eta
filma ikusteko 10 sarrera**

Astelehenean, irabazleen izen-abizenak!
ADI EGON!

Eta urtean zehar ere, ASTELEHENKO GOIENKARIKO
harpideduna izateagatik, astero hainbat opari jaso ahal izango
dituzu.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

**ASTELEHENKO GOIENKARIA,
urte osoko harpidetza,
35 euroren truke (902 36 38 51)**

Martxoak 2-9

MONIKA BELASTEGI

Zuon ekaldien berri iragazteko, bidali informazioa
eguzteneko egurdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Musika



ELGETA

> Debajazz Talde Berrien II. lehiaketako finala gaur eta bihar Espaloian

Lau finalistek joko dute. Gaur, barikua, Vila 5 eta Paco Weth Quartet –biak kataluniarrak– taldeek jardungo dute. Bihar, zapatua, berriz, Ultima Hora eta Organik's talde euskaldunek. Emanaldiak 22:30ean izango dira, Espaloian.

Musika




ESKORIATZA

> Gose taldeak kontzertua egingo du Inkernu tabernan

Aitzorrotz kultura elkartea Arrasateko Gose taldea eramango du Eskoriaztara. Hala, zuzeneko emanaldea egingo du domekan, hilak 4, Inkernu tabernan. Arrasatearrek 19:30ean egingo dute emanaldea.

Erakusketa



OÑATI

> Begoña Uriartek eskultura erakusketa irekiko du gaur

Begoña Uriarte Arrasateko eskultoreak erakusketa irekiko du gaur, egubakotza, kultura etxean. Hilaren 18ra arte egongo dira ikusgai artistaren lanak, astelehenetik egubakoitzera 18:30etik 20:30era.

Antzerkia

BERGARA

> Iñaki Lasa ipuin kontalariak saio bikotza egingo du

Sssss izeneko emanaldea egingo du Iñaki Lasa ipuin kontalariak. 17:00etan, 3 eta 6 urte bitarteko neska-mutikoen-dako egingo du saioa; 17:30ean, berriz, 7 eta 11 urte bitartekoendako.

Etzi, domeka, Agorrosin Ekintza Gunean.

OÑATI

> Antonia San Juan aktorearen emanaldea

Aktore ezagunak *Otras mujeres* izeneko antzezlana egingo du.

Bihar, zapatua, 22:30ean, Santa Ana antzokian.

ANTZUOLA

> Oñatiko Pake-Lekuko antzerki taldearen emanaldea

Ikusi-makusi Oñatiko erretiratuen elkarteko antzerki taldeak *En dos palabras: im-paciente* izeneko antzezlana egingo du. Antzuolako Erretiratuen Elkarteak antolatu du emanaldea.

Martxoaren 6an, martitzena, 18:00etan, Olaran etxearen.

jartzalea arituko da musika jartzen.

Bihar, zapatua, 23:00etatik aurrera.

ARRASATE

> 'Gu ta gutarrak!' bertso emanaldea

Emanaldian parte hartuko dute: Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsolariak; Josu Zabalak (soinu txikia, akordeoia eta teklatuak); Aitor Rubiok (gitarra akustikoa eta elektrikoa) eta Alex Ruiz de Azuak (perkusioa, alboka eta aho-soinua). Saioa Korrika Kulturalaren barruan dago.

Etzi, domeka, 19:30ean, Amaia antzokian.

BERGARA

> Lordi talde finlandiarra emanaldea Jam aretoan

Maiatzean jokatutako Eurovision txapelketa irabazi zuen Lordi metal taldeak.

Horren aurretek, baina, talde ezaguna zen Europaren barrena. Bada, gaur, egubakotza, Bergaran izango dira.

21:00etan, Jam aretoan

Hitzaldiak

ESKORIATZA

> Erretiro aurreratuaren eta erretiroaren gaineko hitzaldia

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira antolatu dute hitzaldia. *Prejubilacion/jubilacion, otra nueva vida* du izena eta FEVA Seko kideek egingo dute.

Hilak 8, eguna, 18:00etan, Ibarraundin.

ARETXABAleta

> Mont Blancera egindako espedizioa berbagai

Tril emakume taldeak gonditututa, Mont Blancera egindako espedizioaz mintzatu-

ko dira hainbat emakume euskaldun. Tartean Gema Zubizarreta aretxabaletarra.

Hilaren 6an, martitzena, 19:00etan, udaltxe zaharrean.

Erakusketak

BERGARA

> Daniel Txopitearen margo erakusketa

Gaur, egubakotza, inauguratuko dute (19:00etan) Txopitearen erakusketa.

Gaur, egubakotza, hasi eta apirilaren 15era arte, Aroztegi aretoan.

ESKORIATZA

> 'Buztina eta sua Eskoriatzan' delako erakusketa

Euskal Herriko etxeetan egunero erabili izan ohi diren zeramika piezek osatzen dute erakusketa.

Hilaren 11ra arte, Ibarraundi museoan.

ELGETA

> Edurne Erañaren margo erakusketa

Bergarako margolariak Elgetako Espaloian zintzilikatu ditu margolanak. Martxoaren 8ra arte.

Ospakizunak

ESKORIATZA

> Txokolate jana Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta

Txokolate janera nahi duten herritarra gonbidatu dituzte.

Hilak 8, eguna, 18:30ean, Inkernu tabernan.

ESKORIATZA

> Jose Mari Zenitagoiaren margo erakusketa

Eskoriatzako margolariak formatu handiko sei margo erakutsiko ditu *Aurpegia indartsuak* izeneko erakusketan. Atzo ezkerro dago zabalik erakusketa.

Inkernu tabernan martxo bukaera arte.

DEBAGOIENA

> Korrikaren barruan Kulturbira izango da Arrasaten

Seber eta Biteri plazan jarriko dute karpa. 12:30ean hasi eta 19:30ak arte hainbat ekitaldi egongo dira: ume eta nagusiendako tailerrak, *Miss Heldu* antzezlana, bertso eta musika ekitaldiak... Talogileak ere egongo dira.

Domekan, hilak 4, 12:30etik 19:30era, Arrasateko Seber eta Biteri plazetan.

Lehiaketak

OÑATI

> Oñatiko IV. Bertsolari Txapelketa hasiko da bihar

Bihar, martxoan 3, hasiko da. Orduan egingo dute lehenengo kanporaketa. Hiru kanporaketa izango dira guztira –martxoaren 10ean eta 17an hurrengo biak– eta bakoitzean sei bertsolarik jardungo dute. Finala martxoaren 31n jokatuko dute sailkatuek.

Emanaldiak Portu tabernan izango dira, 18:00etan.

Ikastaroak

ARRASATE

> Taila ikastaroa emango du tailagileen elkarrekin

Arrasateko Tailagileen Elkarrekin ikastaro berria jarri du martxan. Hasierako maila da eta elkarrekin egoitzan –Erguine kalea 19, behe– emango dituzte eskolak. Izena emateko deitu gau aldera 645 70 59 13/943 79 40 79 zenbakiera (*Felix*) edo 943 79 77 57 zenbakira (*Jose Mari*). Izenematea zabalik dago.

Musika

OÑATI

> Ruper Ordorika musikarien kontzertua

Oñatiko musikariak *Memoriaren mapan azkeneko lana* aurkeztuko du jaioterrian.

Etzi, domeka, 19:30ean, Santa Ana antzokian.

BERGARA

> Disko jartzaleek saioa egingo du Ziripot tabernan

Arrasateko Ion2 disco

PROPOSAMENA



nire aukera



Larraitz Iñurrategi
Aretxabaletako Loramendi
Euskara Elkarteko teknikaria

Asteo martxa apurtzea gustuko

Zapatu goiza lasai har-tea du gustuko Larraitz Iñurrategik: "Asteo martxarekin apurtzeko zapatu goizean lasai egotea atsegin dut. Gero, arratsaldean lagunekin ateratzea gustaten zait, bueltatxo ematera".

Domeka goizean mendi buelta egitera animatzetan da batzuetan, "nahiz eta apur bat nagia naizen". Eta arratsaldean, berriz lanera: "Loramendin Kuadrillategi izaten dugu-eta".

Hori ohiko aste bukaera baten egiten du Iñurrategik, baina urtean bi edo hiru aldiak kanpora joatea du gustuko, Nafarroara edo Asturiaskera.

Gazte edo nagusiendako ekitaldiak antolatzea da errazagoa?

Gazteendako gustuko gauzak topatzea zailagoa da.

Eta zuk zein ikuskizun mota aukeratuko zenuke?

Umorezko antzerkia.

Gomendatu liburu bat eta film bat.

Liburua, *Memorias de una Geisha* eta filma, *Million dollar baby*.

Aretxabaletara bisitan joan nahi duenari zer gomendatuko zenioke?

Ez dadila Urkulluri buelta eman eta horrekin bakarrik geratu. Aretxabaletak baditu paseorako leku ugari. Oso auzune ederrak daude eta nik horiek ezagutzea gomendatuko nioke bisitariari: Galartza, Ugastegi...

Eguenean Martxoaren 8a da. Ospatu zuzu?

Loramendin egingo dugu zerbait, baina, bestela, egunero ospatu beharreko eguna dela uste dut.

Orain eguenetan,
ikuslearen eguna

Zure sarrera merkeago, asteko egun onenean

Zinema

ARAMAIO KULTURA ETXEA

Glup
Domeka: 17:00.

ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

Apocalypso
Egubakoitz: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehana: 20:30.

Sin Chan helduen imperioan
Zapatua: 17:30.

Hermanas
Eguena: 20:30.

ELGETA ESPALOIA ANTZOKIA

Aladin III
Domeka: 17:30.
Mujeres infieles
Eguaztena: 21:30.

ONATI KULTURA ETXEA

Noche en el museo
Egubakoitz: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehana: 19:30.

Pepper
Zapatua eta domeka: 17:00.
Gravica
Eguena: 20:00.

PORTU TABERNAN

Perros callejeros
Astelehana: 18:00.
Perros callejeros 2
Maritzena: 18:00
Perros callejeros
Astelehana: 18:00
Los ultimos golpes del torete
Eguaztena: 18:00
Yo el vaquilla
Eguena: 18:00

EIBAR UNZAGA

Babel
Egubakoitz: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehana, martxetza eta eguztzena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ GURIDI

Un puente hacia Terabithia
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

The river king
17:30, 20:00, 22:30.

Infiltrados
17:00, 19:45, 22:30.

Noche en el museo
17:30.

Ghost rider
17:30, 22:30.

Diamante de sangre
17:00, 19:45, 22:30.

El grito 2
20:00, 22:30.

Corto Maltes
17:30.

En busca de la felicidad
20:00.

Ciudad del silencio
20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

Babel
19:45.
Cartas desde Iwo Jima
17:30, 20:00, 22:30.

El libro negro
17:00, 22:30.

El ultimo rey de Escocia
17:30, 20:00, 22:30.

La vida de los otros
17:00, 19:45, 22:30.

Paris, je t'aime
17:30, 20:00, 22:30.

Venus
17:00, 20:30, 22:30.

Aupa, Etxebeste!
18:45.

El buen aleman
17:30, 20:00, 22:30.

ÁBACO-LAKUA
ZINEMAK

Un puente hacia Terabithia
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

The Host
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Ciudad del silencio
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Voces en la noche
16:00, 18:00, 20:00.

Ghost rider
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Diamante de sangre
16:00, 19:00, 23:00.

En busca de la felicidad
18:15, 20:30, 23:00.

Noche en el museo
18:15, 20:30, 23:00.

Infiltrados
19:00, 23:00.

El laberinto del fauno
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Happy feet
16:00.

Ratonpolis
16:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguena, ikuslearen eguna.

VELMO CINEPLEX-GORBEIA

El grito 2
18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Ciudad del silencio
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

El motorista fantasma
12:15, 16:00, 17:15, 18:15, 19:30, 20:30, 21:45, 22:45, 00:00, 00:15.

Diamante de sangre
12:15, 16:00, 18:45, 21:30, 00:15.

En busca de la felicidad
12:15, 15:50, 18:00, 20:20, 22:35, 00:50.

El libro negro
22:30.

Sin Chan
12:15, 15:30, 17:15.

Un puente hacia Terabithia
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Noche en el museo
12:15, 15:45, 17:45, 19:45.

Dreamgirls
19:45, 22:10, 00:35.

The Host
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Apocalypso
19:00, 21:45, 00:25.

Juegos secretos
21:50, 00:30.

El truco final: El prestigio
12:15, 16:30.

Arthur y los Minimoys
12:15, 16:30.

El Ratoncito Perez
12:15, 16:05, 17:45.

Happy feet
12:15, 15:30, 17:55.

El laberinto del fauno
20:00, 22:15, 00:40.

Infiltrados
19:00, 21:45, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguena, ikuslearen eguna.

Astelehana, ikuslearen eguna (jaiegunki izan ezik).

ÁBACO BOULEVARD

Un puente hacia Terabithia
12:00, 16:15, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

The river King
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 01:00.

El grito 2
18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

Voces en la noche
20:25, 22:25, 00:30.

Ghost Rider
12:00, 17:00, 19:30, 22:05, 00:45.

Manuale D'amore 2
12:15, 17:00, 19:35.

Diamante de sangre
12:00, 16:25, 19:20, 22:10, 01:00.

Todas contra el
12:15, 15:55, 18:00, 20:05.

Juegos secretos
22:10, 01:00.

En busca de la felicidad
12:00, 17:00, 19:40, 22:20, 01:00.

Apocalypso
22:10, 01:00.

Babel
12:00, 16:20, 19:05, 22:00, 01:00.

Arthur y los Minimoys
12:10, 16:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguenda, ikuslearen eguna.



Juegos secretos ***

Zuzendaria: Todd Field.

Aktoreak: Kate Winslet, Patrick Wilson.

AEB. 2006.

Duela urte batzuk Todd Fieldek *En la habitación* film eder eta indartsua zuzendu zuen. Han kontatutako istorioak ikuslearen bihotza astintzea lortzen zuen; familia arrunt baten disekzio zehatz eta argia baitzen. Gertakizun tragiko batek familiar ezarritako ordena txikitzen du, eta hortik aurrera pertsonaien sentimendu ezkutuak ikusiko ditugu. Orain Fieldek *En la habitación*-ekin zerikusi handia duen *Juegos secretos* zuzendu du.

Zuzendaria berriz era-kusten du pertsonaien barnean sartzeko eta horien sentimendu desberdinak azaltzeko ahalmena. Gure gizartea galduak sentitzen diren gizakiez osatuta dago. Benetan konplexuak gara, ez dakigu zehatz-mehatz zer nahi dugun, errealtitatea eta ametsak nahasten ditugu, besteak eta baita gure burua engainatzenten dugu, ez ditugu gure benetako sentimenduak kaleratzen eta horrela aldenduak sentitzen gara eta gizaki alienatuaz osatutako gizartea sortzen da. Itxura eta errealtitatearen arteko gatazkak gure portaera eragin nabarmena du. Aldi berean, ahalak eta krudelak izan gaitezke eta gure portaera nahiko inkoherentea umeen jokaeretara hurbiltzen da.

Dena den, *Juegos secretos* ez da *En la habitación* bezain klaustrofobikoa. Fieldek narratzaile nahiko ironiko bat erabiltzen du eta horrela, ikusleak istorioaren ganan arnasa pixka bat eta distantzia txiki bat hartzen du. Filmak ez du pertsonaien portaera epaitzen, horien konplexutasuna (argiak eta itzalak) erakusten du, eta hori oso ondo lortzen da aktore guztien lan aipagarriren laguntzarekin.

Antonio Zabala

Eskasa: * Baleko: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

Bosque de sombras ***

Euskal Herria-Frantzia-EB, 2006.
Zuzendaria: Koldo Serra. Aktoreak: Gary Oldman, Virginie Ledoyen, Aita Sanchez-Gijon, Lluis Homar. 98 min.
Inkomunikazioa da filmaren ardazta. Euskal Herria eritzatzen doazn senarematze ingeles batzen arteko inkomunikazioa, heziketa eta malla sozial ezberdinak pertsonen arteko, baita etxeak bertan edo giltzapean bizi direnen arteko inkomunikazio fisika ere.

Diamante de sangre

Fitxaketa eskoziarra Bergarak

ESKOZIATIK Joan den denboraldian Oiartzun taldearekin jokatu zuen eta aurten BTLS taldean dabil Mhairi Walker

ATLETA Eskozian atletismoan jardundakoa da: 800 metrokoan, krosean eta heptatloian lehiatu izan da

IRAKASLEA Biologia ikasketak egin zituen Eskozian eta Bergaran ingeles irakasle dabil akademia baten

EDU MENDIBIL > BERGARA
 Bergarako BTLS nesken futbol taldeak fitxaketa eskoziarra egin zuen *neguko merkatuan*: Mhairi Walker taldean jokatzen dabil urtarrila ezkerro. Edinburgo ondoko Dunbar herriko da, eta, izatez atleta den arren, Mhairik badu esperientzia futbolean: iaz Oiartzun taldearekin jokatu zuen, bestek beste Rachael Olabarria berigar jokalariarekin batera.

Atleta izanik, korrika baloia-rekin baino hobeto moldatzeko dela aitorzten du: "Eskozian atletismoa egiten nuen, 800 metroko proba nagusiki eta krosa eta heptatloia ere bai. 17 urterekin Eskozia txapelduna izan nintzen nire kategorian, 800 metroko proban, eta 2 minutu eta 13 segundo da nire markarik onena. Euskal Herrira etorritakoan hasi nintzen futbolean eta oraindik ere asko hobetu beharra daukat...". Hala ere, gauzak ondo ateratzen ari zaizkio: BTLS taldeak ez du oraindik igoera fasean partidurik galdu. Zapataua Vasconiarri irabazi zioten Donostian, 0-2.

Mhairi Walkerrek erdian, eskuinean jokatzen du, 23 zenbaikiarekin, Beckham bezala: "Zenbaikiarena kasualitate hutsa izan da; egia esan, Beckhamek ez dit gauza handirik esaten... Nahia-go dut Ronaldinho. Brasildarra jokalari aparta iruditzen zait". Era berean, Realzalea dela aitorzten digu: "Barrie-John multilaguna Realzalea da eta oraindik Anoetan izan ez naizen arren, ni ere txuri-urdinen jarraitzailea naiz. Garai txarrak dira hauek... Ez dut uste Realak mailari eutsi ahal izango dionik. Miraria beharko genuke".

IRAKASLE LANETAN
 Bergaran ingeles irakaslea dugu Mhairi, Espolon School Of English akademian. Adin askotariko ikasleak ditu eta guztiek ondo moldatzeko dela dio. Irakasle izatea atsegina du. Uztailean itzuliko da Eskoziera eta han biologia irakasle lanetan hasteko asmoa du. Bien bitartean, futbolean egiten... eta euskara ikasten ahaleginduko da: "Pixka bat dakit", dio.



MHAIRI WALKER Bergarako BTLS nesken futbol taldean dabil eskoziarra. Aurretik atletismoan ibilitakoa da. JOSETXO ARANTZABAL

ahobero

"[Rubalcabari, De Juana Chaosengatik] Ez utzi kabroi hori hiltzen. Bere bizitza higuingariaren ondoren ez nuke nahi De Juana heroi bilakatzea"

Rodriguez Ibarra > Extremadurako presidente

Berriro ere, Rodriguez Ibarra-en *talantea* erakusten duten adierazpenak.

iturri onetik

'Zorionak: ama izango zara' liburua eta DVDA kaleratuko dute euskara zerbitzuek

Debagoieneko udal euskara zerbitzuek *Zorionak: ama izango zara* izenburuko liburu eta DVD aurkeztuko dute hurrengo astean. Bereziki ama izan berri direnentzat eta ama izango direnentzat zuzenduta dago. Haurdun diren emakumeentzat emaginak prestatutako aholkuak eta bestelako materiala jaso dute, euskaran. Amaia Axpe eta Aintzane Lasa arduratur dira materiala biltzeaz.

piperraутса

Mikel Irizar > www.goina.net/blogak/piperraутса

Etxean turista

Iristen dira oporrak. Ateratzen ditugu txankleta, bermuda eta tirantedun kamisetak. Eta, horiek jantzi hutsarekin, turista bihurtzen gara. Turistarenak egiteko, noski; urrun edo ingurutan, beste turista guztiek egiten dituztenen berdinak.

Oso gutxitan okurritzen zaigu inguru hurbila ezagu-tea. Etxean nekez egiten dugu kanpoan ohi den protoko-loa: turismo bulegora joan, aukerak aztertu, gidariak erabili, zerbitzuak ordaindu... Aste bete gurean ematen duen turista katalanak paraje dezente ezagutuko ditu, debagoiendar gehienentzat ezezagun direnak.

Hobetzeko proposamena: Arrikutz koba irekitzen denean, ea nabari den debagoiendarron jakin-mina, eta askok bisitatzen dugun. Ea garen, turista baino, ezagutu zale. Etxetik hasita.

ai, ene!



Segurtasun neurriak konprobatzeko...

Argazkian agertzen den poltsarekin aireportura joanez gero, litekeena da hegazkina galtzea. Badira bromazaleak gero!

<http://tinyurl.com/2b3hgn>

Bisita ezazu Gipuzkoako sukalde, armairu eta bainuontzien erakusketa handiena



Ikusteko 31 sukalde baino gehiago
600 m² baino gehiagoko erakusketa

Europako lehen markak

Kataide Polígonoa 4 - ARRASATE - 943 770157

Ordua: 10 - 13 eta 16 - 19:30

Larunbata: 10 - 13

Merkatuko prezio hoberenak

Armeko
Sukalde Integrala

